

Zu hemen zaude. goiena



ABIADURA HANDIKO TRENAK LEZETXIKI KALTETU IZANAZ KEZKATUTA

Arrasateko Lezetxiki-Leibar eremuan "trenaren obraren ondorioz izandako sarraskia" salatu du Lezetxikiko Lagunak espeleologia taldeak; aztarnategiaren eremuan gertatu ez dela dio Arrasateko Udalak / 4

**TRENA EGITEKO
LANEK ARRASATEN
SORTUTAKO KALTEAK
SALATU DITUZTE**

**ARRASATEKO UDAL
GOBERNUAK DIO
AZTARNATEGIARI EZ
DIOTE LA ERAGIN**

**OBREN INGURUKO
INFORMAZIO
EGUNERATUA ESKATU
DIOTE ADIFI**

**AHT GELDITU!, EH
BILDU ETA BESTE
ALDERDI BATZUK,
AZALPEN ESKE**

Lezetxikiko Lagunak espeleologia taldeko kide bat Lezetxiki-Leibarren, AHTren tunela atzean duela. LEZETXIKIKO LAGUNAK / MAPA: OPENSTREETMAP.ORG

SINADURAK



IBAN PEREZ
HERNANDEZ / 8



RAMON
UGALDE / 11



MARIA
AGIRRE / 40



Basurdeak: ehizak
soilik ez du kontrola
bermatzen

Mar Romera
pedagogoiari
elkarrizketa

MERKEALDIA

2MÓ 199€

BETAURREKO PROGRESIBO
(LEHEN 229€)

+
**UKIPEN LENTEAK
OPARI**



Kontsultatu optikan konpainiaren ezagueriak.

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multiópticas.com

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

Amaia Ramirez de Okariz**Kortabarria** DEBAGOIENA

Lau hilabete barru, ziur aski, jakinekua izango da nork eratu dituen Debagoieneko udalak eta horiei dagozkien Gipuzkoako zein Arabako foru aldundiak -Aramaioren kasua-, maiatzaren 28ko udal eta foru hauteskundeetan erabakita geldituko baitira datorren agintaldiko gobernuak, alkateek ekainaren 17an egingo duten arren karguaren zina. Alabaina, une horretara iristeko hainbat dira taldeek jarraitu beharreko prozedurak, nork bereak eta nork bere erara. Bada, horretan dabilta, arreta bi noranzkotan jarrita: eskualdetik ekin eta lurraldean ere eragin.

Bailarako egoerari dagokionez, publikoa da nortzuk diren herri batzuetako zerrendaburuak, zenbaitzuk zehaztu gabe dauden arren. Arrasaten alderdi gehienek eman dute euren aukeren berri. Gaur egungotik tiraka, Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea aurkeztuko du EAJk alkatetzarako; PSE-EEk, berriz, Aritz Murua; eta Podemosek, Eva Abuin. Zehazki, gaur egun biak dira zinegotziak Udalean. Horrez gain, EH Bilduko Mahai Politikoak Mainer Morras proposatu du, baina zehazteko dago hura izango ote den hautagai nagusia edo ez.

Bergaran, berriz, gaur-gaurkoz, soilik EH Bilduk eman du bere hautagaitzaren berri: Gorka Artola, gaur egungo alkatea. Eta berdin Oñatin ere: Izaro Elorzak jarraituko du alderdiaren zerrendaburu izaten. Elgetan, aldiz, aldaketa izango da: Iraitz Lazkano izan da azken bi agintaldietan alkate, baina, aurreantzean, Ibon Unzetabarrenetxea izango da hautagaia.

Hautagaitzak bideratzen

Gainontzean, ordea, alderdiek azaldu dute lanean dabiltzala. Mikel Lete Debagoieneko EAJko bozeramaileak jakinarazi du ez dutela epemugarik zehaztuta zerrendak aurkezteko, lanean dabiltzala. Unai Elkoro Aretxabaletako alkateak jada aurrera-

"APUSTU SENDOA DA; [EIDER] MENDOZAK ONDO EZAGUTZEN DU FORU ALDUNDIA"

MIKEL LETE, EAJKO KIDEA

Hauteskundeei begira, egin nahiak bideratzen dabilta alderdiak

Maiatzaren 28an izango dira udal eta foru hauteskundeak. Bailarako herrietan lanean dabilta alderdiak eta Gipuzkoara so ere badaude. EAJren eta EH Bilduren artean da lehia eta PSE-EEk indarra galduko luke; are gehiago, koalizio bat izan daiteke



FLATICON / G.M.K.

tu zuen ez dela hauteskunde hauetan zerrendaburu izango eta Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatearen hautagaitza ez da ziurra, baina Goiena telebistako *Harira* saioan adierazi du "proposamena jasoz gero aztertu" egingo lukeela. Hala ere, Letek argi dio helburua herri guztietan zerrendak aurkezte delako, Leintz Gatzagan izan ezik, herri kandidatura bat aurkeztu ohi dutelako.

EH Bildu ere herri guztietan aurkeztuko da. Antzuolako, Aretxabaletako eta Eskoriatzako hautagaiak ezagutzea falta da, baina Igone Lamarain Gipuzkoako EH Bilduko politika instituzionaleko arduradunak ira-

"GURE LEHENTASUNA DA HERRIZ HERRI KONPARTITZEA DUGUN PROPOSAMENA"

IGONE LAMARAIN, EH BILDUKO KIDEA

garri du herrietako prozesuak amaitzean emango dutela horren berri. "Martxoan zehar egingo ditugu zerrenda osoak aukeratzeko prozesuak, eta *tempus* guztiak errespetatuta, horiek ere aurkeztuko ditugu". Horrez gain, Aramaioko zerrendaburuak nor izango den ezagutzea ere faltako litzateke; baita EAJrena ere, baina Arabako antolaketa-aren barne daude.

PSE-EEk, berriz, gaur-gaurkoz, soilik Arrasateko hautagaitza aurkeztu du, 20.000 biztanle baino gehiagoko herria delako. Hala, Aritz Murua adierazi duenez, orain beste herri guztietako zerrendak osatzen dabilta, Debagoieneko herri guztietan: "Gure

"HERRITARREN BEHARRIZANEI ERANTZUTEN DIEN GOBERNUA BEHAR DA"

ARITZ MURUA, PSE-EEKO KIDEA

intentzioa da hautagaitzak 2019ko udal hauteskundeetako udalerririk kopuru berean aurkezteak". Alegia, bailarako herri guztietan, Gatzagan salbu. Horietako batean ere gobernurik lortu ezear, ordea, gaineratu du helburu izango dutela "oposizio arduratsua eta eraikitzailea" osatzea.

Koalizioa, ezbaian

Equo, Ezker Anitza eta Podemos euren kabuz aurkeztuko dira, baina baliteke koalizioaren bat izatea, Aiert Lizarralde Equoko kideak azaldu baitu Ezker Anitzako eta Podemoseko kideekin hitz egiten dabiltzala, ezer itxita ez dagoen arren. "Ikusi behar da zer ematen duten elkarriketek.

"NOREKIN BAINO GEHIAGO, POLITIKA JAKINAK EGITEA DA GARRANTZITSUENA"

EVA ABUIN, PODEMOSEKO KIDEA

Baloratu egin behar da zer asmo dagoen herri bakoitzean".

Eva Abuin Podemoseko Arrasateko hautagaiak ere aurreratu du alderdiekin hizketan dabiltzala eta prozesua "geldoa" izan arren "itxaropentsu" daudela lehenago iristen ez ziren lekuetara ailegatzeko. Are gehiago, Juan Luis Merino Ezker Anitzako ordezkariak ere azaldu du alderdi bakoitzak bere bidea egiten duela lehenbizi eta koalizioaren bat egonez gero aukerak eta programak batzen dituztela. Hala, Bergaran, Eskoriatzan eta Aretxabaletan dabilta batera ekiteko aukerak aztertzen.

Talde politiko horiez gain, PPTik ere jakinarazi dute ordezkari bat izango duela bailaran: Oñatin zerrenda aurkeztuko du eta otsailaren 13an egingo du horren berri emateko agerraldia.

EAJ, lehen indarra

Hala ere, talde politikoei nabarmendu dute Debagoiena ez ezik Gipuzkoa ere oinarri dutela, eta, kasu batzuetan, aurreratuago dituzte eginbeharrak. Esate baterako, alderdi handienek zehaztuta dituzte diputatu nagusirako hautagaiak.

Egun, EAJk du ordezkari bat handiena Gipuzkoako Foru Aldundian. Markel Olano da diputatu nagusia, baina, erabaki propioz, ez da aurkeztuko. Hala, Eider Mendoza izango da haren ondorengoa. "Aho batez onartu zen hautagaitza. Betidanik egon da alderdian eta ondo ezagutzen du; baita Aldundia eta bere barne funtzionamendua ere", nabarmendu du Letek, gaur egun Gipuzkoako Diputazioako bozeramailea eta Gobernantza diputatua baita Mendoza.

Foru aldundiak, beraz, ez du Olano buru izango berriro, hiru agintaldien ostean. Dena den, bailarako EAJren ordezkariak uste du hura ez aurkezteak ez duela eraginik izango herritarren botoan. Eta, hain justu, hori berresten dute Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratutako udazkeneko Soziometroko datuek. Horren arabera, EAJk botoen %36,7 eskuratuko litzuke, 2019an

"AHAL DUGUNA EGINGO DUGU ERAKUNDEAK EZKERREKO GAKOETAN ARITU DAITEZEN"

JUAN LUIS MERINO, EZKER ANITZAKO KIDEA

baino %0,9 gehiago; era horretan, 21 eserleku izango lituzke.

EH Bildu, gora

Haren atzetik legoke EH Bildu. Botoen %34 lortuko lituzke, aurreko udal eta foru hauteskundeetatik %2,1 puntu haziko litzateke eta, horrela, hemeretzi eserleku eskuratuko lituzke. Bada, Lamarainek gaineratu du horrek EH Bildu "lehenengo izateko lehian" jartzen duela eta, beraz, "argi" dagoela datorren diputatu nagusia emakumezkoa izango dela, Maddalen Iriarte baita euren alderdiaren hautagaitza.

Lehia horretaz harago, baina, funtsezkotzat jo du begirada zabaltzea. "Hauteskundeetan ikusiko da zer gertatuko den, baina gure lehentasuna une honetan dugun proposamena herriz herri konpartitzea da". Azaldu baitu Gipuzkoa "etorkizunerako prestatu beharra" dagoela, eta, horretarako, azken urteetako bilakaerari erreparatu behar zaiola: irakurketa egin, "urrats kualitatiboak" egiteko. "Legealdi hasieran iritsi zen pandemia. Hasieratik aitortu dugu zailak izan direla lau urteok, egoera zaurgarrian utzi gaituela, baina akatsa izango litzateke sortu diren gabeziak horren ondorioak direla esatea".

Adibidetzat jarri du Gipuzkoan 14.000 lanpostu galdu izana industriaren edota zaintzaren arloan bistaratu diren hutsuneak. "Ahalagindu beharko genuke bertan eraikitzen duguna babesten, kanpo faktoreen horrelako eraginik izan ez dezaten".

PSE-EEren geroa

Hirugarren indarra, berriz, Soziometroaren arabera, PSE-EE litzateke, baina indarra galduko luke aurreko aldiarekin alderatuz gero. Botoen %16 lortuko lituzke, 2019an baino %1,3 gutxiago, zortzi eserlekurekin; alegia, aurrekoan baino ordezkari bat gutxiago izango luke.

Dena den, Muruak herritarren "ahalik eta babes handiena" eskuratzea espero du, erabakiak hartzerakoan "funtsezkoak" izan

"IKUSI BEHAR DA ZER EMATEN DUTEN ALDERDIEN ARTEKO ELKARRIZKETEK"

AIERT LIZARRALDE, EQUOKO KIDEA

daitezen. "Gizarte politiketan, ingurumen politiketan eta mugikortasun politiketan murrizketarik ez dagoela bermatu ahal izango dugu". Gainera, ez da jakinikoa hauteskundeak EAJk irabaziz gero sozialistek jeltzaleekin gobernaturiko luketen edo ez, baina asmoa argia dela dio: "Herritarren beharrezan erantzuten dien gobernuak izan behar da, identitate interesak edo ideologikoak albo batera utzita, krisi egoera sozioekonomiko honetan ez baikaituzte inora eramaten".

Elkarrekin Podemos

Podemos, Equo eta Ezker Anitza alderdiei dagokienez, koalizio bat osatu dezakete Gipuzkoan ere, baina ez dute ezer baieztatu. Hala balitz, ordea, Elkarrekin Podemosek botoen %7,3 eskuratuko lituzke; bi eserleku.

Alabaina, alderdi bakoitzak argi du zer dagoen jokoan hauteskunde hauetan. "Ezkerretik alternatibak eraikitzea" posible dela dio Abuinek, eta "irabazte" joango direla Gipuzkoan ere. "Gure helburua da gobernuetan sartzea eta erakustea gobernuan egonda gauza batzuk aldatu egiten direla". Haren ustez, "garrantzitsuena" ez da norekin egiten den ituna, baizik eta "politika jakin batzuk" egitea eta horiek gauzatzeko "ausardia" izatea.

Merinok, berriz, iragarri du Ezker Anitzako diputatu nagusirako hautagaia izango dela. "Badakigu ez dugula inoiz lortuko Diputazioa edo udalen bat, baina hauteskundearen jokoa hau da. Koalizioa lortuz gero, litekeena da diputatu nagusirako hautagai beste bat izatea". Dena den, azaldu du "ezkerreko talde politikotzat" dutela euren burua; "ahal duten guztia" egingo dute erakundeak "ezkerreko gakoetan" aritu daitezen.

Lizarralde Equoren asmoen berri eman du: "Gure alderdian hitz egin dugun gauza bakarra da aurkezten den lekuan aurkezten garela izango dela herri edo probintziari beste alternatiba politikoa eskaintzeko".

"HAUTAGAITZA IZANGO DU BAILARAK: OÑATIN ZERRENDA ATERAKO DUGU"

GIPUZKOAKO PP



Debagoieneko Mankomunitatearen egoitza, Arrasaten. E.A.L.

Ezetzta Mankomunitateko aurrekontuari oposizioak

Debagoieneko Mankomunitateak ezin izan du 2023ko aurrekontua onartu, erakundearen nagusitasuna EH Bilduk izan arren –zortzi ordezkari– oposizioko bi alderdietako ordezkariak ez dutelako babestu –EAJk sei ditu eta PSE-EEK bat–

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE Astelehenean egin zuten aurrekontua onartzeko Gobernu batzordea –aldeko bederatzita boto behar dira–. Eskualdeko herri guztietako hamabost ordezkari daude Mankomunitatean. Bozketan ez ziren egon Eskoriatzako ordezkaria –EAJkoa– eta ezta Leintz Gatzagako Udalekoa ere, independentea. EH Bilduk ezin izan zuen aurrera atera proposatutako aurrekontua: 12.885.823 eurokoa. Zortzi boto izan zituen alde: Bergarako eta Oñatiko hiruna ordezkariena eta Elgeta eta Antzuolako banarena; eta beste bost kontra: Arrasateko hiru ordezkariena –bi EAJrena eta beste bat PSE-EErena– eta Aretxabaletakoarena. Ondorioz, 2022ko aurrekontua luzatu egin behar izan du Mankomunitateak: 13.278.000 eurokoa. Aurreko urtekoa baino aurrekontu txikiagoa proposatzen zuen EH Bilduk, "inbertsio batzuk jaitzita" eta hiri hondakinen bilketa zerbitzuaren gaineko "kontratu berriaren igoerarekin".

EH Bilduk hauteskundearen tesuinguruan kokatu du EAJren eta PSE-EEren ezezkoa. "Herritarrentzat beharrezkoak diren zerbitzuak eskaintzeko oztopoak jartzea hauteskundeak gertu daudelako da", dio. Edozelan ere, aurrekontua ez onartuta ere, EH Bilduren esanetan "eskualdeko herritarrek merezi duten zerbitzua jaso dezaten beharrezkoa den ahalegina egingo du Mankomunitateak, horretarako, 2022ko aurrekontu luzatua eta gerakinako baliabideak bideratuta, zerbitzua bermatzeko".

Buruzagitza postua "nahieran" Debagoieneko EAJk azaldu egin du ezezko botoa. EH Bilduri leporatu dio "buruzagitza postu

EAJ-REN ETA PSE-EE-REN EZETZA HAUTESKUNDEEN TESTUINGURUAN KOKATU DU EH BILDUK

bat nahieran kontratatzea eta Mankomunitatearen etorkizuna hipotekatzea". Eta zera gehitu du: "Giza baliabideak arrazionalizatzeko plan bat egiten ari dira lanpostu berri bat sortzeko eta EH Bilduko pertsona bati emateko". Eta gaineratu du ez dela onargarria legegintzaldia amaitzeko lau hilabeteren faltan horrelako plan bat onartzea, erabaki horrek Mankomunitatearen funtzionamendua "aldatzen" duela eta "haren etorkizuna hipotekatzen" duela iritzita.

Jeltzaleek adierazi dute Mankomunitateko aurrekontuari zuzenketa batzuk aurkeztu dizkiotela, eskualdeko bizi-kalitatea hobetzeko asmoz: energia-planekeko ekintzak sustatzeko 20.000 euroko partida; eskualdeko kirol klubuen elkartegintzari buruzko prestakuntzarako 17.000 euro eta Kirol Sariak antolatzekeko beste 18.000 euro; Gizarte Zerbitzuen mapa ezartzeko 30.000 euroko partida; udako turismo bulegoa ibiltaria izatea...



Lezetxikiko Lagunak espeleologia taldeak kideak Lezetxiki-Leibar eremuko haitzulo baten. LEZETXIKIKO LAGUNAK

Lezetxikin AHTaren lanek sortutako kalteen tamaina aztergai

Lezetxikiko Lagunak espeleologia taldeak argitara emandako informazioak hautsak harrotu ditu; eremu zaindu batean, Euskal Herriko giza aztarna zaharrenak aurkitu zituzten haitzuloan, edo inguruan, Abiadura Handiko Trenaren lanek eragindako kalteengatik

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE Asteburuan zabaldu zen berria, Lezetxikiko Lagunak izeneko espeleologia taldeak zabalduko informazio eta argazkiak tarteko. "Abiadura Handiko Trenaren lanen ondorioz, Lezetxiki suntsituta geratu da", adierazi zuten. Arrasateko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak zehaztu dute kalteak "Garagartzako [Arrasate] aztarnategi arkeologikotik urrun" izan direla.

Arrasateko eta inguruko espeleologia-zaleek osatzen dute Lezetxikiren Lagunak kolektiboa,

eta duela bi urte konturatu ziren Lezetxiki haitzulo barruko ohiko bide bat etenda zegoela. Ikeritzen ibili eta gero, metalezko sarek eta xaflez osatutako hormaraino iritsi ziren: "Abiadura Handiko Trenaren tunelaren kanpo estaldura zela egiaztatu genuen".

Lezetxiki barreneko galerietarako bidea harri handiekin guztiz estalita aurkitu zuten sortu zitzaizkien susmoak, "berriki eroritakoak" baitziren. "Garai hartan, AHTaren obrak zirela-eta ia egunero izaten ziren leherketak; beraz, horiek sortu-

tako dardarek eragindako lur-jausia izan zitekeela pentsatu genuen", azaldu dute.

"Izugarrikeriari argazkiak"

Aurtengo urtarrilean sakonago aztertzeari ekin zioten: "Aipatutako barreneko galeria horietara iristeko beste bide bat bazegoela jakin baikenuen". Joan den astean egin zuten aurreneko saiakera. Ingurua argiztatu, eta ikusi zutena sinistu ezinik geratu ziren. "Izugarrizko karreharri eta lur-jausia, azpiko galeria guztiz estaltzen zuena. Harri-askatzearen jatorriari

"AHT-AREN LANEK ERAGINDAKO TRISKANTZA SALATU GURA DUGU"

LEZETXIKIKO LAGUNAK

"BABESTUTA DAGOEN LEZETXIKIKO AZTARNATEGIAK EZ DU KALTERIK JASAN"

ARRASATEKO UDAL GOBERNUA

"AURRERABIDEAREN IZENEAN, ETORKIZUNA SARRASKITZEN ARI DIRA"

AHT GELDITU! ELKARLANA

erreparatu genionean ikusi genuen astakeriarik beldurgarriena. Goraxeago, 40 bat metro aurrerago, askatzearen sorburuan metalezko sarek eta xaflez osatutako horma antzeman genuen. Hobeto aztertu ondoren, Abiadura Handiko Trenaren tunelaren kanpo estaldura zela egiaztatu genuen", diote Lezetxikiko Lagunak. "Egindako izugarrikeriari argazkiak atera eta kanpora irteten ginen, guztiz atsekabetuta. Kalte horiek guk ikusi ahal izan ditugunak baino ez dira. Ez dugu zalantzarik kaltea handiagoa izango dela, agerian ez badago ere. Jakinekoea baita AHTaren obrek kalte handiak eragin dituztela gure bailaran: iturburuak agortu, errekek lohitu eta kutsatu edota lur-jausien ondorioz errepedeak hondatu".

Aurkikuntza horren ostean, espeleologia-zaleek "Abiadura Handiko Trenaren lanek herrian egindako enegarren triskantza irmoki salatu" gura izan dute: "Lezetxiki modu horretan suntsitzea onartezina da, Arrasateko eta Euskal Herriko ondare arkeologiko garrantzitsua eta guretzako kobazulorik kuttunena baita".

Aztarnategian "kalterik ez"

Alabaina, aztarnategi arkeologikoan kalterik sortu ez dela adierazi dute Arrasateko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak. Eremu hori Babes Bereziko Ondasun izendatu zuen 2022ko ekainaren 28an Eusko Jaurlaritzak, eta Lezetxikiko kobazuloetan eta haren azpiko galerietan – Leibar eta Lezetxiki II– dauden interes arkeologiko eta paleontologikoko aztarnategiek eta Lezetxikiko Harpeako babeslekuak osatzen dute.

Batzarra Arrasateko udaletxean Gaiaz arduratuta, Udala Gobernuak deituta batzarra egin zen atzo Arrasateko udaletxean. Alkatearekin eta Udaleko beste kide batzuekin batera, Besaide Mendizale Elkartea, Lezetxikiko aztarnategian aditua den Alvaro Arrizabalaga arkeologoa eta Arrasate Zientzia Elkarteko kideak izan ziren. Ostean, ohar bidez, zera eman zuen aditzera Arrasateko Udala Gobernuak: "Lezetxikiko aztarnategiak ez du kalterik izan". Eta gehitu zuen: "Lezetxiki-Leibar karstaren eremu baten gertatu da lur-jausia, AHTaren tunel batetik oso hurbil. Ezagutzen diren planimetrietan Lezetxiki-Leibar karstak eta AHTaren tunelak urrun egon beharko lukete, eta ez alboan, komunikabideetan agertzen diren argazkietan bezala. Hau horrela, funtsezkoa da eremuaren planimetria zehazta izatea".

Horretaz gain, ohartarazi zuen "funtsezkoa" dela jakitea lur-jausia gertatu den eremuan "kontrol arkeologikorik" egin den edo ez; sedimentu arkeologikoak baleude, potentzialitate arkeologikoa izango lukeelako eremuak.

Salaketa ugari

Gaiak hainbat erreakzio sortu du. AHT Gelditu! Elkarlanak hauxe salatu du: "Aurrerabidearen eta modernitatearen izenean, gure iragana sarraskitzeaz gain, gure etorkizuna ere sarraskitzen ari dira". EH Bilduk azalpenak eskatu dizkie Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari. Gipuzkoako Elkarrekin Podemosek eta Debagoieneko Ezker Anitzak, bestalde, informazioa eta txosten independente bat egitea eskatu dute.

Adif-i, "informazio eguneratua"

Arrasateko udaletxean Udala Gobernuak kideek eta herriko hainbat natura eta ondare taldek eta adituk atzo egindako batzarrean erabaki zuten Arrasateko Udala eskatzea Adif erakundeari – eremu horretan Abiadura Handiko Trenaren erakuntza lanen ardura duen Espainiako Gobernuaren mendeko erakundeari – "obren inguruko informazio eguneratua" helarazteko. Horretaz gain, baita zein izan den kalteen arrazoia eta nori egotzi dakizkiokoen. Eta Adifek ze neurri hartuko dituen gertatutakoaren aurrean.

Arrasateko Udala, edozelan ere, harremanetan jarraituko du beste erakunde publikoekin eta aurreratu du Gipuzkoako Foru Aldundiko arkeologo talde bat bertaratu dela eremua aztertzerako.

**ARAMAIO
ANGIOZAR
ELGETA
ANTZUOLA**

INFORMAZIO
ZUZENA ESKOLAN
BERTAN

ESKORIATZA

Eskola ezagutzea + ikuskizuna: otsailak 9
Eskola ezagutzea: otsailak 13-24
Hitzordua:
943 89 91 94
eskola@luiszeiza.eus

ARETXABAETA

KURTZEBARRI ESKOLA

Bisita gidatuak otsailaren 11n, larunbata.
Hitzordua:
943 89 91 46
zuzendaritza@kurtzebarri.eus

KURTZEBARRI INSTITUTUA

Ateak zabalik otsailaren 8an, asteazkena,
18:00etan Arkupeko Zarala aretoan

ARRASATE

HERRI ESKOLA

Bisita gidatuak Musakolan, Bedoñaben eta
Ergulinen: otsailaren 14an, 16:25etik
18:25era bitartean.
Hitzordua: zuzendaria@arrasatehe.eus

INSTITUTUA

Institutuan: otsailak 7, 18:00
Aramalon: otsailak 8, 18:00

BERGARA

SAN MARTIN AGIRRE HERRI ESKOLA

Ateak zabalik otsailaren 4an, 11:00etatik
14:00etara, HHko eraikinean.
Bisita gidatuak otsailaren 6tik 17ra.
Hitzordua hartzeko: 943 76 21 47

IPINTZA INSTITUTUA

Ateak zabalik Ipintzan bertan otsailaren
15ean, asteazkena, 18:00etan.
943 89 94 44

OÑATI

URGAIN ESKOLA

Otsailaren 11n ateak zabalik.
Hitzordua eskatzeko:
943 89 91 34
zuzendaritza@urgainerrekalde.eus

OÑATI INSTITUTUA

ZUAZOLA eraikinean
Otsailaren 9an, 18:00etan

GOXOTASUNEZ ERAIKITAKO KALITATEZKO ESKOLA

goieskola

debagoieneko euskal
eskola publikoa



→ **MATRIKULAZIOA:**
OTSAILAREN
13TIK 24RA

Guztion eskola, guztion artean

"Zahar-egoitzak etxeetara hurbildu nahi ditugu"

HECTOR OLABEGOGESKOETXEA BIHAR KOOPERATIBAREN ZUZENDARI NAGUSIA Mondragon Korporaziotik sortutako kooperatiba berria da Bihar eta adineko pertsonen nahiz menpekotasuna dutenei zaintza zerbitzu integrala eskainiko die etxean

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA Mondragon Korporaziotik sortutako iniziatiba berria da Bihar Kooperatiba eta haren helburua da pertsona nagusiei eta menpekotasuna dutenei soluzio integrala ematea etxean bertan. Proiektu berri horren zuzendari nagusia da Hector Olabegogeskoea eibartarra. Azken urteetan Irizar E-mobility zuzentzen aritu ostean Korporaziora batzea erabaki zuela dio, erronka berriei heltzeko.

Zer da Bihar Kooperatiba?

Mondragon Korporaziotik sortu den proiektua da eta kooperatiba nahiz dibisio ezberdinen elkarlana du oinarri. Gure helburua da mendekotasuna duten pertsonen eta pertsona nagusien zerbitzu integrala eskaintzea, baina etxean. Joan den egubakoitzean aurkeztu genuen eta dagoeneko martxan gaude.

Ze beharri erantzuteko sortu duzue Bihar?

Datuak hor daude. Gaur egun, Euskadiko populazioaren %22k 65 urte edo gehiago ditu eta hemendik 18 urtera %33 izatea aurreikusten da. Adin-talde horren %95ek dio etxean gelditu nahi duela, eta hori kontuan hartuta hasi ginen proiektu honen. Behar asko suertatzen dira eta guk nahi duguna da erantzun integrala ematea. Behar ezberdinak egongo dira eta guztiei erantzuna ematen saiatuko gara. Batzuetan, erresidentziak urruneko zerbait direla pentsatzen da. Guk kontrakoa egin nahi dugu: gerturatu eta zerbitzu hori etxeetan eskaini.

Zaintza etxeetara zabaldu nahi duzuela diozu, baina nola?

Momentuz, hiru atal nagusi ditugu: alde batetik, *Bihar Help* daukagu. Doako zerbitzua da eta bertara deituta duen behararen arabera dituen aukerak azalduko zaizkio deitzen duenari, Biharren zerbitzuak saldu barik; *Bihar Home* deritzona ere



Hector Olabegogeskoea, martitzenean egindako elkarrizketan. MIKEL ZUMALDE

"GARRANTZITSUA DA JENDEAK DIOENA ENTZUTEA ETA EURENGANDIK IKASTEA"

badaukagu, eta hori etxeko zaintza da. GSR da elkarlanean arituko garen kooperatiba horietako bat eta bertako profesionalak arduratuko dira balorazioak egin eta zainketaz. Guretzat sekulakoa da zaintzan urte askotako esperientzia duten pertsonak eta kasu bakoitzean zer egin daitekeen dakiten profesionalak izatea; azkenik, *Bihar Shop* daukagu. Denda horretan Gerodan deitzen den Azpeitiko kooperatibarekin egin dugu elkarlana; izan ere, adineko zentroetako produktuen hornitzaileak dira. Gure dendarako zerbait produktua aukeratu ditugu, erabiltzaileentzat interesgarriak izan daitezkeenak, eta jendeari eskaintzen dizkiegu.

Teknologiaren erabilera ere bada zuen proiektuaren gakoetako bat. Zerbait arlotan sartuko dugu. Adibidez, hilabete batzuk barru

aplikazio bat sartzea da asmoa *Bihar Home*-n. Zaintzailea, familia eta gu harremanetan egongo gara aplikazio horrekin. Azkenean, ulertzen dugu pertsona bat zaintzeko lantalde bat egongo dela. Hortaz, bertan idatzi daiteke, esaterako, menpeko pertsona horrek nola egin duen lo, familiako kideak nola aurkitu duen bisitan joan denean... Hori guztia gordeta geratzen da eta aukera pila ditu. Bestalde, telebistari lotuta, probak egiten ari gara. Adineko askori konpainia egiten die telebistak eta asmoa da horiei errutina markatzeko jakinarazpenak botatzea: botika hartzea gogoraraziz, kalera irteteko proposamena egin... Indukzio-plaka adimentsua ere eskainiko dugu; ahotsaren bitartez kontrolatzen da. Itsuentzat pentsatuta dago, baina menpekotasuna duenarentzat ere errazagoa da, agian, ahotsarekin kontrolatzea plaka.

Aipatutakoak martxan jartzeko datarik baduzue?

Mondragon Unibertsitatean lehenengo probak egin ditugu eta feedbacka edukitzen oraintxe hasi gara Aretxabaletako erresidentzian autonomia handiagoa

duten pertsonekin. Guk egiten duguna ondo egin nahi dugu, eta probak egiten jarraitzea da asmoa. Litekeena da urte amaieran sartzea etxeetan.

Bihar izenak zeri egiten dio erreferentzia?

Guk gaur zaintzen zaitugu, bihar hobe edukitzeko. Adinekoei "bihar" esanda, askotan, ez dute *bihar* hori ikusten. Nik gaur zainduko zaitut, baina zure bihar eta etorkizun horretan ari naiz pentsatzen. Gaur lagunduko dizut, bihar heltzeko.

Laguntza eskatzea kosta egiten da?

Orokorrean, ezjakintasun handia dago arlo honetan eta menpeko pertsonen bat gertu dugunean ez dakigu nora joan. Gainera, uste dut Euskal Herrian eta, batez ere, Gipuzkoan etxetik kanpo laguntza eske joaten garenean berandu izaten dela, askotan, eta pertsonak menpekotasun handia duten gradu batean egoten direla. Etxekook saiatzen gara ahalik eta hobereana egiten, baina ez da ezer gertatzen kanpora joan eta laguntza eskatzeagatik. Aurrerapauso hori eman behar dugu.

Familian menpekotasun egoera duenari zer gomendatuko zenioke?

Bihar Help-era deitzea; ze aukera dituen azalduko zaio. Pertsona bakoitza ezberdina da, egoera ere bai, eta bertan emandako argibideak jarraitzea gomendatzen diot. Oinarri bat izaten laguntzen du eta proposatutako aukeretatik erabaki onena hartu ahal izango du.

Udan hasi zineten proiektuarekin, bezeroak ere badituzue; nolakoa izan da erantzuna?

Bezeroek erantzun beharko lukete, baina feedbacka positiboa izan da. Guretzat oso garrantzitsua da jendeak esaten duena entzutea eta eurengandik ikastea. Azkenean, pertsona eta familia bakoitza ezberdina da. Pausoz pauso hasi gara, baina epe luzerako apustua da.

Epe luzerako apustua dela diozu. EAEn zabilzate, momentuz; mugak zabalduko asmorik baduzue?

Esandako gauza guztiak martxan jarri eta ondo menperatu behar ditugu. Oinarri bat hartzen dugunean, Estatuko beste erkidegoetara zabaldu da asmoa, baita Iparraldera ere; azkenean, beste herrialde bat da eta beste legedi batzuk dituzte, baina hasi gara Iparraldeko merkaturia ikusten eta aztertzen. Hala ere, orain, hemen gaude zentratuta.

Mondragonek industria arloan %15 egin du gora

4.800 milioi euroko fakturazioa izan zuen, Ulmaren eta Oronaren datuak kontuan hartu gabe

I.A.A. DEBAGOIENA

Iñigo Uzin Mondragon Taldeko presidentea joan den egubakoitzean egin zen Bihar Kooperatibaren aurkezpenean jakinarazi zuen Mondragon Taldeko industria alorra %15 hazi zela 2022an 2021arekin alderatuta, Ulmaren eta Oronaren zenbakiak kontuan hartu gabe. Industria taldeak 4.800 milioi euroko fakturazioa izan zuen. Nabarmendu zuenez, industria-ekipamenduen eta makina-erremintzen sektoreak direna ondoen ibili ziren. Taldea pozik agertu zen emaitzekin. Gainera, taldeko beste enpresen urtea ere "oro har ona" izan dela esan zuen.

"Ziurgabetasun" giroa

Egoera oso epe motzean aldatzen denez, 2023ari begira "ziurgabetasun" giroa aipatu zuen Uzin: "Udazkenean hondamendia etorriko zela zirudien, sekulako atzeraldia, baina begira, ez da horrelakorik gertatu". Azken krisia pandemiaren ondorengoaren bezalakoa ez dela izan gaineratu zuen.

Ulmaren eta Oronaren irteeraz

Ulmak eta Oronak Mondragon taldea utzi badute ere taldea "ondo" dagoela adierazi zuen Mondragoneko presidentea eta gertaera horrek izan dezakeen eraginaz ere izan zituen hitz batzuk: "Gertakari aipaezina albo batera uzten badugu, berriro ere haziko gara. Gauzak gaizki badoaz, makalaldiren bat izan dezakegu, baina hazten jarraitzen dugu".

Halaber, azpimarratu zuen Ulma eta Orona Mondragon Taldeatik ateratzeak ez duela esan nahi Lagun Arotik irten behar dutenik; taldetik ateratako enpresa batzuk ere Lagun Aron badaude oraindik: "Guk ez daukagu inor botatzeko ez asmorik ezta ahalmenik ere".



Itziar Altuzarra eta Amadeo Szpida, *Matxirulo, zure jaixa bukatu da!* lanaren egileak, astelehenean, Oñatin. IÑIGO BARRENA

Oñatiko Udala Grant bekak badu irabazlea

Itziar Altuzarra eta Amadeo Szpida ikerlarien 'Matxirulo, zure jaixa bukatu da!' lanak irabazi du 2022ko Oñatiko Udala Grant beka; Bargastak talde feminista egituraketa eta eraso matxisten aurrean nola erantzuten duen jaso dute 176 orritan

Idoia Aranbarri Arzuaga OÑATI

Itziar Altuzarra eta Amadeo Szpida ikerlariak egindako *Matxirulo, zure jaixa bukatu da!* lanak irabazi du Oñatiko Udala eta Lege Soziologia Institutuak elkarlanean ematen duten Oñatiko Udala Grant beka. Lan horretan aztertu dute herriko Bargastak talde feminista nola egituratzen den eta eraso matxisten aurrean nola erantzuten duten.

Altuzarraren esanetan, Oñatira iritsi bezain laster harrituta gelditu ziren "maila guztietan zegoen mugimendu politikoarekin, baina, batez ere, feminismoarekin. Atentzioa eman zigun kaleetan zehar zegoen sinbologia feminista guztiak, eta orduan, horrekin zerbait egin behar genuela ikusi genuen".

Hala ere, aitortu dutenez, hasiera batean ez zeukaten beka horretara aurkezteko asmorik. Ideiak trukatzeko hasi ziren eta proiektua egitea erabaki eta parte hartzeko lan egokia izan

zitekeela ikusi zuten. Hala ere, saria ezustean hartu dute, ez baitzuten espero: "Itzela izan da. Masterra amaitzen ari ginen eta ordu txikiak arte lan egin behar izan dugu. Urduri geunden. Gelakide batzuen lan batzuk ere ezagutzen genituen, baina sorsopresa itzela izan da",

Ahotsetatik ateratako lana

Maiatzetik azarora aritu ziren lanean buru-belarri iaz eta, guztira, 176 orriko lana osatu dute. Orri horietan daude jasota, hain zuzen ere, sexu erasoaren aurrean Bargastak talde feministak forma ofizialei erantzuteko dituen alternatiba eta ekintzak: "Batez ere, jai giroan gertatzen diren erasoak, egoe-

BARGASTAK TALDE FEMINISTAKO KIDEEN TESTIGANTZEKIN OSATU DUTE PROIEKTUA

ra horietan izaten dira eta gehienak".

Lana aurrera ateratzeko, talde feministaren laguntza zuzena izan dute eta horretarako, bederatzi pertsonaren testigantzak eta ehunka minutu elkarriketetan jaso dituzte, besteak beste. Ahotsak jasotzearen garrantziari eta Bargastak talde feministak egiten duen lanari balioa eman nahi diotela azpimarratu du Szpidak, "lan sakon eta zabal" horretako zati handi bat eurekin egindako elkarriketetatik ateratako ideiak direlako.

2016a ezkereratu banatzen da

Oñatiko herriari ekarpena egiten dioten gizarte zientzien eta zuzenbidearen alorreko ikerketak proiektuak sustatzea du helburu Oñatiko Udala Grant beka.

Beka horiek 2016a ezkereratu ari dira banatzen eta, 2022ko saria emanda, laster zabalduko dute 2023ko deialdia, aurkeztu nahi dutenentzat.

2023KO ELURRETAKO ARGAZKIEN LEHIAKETA



Goian, Jon Garate, Sorraluzen; behean, Jon Cano, Intersport Loramendin. UXUE POVEDA

Epaimahaiarena, Jon Garatek; Publikoarena, Jon Canok

2023ko Elurretako Argazkien Lehiaketako sariak banatu ditu Goienak, lehiaketaren babesleen eskutik

Itziar Larrañaga Sarasola ARRASATE Urtarrilaren 18an neguko lehen elurtea Debagoienara iritsi bezain laster abiatu zuen lehiaketa Goienak eta sei egunean 120 argazki jaso ziren.

Joan den astean jakinarazi zituzten irabazleen izenak. Epaimahaiak Jon Garate Ondarreraren *Aloña, Belar menditik* argazkia aukeratu zuen; irudian ikusten den kontrastea, argitasuna eta zuria zein beltza bereizmen onarekin erakusteko gaitasun teknikoa azpimarratu zuen.

Oñatiko Sorraluze hotelaren eskutik bi lagunendako otordua jaso du astean Garatek. *Freelance* argazkilaria da eta Aloñako argazkia ateratzeko momentuaren xehetasunak eman zituen saria jasotzerakoan: "Belarreko tontoretik aterata dago, hemen

bertan, etxetik nahiko gertu. Arratsalde bateko azken argiak aprobetxatzea momentu polita izan zitekeela iruditu zitzaizkidan, eta, egia esan, zortea izan nuen argi ederra zegoela. Zuri-beltzean aurkeztu nuen, gogoko ditudalako. Zuri-beltzak minimalismo bat bilatzen du, beste geruza bat kentzen da eta iruditzen zait indar handiagoa hartzen duela argazkiak; elurrarekin jolasteko are handiagoa".

Publikoaren Saria

Jon Cano aretxabalearraren *Arbe* argazkiak lortu zuen Publikoaren Saria irabaztea, botoen %23,3 jasota.

Arrasateko Intersport Loramendi kirol-dendaren eskutik jaso du saria: motxila, mendirako makilak eta kantinplora.



ZABALIK

IBAN PEREZ HERNANDEZ

Urtebete Karnabal normaletatik

Azkar esaten dugu, baina uste dut kosta egiten zaigula gogoratzea. Arrazoi asko egon daitezke azaltzeko zergatik ahaztu zaigun hain azkar maskarak eramateko garaia, baina uste dut nagusia izan daitekeela oroitzapen ez oso onak ekartzen dizkigula gure pentsamenduetara.

Eta horregatik, urrun ikusten ditugu 2020ko martxoaz geroztik etorri ziren murrizketa garaia. Orain, garraio publikoan maskarek agur ere esango diegun honetan, urtebete bete da gure herriak jendez betetzen diren ekitaldi nagusiak normaltasun osoarekin ospatzera itzuli zirela.

Karnabalak izan ziren azken festa normala 2020ko martxoaren aurretik eta Karnabalak izan ziren era normalean ospatu ziren jaien arteko lehen.

Ez ahaztu aste batzuk

lehenago oraindik ere barrualdean maskarekin ibiltzera geundela derrigortuta.

Azkar esaten da, baina urtebete denbora asko da. Egun asko dira 365.

GARRANTZITSUA DA ORAINA BIZITZEA; HITZAK ESATEN DUEN BEZALA, 'PRESENTE' BAT DELAKO

Itzelak izan dira itzulera ezberdinak. Adibidez, Durangoko Azokara gerturatzea tokatu zitzaidan. Eta jendetza ikustea egunero postu ezberdinetan euskal kultura dastatzen, horren inguruan solasean, nobedadeen aurkezpenak ikusten... Hori baino sentsazio hobeagorik egongo da, baina ze ona!


Itzuli dira baita ere zutik egoteko kontzertuak, estadio barruetara gure taldeak animatzera joateko egunak...

Aipatu dut seguruenik ahaztu egingo zaigula zer zen murrizketekin ibiltzea, baina uste dut lortuko dugula momentuak disfrutatzea, berriz ez direlako itzuliko, agian. Durangon bertan iaz txanda hartu behar genuen Landakora sartzeko.

Iragana pasa da eta etorkizuna etorriko da. Horregatik da garrantzitsua oraina bizitzea; hitzak esaten duen bezala, *presente* bat delako.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



GUTUNAK

Hika eta noka Debagoienean

XABIER ORMAETXEA 'TXERREN' ARAMAIO

Gazte garaiek aspaldi juen jaten-jatek eta konturatu non-nok mutil gazte batzuk hika erabilten dauela, baine ni baino neska edo emakume gaztiarrik ia inor ez dotela noka entzuten.

Jon Sarasuaren *Harizko zubiak* irakurten nenbilela detailtxo batekin konturatu non-nok.

Graciela izeneko emakume batek galdetu jutsenan-jutsan bere amari ea txikitan zergatik ez jutsenan maia hizkuntza, etxeko hizkuntza, txikitan erakutsi.

Amaren erantzune hauxe izen zonan-zoan, erdera garbixen: "No te va a servir". Debagoien inguruen Gracielen amak moduen pentsetan juen-juek askok gure noka-hika dala eta?

Oiñatin noka-hika berezixue jaukien-jaukiek, baine lan ederra ein june-juek aplikaziño bat mugikorretarako sortuz.

Debagoieneko bestiok – Aramaixo, Arrasate, Gatzaga, Eskoriatza eta Aretxabaleta–, ia danok noka-hika bardine jaukenau-jaukau.

Ez gaittun-gaittuk gauza danok batera Oiñatikuek beste sortzeko?

Ala Gracielen amak moduen pentsetan juna-juau

eta geure euskerie galtzen itxiko juna-juau?

Dagoeneko irabazi dute Errege Kopa

MIKEL ARANTZABAL EIBAR

Irabazi edo, behintzat, euren burua finalean ikusten dute, aurkari *makalena* tokatu zaie-eta zozketan. Baina gauza bat ahaztu zaie: finalerdietara iritsi diren lau taldeetatik Espainiako Ligan *makalena* talde zuri-gorria bera dela; beste hirurak aurretik ditu. Gogora ekartzea merezi du, besterik ez.

Izan ere, gabarra atera baino lehen etxeko lanak egin behar dira eta...

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaio Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"200 bat lagun elkartzeko dira astero euskaraz aritzeko"

MAITE AGIRRE TOPAGUNEKO MINTZAPRAKTIKA BATZORDEKO KOORDINATZAILEA

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Donostiako Bagera elkarteak sortu zuen Mintzalaguna proiektua, 1993an. 30. ikasturtea aitzakia hartuta ekintza bereziak egingo dituzte eta, tartean, *Mintzalagunak 30 urte* dokumentala aurkeztu berri dute Euskaltzaleen Topaguneak eta Bagera elkarteak. Topaguneko Mintzapraktika Batzordeko koordinatzaile Maite Agirre izan da asteon Goiena telebistan, Bagera elkarte Aitziber Gurutzearekin batera.

30 urteotan asko hedatu da Mintzapraktika ekimena; nola antolatzen zarete?

Donostiako esperientziak eman zituen emaitzak ikusita, beste euskara elkarte batzuek ere hartu zuten ideia. 2004an hartu zuen Euskaltzaleen Topaguneak ekimena koordinatu, garatu eta hedatzeko ardurak, eta bi hilean behin elkartzeko gara euskara elkarteekin. Barne koordinazioaz gain, Euskal



Maite Agirre, Goiena telebistako platoon, asteon. LARRAITZ ZEBERIO

Herri mailako Mintzapraktika ekimenak ere garatzen ditugu. **Non dago sekretua naturalak ez diren talde horiek sortzeko?** Konfiantza. Izena ematen dutenek zein bidelagunek badute motibazio bat

elkartzeko eta ez die ahalegin berezirik eskatzen. **Bi profil batzen ditu egitasmoak: bidelaria eta bidelaguna; zer behar da parte hartzeko?** Berez, euskaraz berba egiteko gogoia da behar da, besterik

ez. Egia da nork bere arrazoi pertsonala duela eta, esan duzun moduan, bi profil daudela. Baina, praktikan, denok gara berdinak taldean. Izan ere, uste da bidelagunak euskara maila handia izan behar duela, baina ez du zertan hala izan. Guk euskaraz egiteko guneak eskaintzen ditugu; hasieran artifizialak direnak, baina denborarekin natural bihurtzen direnak. **Euskara ikasten ari den horri kaleko hizkera ezagutzeko aukera ere ematen dio...** Zalantza barik. Eta, alderantziz, azpimarratu nahiko nuke bidelagunen kasuan euskalkiak sekulako ekarpena egiten diola taldeari. Gerta daiteke bidelariak euskalkia ez ulertzea, baina horretarako gaude arduradunak. Beraz, euskalkiak ez du atzera bota behar bidelaguna; kontrakoa. **Hiru hamarkadatan hainbat aldaera izan ditu ekimenak; ona da hori, ezta?** Oso ona da. Egitasmoa ahalik eta gehien zabaltzea eta tokian tokiko egoeretara egokitzea da helburu nagusia. Bat aipatzearren, adibidez, Hikalagun dago, azken urteetan gero eta eskari gehiago jaso dituen; izan ere, askok ez dugu jaso edo galdu

egin dugu... Bide batez, badugu asmoa Euskal Herri mailan hitanoa berreskuratzeko. **Datuei dagokionez, zenbat lagun mugiarazten ditu egitasmoak?** Azkeneko datuak 2022ko ekain-uztailekoak dira, eta, datu bilketa horren arabera, 7.200 lagun daude Euskal Herriko Mintzapraktika egitasmoaren bueltan astero-astero elkartzeko direnak; 1.500 bat talde dira. Debagoienara etorrira, berriz, 200 lagun inguru eta 45 talde dira, guztira; bailarako herri gehienetan dago talde egonkorra. Eta profilari dagokionez, oro har, gehiengo nabarmen emakumezkoa da; ez dakigu zergatik eta, bide batez, aukera baliatu nahiko nuke gizona ere dei egiteko, animatu daitezten. Batez besteko adina 50 eta 60 urte artekoa da. **Diozue bidelagunen premia dagoela; zer egin behar da izena emateko?** Herriko euskara elkarteetan, euskaltegietan edo udaletako euskara sailetan badago izena emateko aukera. Horrez gain, www.mintzalagunak.eus atarian izena emanez gero, guk dagokion herriko arduradunari bideratuko diogu eskaria.

ITURRI ONETIK

EHU eta Aranzadi, minbiziaren aurka

Euskal Herriko Unibertsitateak minbiziaren aurkako ikerketan egiten duen lana ezagutzera emateko, G9Missions dibulgazio-programa egingo dute gaur EHUk eta harekin batera lanean ari diren Espainiako zazpi unibertsitatek. Horiek, hainbat ikastetxek; EAEn, Bergarako Aranzadi Ikastolak. Gaur batuko dira ikastolan EHUko Ikerkuntza Gizarte Zabaltzeko zuzendari Nerea Jauregizar eta Iker Badiola EHUko ikerlari eta irakaslea DBH-4ko eta batxilergoko lehen mailako ikasleekin.

ALBISTE IZAN ZEN



2011-02-05

I. Kintto Eguna Eskoriatzan, Santa Agedan

Kintoak elkartzeko dira Leintz aldean, berriro ere normaltasunez, pandemiagatik bi urtean huts egin ostean. Berezia izango da horregatik. 2011ko otsailean ere berezia izan zen Santa Ageda. Eskoriatzan I. Kintto Eguna egin zuten. Urteko kinttoez gain, beste urte batzuetakoak ere aritu ziren herria girotzen; Aretxabaletan ere elkartzeko ziren, ohiturari jarraiki, herriko kintoak; dantza ikuskizuna egin zuten plazan, herritarren aurrean.

HAU BE BADOGU!

Egungo zaintza sistema "eraldatzeko" helburu

Borroka-dinamika bati ekin dio mugimendu feministak: **#DenonBizitzakErdigunean**.

@NaiaTorrealdai: "Zaintza lanak aitortu! sozializatu! duindu! birbanatu!"

@ArrasatekoBF: "Epe luzerako prozesu bat proiektatu dugu, eta lehen mugarrak gisa martxoaren 8a markatuko dugu. Kaleak hartzea goaz!"

@ZalduaAne: "Ari ginen eta ari gara. Etengabe lanean. Hausnartzen, antolatzen. Bada, iritsi da momentua denon bizitzak erdigunean jartzeko. Irtsi da garaia borroka hauspotu eta pizten jarraitzeko".

Tokiko elkartearen arteko lankidetzaz, ezinbestekoa

Urtarril erdia ezker, Arrasateko Tailaginen Elkartearen hainbat kideren piezak ikusgai dituzte Ibai-artearen 28 merkatarik euren erakusleihoetan. Bi aldeek nabarmendu dute elkarren beharra dutela aurrera egiteko, eta hori hala denean politak dira emaitzak

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasateko Tailaginen Elkartearen 40 urte bete zituen iaz eta urteurrena ospatzen dihardute. Horren baitan, esaterako, Ibai-arte merkatarien elkartearekin lankidetzaz abiatu dute eta, hala, hogeitabat taillaginek egindako 70 bat pieza ikusgai jarri dituzte 28 komertzioetako erakusleihoetan. "Gure elkarte eta bertan egiten dugun lana herrira zabaltzea da asmoa eta ikusi genuen erakusleihoak aproposak izan zitezkeela horretarako. Hori dela eta, Ibai-arterekin harremanetan jarri ginen, herriko merkataritza ere sustatzeko, nolabait".

Haien jardueraren berri emateaz gain, Ibai-arterekin harremana sendotzea inportantea dela nabarmendu du Kortabarriak, baita herriko gainontzeko elkarteekin ere. "Herriko elkarte guztiondako da aberasgarria elkarlanean aritzea".

Tailla herritarrei hurbildu

Arrasateko Tailaginen Elkartearen ikusgarritasuna emateaz gain, herritarrei erakutsi gura diete tailla oso polita dela. "Zabala da eta edonork praktikatu dezake, gazte zein heldu, emakumezko zein gizonezko", azaldu du Kortabarriak.



Iñaki Kortabarriak egindako pieza bat, Markiegi dendako erakusleihoan. E.A.B.


Horrez gain, belaunaldi berriek lekukoa pasa gura diete eta, momentuz, behintzat, lortzen ari dira, besteak beste, hainbat gaztek izena eman baitute elkartearen antolatutako hastapen ikastaroetan. "14 urteko hamalau mutiko ditugu ikastaroetan eta beste bederatzire ere etorri zaizkigu, duela aste bateko ikastaro berri batekin hasi direnak. Guk gura duguna hori da, jende gaztea ere izatea taldean, eta ez bakarrik erretiratuak. Ateak zabalik ditugu taillan murgildu gura duen edonorendako".

Datorren astera arte ikusgai

Otsailaren 9ra arte edukiko dituzte ikusgai piezak erakusleihoetan. Izan ere, otsailaren 24an erakusketa zabalduko dute Kulturaren, eta tarte horretan etena egin gura dute, "herritarrek ez aspertzeko".


Urteurrenari dagokionez, "oso ondo" doala azpimarratu du Kortabarriak. "Ikusgarritasuna irabazi dugu eta herritarrek gerturatzeko zaizkigu gure lanarekin jarraitzeko esaten". Gainera, ikus-entzunezko bat prestatzen ari dira.

Ze garrantzi du elkarlanak?



IKER BURUAGA
BUART LORADENDA

"Inportantea da herriko elkarteekin kolaboratzea, herritarrek ikusi dezaten elkarteetan egiten lana, kasu honetan, taillaginean. Gauza oso politak eta originalak egiten dituzte. Elkarlan hau haiendako mesedegarri da, eta guretzako ere bai, askotariko piezak baitaude, eta oso politak, gainera".



BEATRIZ ETXABE
BEA LENTZERIA

"Guretzako garrantzitsua da elkarte txikiok elkarrekin aritzea lankidetzaz eta esango nuke taillaginean ere pozik egongo direla ekimen honekin. Bezeroei esaten diegu 28 komertzioetan ditugula haien piezak ikusgai eta horrek zirkulazioa sortzen du, herritarrek interesa izaten baitute pieza horiek ikusteko".



LEIRE ELKORO
MILAR ELKORO DENDA

"Ez da lehen aldia herriko elkarteekin lan egiten duguna. Arrasaten elkarte asko daude eta, kasu honetan, taillaginekin ari gara. Ideia ona da, elkarte horiei indarra emateko balio duelako eta haiek egiten duten lana ikusgarriago egiten dugulako horrela. Gainera, asko jantzen dituzte gure erakusleihoak".



IÑAKI KORTABARRIA
ARTE-KO PRESIDENTEA

"Ibai-arterekin harremana sendotzea inportantea da guretzat eta lortzen ari gara, baita herriko gainontzeko elkarteekin ere. Guztiondako da aberasgarria elkarlanean aritzea eta erakusleihoen egitasmo hau ere horregatik egin dugu tokiko merkatariekin, herri mailan funtsezkotzat dugu hori".

Guggenheim museora bisita

Arrasateko Helduen Eskolako (EPA-HHI) ikasle eta irakasle talde batek Bilbora irteera egin zuen joan den astean eta, hiria ezagutzeko gain, Guggenheim museora eta Azkuna zentrorara ere joan ziren. Bide batez, gogorarazi dute matrikulazio epea zabalik dutela dagoeneko eta otsailaren 8ra arte egongo dela horretarako aukera.



ARRASATEKO EPA-HHI

Ezker Anitza-IUK topaketa irekia egongo du gaur

Maiatzeko udal hauteskündeei begira jarrita, militante eta jarraitzaileekin topaketa irekia egongo du Ezker Anitza-IU Debagoienak gaur, egubakoitza, Debagoieneko Ezker Kultur Gunean, 18:30ean. "Herritarrekin konektatu gura dugu, ulertu dezaten haiek direla gure lehen-tasuna. Politika progresistak behar ditugu", azaldu dute.



Ipar Koreako armadaren eta Kim Jong-un presidentearen mozorroa izan zen 2020ko onena. GOIENA

Indarberrituta eta betiko osagaiekin datoz aurten

Bi urteko etenaren ostean, Aratusteak bueltan dira; otsailaren 18an, zapatua, izango da egun nagusia eta hainbat berrikuntza egongo dira sariei dagokienez; horrez gain, otsailaren 21ean, martitzena, sardina-ehorzketa berreskuratuko dute, festa bukatzeko

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Aratusteak 2020an ospatu zituzten azkenekoz Arrasaten; modu ofizialean, behintzat. Hiru urte geroago, indarberrituta itzuliko dira, osagai guztiekin. Azkeneko hartan Ipar Koreako armadarena izan zen mozorrorik onena eta, beraz, haiek izango dira aurten pregoia emango dutenak, Iñaki Gurrutxaga *Harristi* buru dutela. "2021ean ezin izan genuen ezer egin; iaz, herritar asko mozorrotu baziren ere, ofizialki ezin izan genituen Aratusteak ospatu. Aurten, egotera aldatu egin denez, behar bezala ospatuko ditugu eta guri dagokigu pregoia egitea", azaldu du antolatzaile taldeko kideak.

Lehen, antolatzaileek erabakitzen zituzten saridunak nortzuk ziren, baina kexa batzuk jaso zituzten, haien interesen arabera aukeratzen omen zituztelako irabazleak, *Harristi*-ren esanetan. "Beraz, erabaki genuen kuadrilla onenaren saria irabazten zuena arduratuko zela pregoia emateaz, baita saridunak nortzuk diren erabakitzeaz ere. Modu horretan, lortzen dugu jende gehiagok parte hartzea eta antolakuntzan murgiltzea. Gainera, oso ondo funtzionatu izan du orain arte eta lanak banatze-ko ere balio digu. Horrek, era berean, aukera ematen digu antolatzaile taldekooi egunaz behar den moduan gozatzeko".

Bakarleri onenaren saria

Ezer gehiago aurreratu ez badu ere, pregoia eta mozorroa prest dituztela onartu du *Harristi*-k, eta gaineratu du elkarri lotuta joango direla bi elementu horiek. Hala, otsailaren 18an, zapatua, 12:00etan botako dituzte etxafuegoak eta bost minutu inguruko pregoi laburra egingo dute. "Gehiago ez, jendea aspertu egiten baita". Pregoiarekin, herritarrei Aratusteez disfrutatzeko dei egingo diete, eta, ostean, desfilea abiatuko dute Garibai etorbidean zehar. 13:00etan, sari banaketa egingo dute Herriko Plazan.

Sariei dagokienez, hainbat aldaketa izango dira aurten:

batetik, gizonetako eta emakumezko mozorro onenaren orde, bakarleri onenaren saria egongo da. "Generoarekin lotuta egon daitezkeen arazoak ekiditeko, sari bakarri egongo da aurten eta bakarrik mozorrotuta doazenen artean onena aukeratuko dugu, bereziketarik egin gabe". Horrez gain, honako sari hauek egongo dira: taberna onena, gazte kuadrilla onena, karroza onena eta kuadrilla onena, 2024an pregoia emango duena.

Sarituek, garaikurrak gain, diru kopuru bat ere eskuratuko dute aurten. "Horrekin gura duguna da jendea animatu dadin mozorrotzera eta mozorroa ondo prestatzera".

Bestalde, aurten dagoeneko berandu dela onartu du *Harristi*-k, baina datorren urterako, tabernei dagokienez, izena emateko epe bat zabalduko dute urtarurik BAZen. "Bestela, erdiguneko tabernak bakarrik ikusten ditugu eta gerta daiteke, esaterako, Musakolako edo San Andresko taberna batek merezi izatea saria eta sari barik gertzea, ez garelako konturatu".

Sardina-ehorzketa ere bueltan

Aratusteetako martitzenean, berriz, sardina-ehorzketa egingo dute, SUDC elkarteak antolatuta, azken bi urteetako etenaren ostean. Juan Luis Arkauz elkarteak presidentea aurreratu duenez, ia bukatuta daukate sardina eta guztia prest dute. Beraz, ohi bezala, Sama Siku taldearen doinuek girotuko dute sardinaren ibilbidea, Mondragon hotelean hasi eta Herriko Plazara, 20:00 inguruan irtenda. "Azken urteetan erantzun ona izan zuen. Beraz, aurten ere ordutegia mantendu egingo dugu", dio Arkauzek.



NIRE USTEZ

RAMON UGALDE

Goieskola

Benetako konpromisorik ez duten irakasleei lanbidez aldatzeko eskatu zien Mar Romerak, Jaurlearitzak Debagoienean zuzenean babesten dituen ikastetxeen –bulgus publikoa vocat– elkarteak antolatutako hitzaldi batean. EAEn ez dago horrelako elkarterik.

Horrelako ekimen ugari egin dituzte, gehienak erdaraz eta Espainiatik ekarritako guru batzuek, burujainkotuek eta tarifa altukoek, emanak. Goieskola ez da gauza izan pedagogismo emozionalean euskaraz jardungo duen inor prestatzeko. Baina guren mezua ondo jaso ez duten irakasleekin zer egin? Nire denboretan Arrasateko institutuan zuzendari talde serio eta saiatu batek jarduten zuen horrelakoak onbidera eramaten. Proiektu horretan trabarik ez egiteko inork lanbidez aldatuko al du Mar Romerarena entzun ondoren? Hamar ikastetxe daude eredu horretan sartuta. Nola ebaluatu esperimendu bitxi hau? Botere publikoek diruz ondo hornitu dute, hogeit urte pasatu dira. Hezkuntzaren etekin akademikoa neurtzeko PISA eta ISEIren txostenak daude, baina emaitzak ezin dira publikatu. Alor askotako doktore-tesiak egiteko gaia dago hor.

VITALDENT

ARRASATE

Otalora lizentziaduna kalea 1

943 06 03 22



-%15

zure hortz-tratamenduan*

hortz-estetikako gure marka berria berriz

SMYSECRET

2023/01/01etik 2023/02/28ra bitarteko sustapen balioduna, 250€-ko beharso balioa duten tratamenduetan izan ezik, honek %15eko deskontua aplikatuko da. Kampaniak kanpo geratzen dira 85 eurotik beharso balioa duten tratamenduetan. Oneratutako aukerak zerbaito osagai aplikagarria. Ezin da beste deskontu eta promozio batuekin murriztu. Ez da bateragarria Vitaldentekin diruz lagundutako interesak dituzten finantziaketa-motekin. Konturatu zure tratamenduen tarifak zure Vitaldent klinikaren. Tratamenduetan medikuntza aginduen mende daude. Osoan eragotzizkoarekin zerbaita: 20 025 1042 RPS 255/19



Eguaztenez Aretxabaletako Apotzaga-Etxebarri auzora egin zuten irteera Sasoibidekoek. SASOIBIDE

Sasoiko mantentzeko, bidea urratzen dihardute

Arrasateko Nagusien Kontseiluaren baitan, askotariko ibilaldiak antolatzen jarraitzen du Sasoibidek, bosgarren urtez. Eguaztenez eta eguenetan egiten dituzte irteerak eta, horiez gain, bestelako zenbait ekintza ere egiten dituzte, osasuntsu mantentzeko

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Taldea egonkortuta daukate dagoeneko, eta parte-hartzaileetako askok euren agendetan ondo gordeta dituzte Sasoibide-irteera-egunak. Eguaztenez 15:00etan elkartzen dira Biteri plazan –martxotik aurrera, 16:00etan– eta eguenetan, berriz, 10:00etan, leku berean. Aurrez ez da abisatu behar eta hori asko baloratzen dute parte-hartzaileek, Sasoibideko kide Margari Gorrotxategiren esanetan. "Ez dute inolako loturarik eta nahi dutenean etorri daitezke irteeretara, azalpenik eman beharrik gabe", gaineratu du.

Bereziki 55 urtetik gorakoei zuzendutako ekintzak egiten dituzte eta 2022an, esaterako, 72 irteera egin zituzten. "Normalean, ikastetxeek bezala funtzionatzen dugu eta ikasleek oporrak dituztenean guk ere eten egiten ditugu irteerak. Aiton-amona asko etortzen dira eta zaintza-lanak ere egin behar izaten dituzte". Hala ere, iaz, irteera berezi batzuk egin zituzten opor garaian; bederatzi, hain zuzen.

Oro har, Arrasate inguruan eta bailaran ibiltzen dira eta ez dute errepikatzen irteerarik.

Horrez gain, halere, saiatzen dira kanpoan hainbat irteera eta ekintza kultural egiten. "Iaz, adibidez, Deba-Mutriku ibilbidea egin genuen eta Txillida-Lekun ere izan ginen. Aurten, berrikuntza moduan, Kurtzetxikira joan ginen urtarilaren leian eta oso berezia izan zen. Horrelako gauza berriak egiten saiatzen gara eta guztiok gustura hartzen ditugu", dio Gorrotxategik. Halaber, Bixi-Bizi tailerra ere egiten dute, oreka, indarra eta zoru pelbikoa lantzeko, adibidez.

Eguaztenez mendira

Hasieran, eguenetan bakarrik egiten zituzten irteerak, baina parte-hartzaileetako batzuek eskaera egin zuten arratsaldeetan irteera batzuk antolatzeko. Hala, eguaztenez arratsaldeetan ere hasi ziren martxa hartzen. "Pandemian, Arrasateko mendi inguruak gehiago ezagutzen hasi

2022AN, ESATERAKO, 72 IRTEERA EGIN ZITUZTEN, BAILARAKO HERRIETAN ZEIN BAILARATIK KANPO

ginen, Anporreta, Kurtzetxiki eta abar, eta proposatu genuen eguaztenez mendi ibilaldiak egitea", azaldu du Gorrotxategik. Orduetik, eguaztenez mendira joaten dira, eta "eguetakoek baino zailtasun handiagoa" duten irteerak egiten dituzte.

Gainera, "oso harrera ona" izaten ari dira irteera horiek. "Plazer handia da gure inguruko paraje berriak ezagutzea eta erronka pertsonal moduan ere hartzen dugu. Halaber, talde batua da eta leku berriak ezagutzeko interes handia dute hainbatek. Euren kabuz ere joaten dira irteerak egitera, eta gero, gurekin egitea proposatzen dute; hori gauza ederra da guretzako".

Datorren astean, Santagedatx

Otsaileko irteerak dagoeneko aurkeztu dituzte. Datorren astean, adibidez, Santagedatxera joango dira: "Gesalibartik gora dagoen tontor txiki bat da, jende gutxi ezagutzen duena. Batzuek *Mariren ispilua* ere deitzen diote, harkaitzean zulo bat daukalako, eta oso leku polita da". Gero, Elorrioren ere egingo dute ibilaldia eta Antoniñara joango dira azken astean.



Hainbat haur ludoteka ibiltariko ekintzak egiten, iaz, Musakolan. GOIENA

Txatxilipurdik bihar abiatuko du ludoteka ibiltaria, Musakolan

Gaztetxoko atarian elkartuko dira eta 11:30etik 13:30era askotariko ekintzak egingo dituzte hurrekin

E.A.B. ARRASATE

Urtero moduan, Musakolan hainbat irteera eta Arguenera eta San Andrerara joango dira gero. "Parte-hartzea librea da eta askatasunez jolas egiteko gunea eta laguntza eskainiko da", nabarmendu dute.

Ludoteka ibiltarian 3 eta 12 urte arteko haur eta aurrenera-beek izango dute parte hartzeko aukera, baita haien arduradun edo gurasoek ere. Ekintzak parte-hartzaileekin batera adostu eta denen gustukoak antolatzen saiatuko direla aurreratu dute antolatzaileek.

Era berean, nabarmendu dute aisialdi hezitzaile euskaldunaz gozatzeko aukera paregabea dela, "parte-hartzaileei sormena garatzeko, harremanak egiteko, parte-hartzea sustatzeko, naturarekin harremanetarako eta beste hainbat helburu hezitzaile bide emanez".

Musakolan otsailaren 4an, 11n eta 25ean eta martxoaren 4an egongo da ludoteka ibiltaria. San Andresen, berriz, martxoaren 11n, 18an eta 25ean eta apirilaren 1ean. Erguinen, azkenik, apirilaren 22an eta 29an eta maiatzaren 6an eta 13an.

OHARRAK

Santa Ageda koruak, kalean kantari

Bihar, zapatua, 08:00etan meza egongo da San Juan Bataiatzaile parrokiaren. Meza ostean, taldetan banatuta, Santa Ageda koruek herrian zehar abestuko dute. 14:00etan, Herriko Plazan elkartuko dira eta udaletxean abestuko dute.

Elkartasun jaialdia bihar gaztetxean

Unibertsitateko Indar Batasunak antolatuta eta 22:00etan hasita, kontzertuak egongo dira: Zarata Selektion, Balloon Frame, DJ Trebi eta Uwaprods. Egunean zehar ateratako dirua isunak ordaintzeko erabiliko dute.

Faktura elektrikoari buruzko tailerra

Ekin Emakumeak elkarteak antolatuta, faktura elektrikoari buruzko tailerra egingo dute otsailaren 8an, eguaztenez, 18:30ean, Kulturateko areto nagusian. Energia eraginkortasunaren eta aurrezpenaren kontzeptuak ezagutarazteko helburua izango du tailerrak, baita argindarraren fakturaren irakurketa eta optimizazioan pertsonak trebatzekoa ere.

Garagartzako garbitokia zabalik da berriz

Matxura baten ondorioz itxita egon ondoren, berriz ireki dute.

ARRASATE HERRI ESKOLA:

zuzendaria@arrasatehe.eus

HAUR HEZKUNTZA (2-5 urte)

BEDOÑABE

Alfonso VIII 1
Tel.: 943 79 20 69

MUSAKOLA

Elkano 10
Tel.: 943 79 04 49

LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)

ERGUIN

Uribarri Auzoa 36
Tel.: 943 79 77 74

ARRASATE BHI:

zuzendaria@arrasatebhi.net


DBH (12-16 urte)

Elkano 24
Tel.: 943 89 94 78

BATXILERGOA (16-18 urte)

Santa Teresa 25
Tel.: 943 89 94 78

Bideoa ikusgai:



GOXOTASUNEZ ERAIKITAKO KALITATEZKO ESKOLA

→ MATRIKULAZIOA:
OTSAILAREN
13TIK 24RA

ORDUTEGIA:
09:00 - 18:00



Guztion eskola,
guztion artean

Ongizatearen eta zoriontasunaren alde

Portaloi Kultur Elkartek hemeretzi urte daramatza arrasatearren artean dantza eta kantua sustatzen. Gaur, kantu-jiran irtengo dira kalera; eta bihar, Santa Ageda bezpera denez, Santa Ageda eguneko koplak abestuko dituzte, besteak beste

Mikel Zumalde Etxabe ARRASATE

Kulturari ateak zabaltzeko, euskararen arnagune izateko, arrasatearren ongizatea bermatzeko, kantua eta dantza sustatzeko... Horretarako guztirako sortu zen 2004ean Portaloi Kultur Elkartea. Elkartea osatzen duten gehienak jubilatua dira eta urtean zehar bi ekintza nagusi egiten dituzte: alde batetik, hileko lehen egubakoitzean kantu-jiran irteten dira; eta, bestetik, dantza ikastaroak antolatzen dituzte. Gaur, otsaileko lehen egubakoitza izanda eta Santa Ageda bezpera bihar dela aintzat hartuta, kantu-jiran irtengo dira eta Santa Agedako koplak abestuko dituzte, beste kantu batzuekin batera.

Maitere Larrañaga Portaloi Kultur Elkarteko kideetako bat da eta herritar guztiak animatu nahi ditu elkartera batu daitezen: "Ez da talde itxia, edonor etorri daiteke gurekin kantuan egitea. Gainera, askotan, musikari baten falta sumatzen dugu". Argi utzi du taldea ez dela abesbatza bat, baizik eta kantuan egitea gustatzen zaion giza taldea.

Dantza eta kantua

Portaloi Kultur Elkartea helburu zehatz baterako sortu zen: arrasatearren zoriontasuna biltzeko, abestearren eta dantzaren bitartez. Kalejiran kantuan irten baino lehen, entsegu txiki batzuk egiten dituzte taldekide guztiek, kantuak ezagutzen dituztela bermatzeko. Hilean behin ateratzen dira hogeita hamar lagun inguru. Alde horretatik, Larrañagak argi utzi nahi du taldea ez dela itxia: "Zuk kalean abesten ikusten bagaituzu, batu zaitezke taldera eta gurekin abestu. Eta gu pozik". Gaineratu du gustatuko litzaiokeela jende gehiago animatzea kantu-jirara.

Maite eta aurrera eramaten duten beste ekintza nagusia dantza da. Urte osoan zehar



Portaloi Kultur Elkarteko Maitere Larrañaga, Kulturolan duten egoitzan. MIKEL ZUMALDE

PORTALOI KULTUR ELKARTEAK KANTU-JIRAN MUSIKARI BATEN FALTA SUMATZEN DU

ikastaroak antolatzen dituzte Kulturolan duten egoitzan eta edonor gerturatu daiteke ikastaro horietan parte hartzera. Bi talde daudela azaldu gura izan du Larrañagak. "Badago talde bat maila bat duena, eta musikariak dituzte. Azken urteetan gure irakaslea Patxi Montero izan da eta hark ekartzen zizkigun dantza berriak. Eta gero, hastapeneko talde bat dago, hutsetik hasteko", esplikatu du. Asko eskertu du dantzaldiak egiteko lokala izatea. Lehen, lokala eduki baino lehen, Udalari espazio bat eskatzen ibiltzen zirela onartu du.

Irteerak

Portaloi Kultur Elkarteen ekintzak ez dira Kulturolara soilik mugatzen. Izan ere, azken urte hauetan, Gernikan, Donos-

tian eta Gasteizen izan dira beste herri eta hiriburu batzuetako kultur elkartekin batzeko eta batera abesteko. Orain dela bi urte, gainera, Maulen ere izan ziren eta Euskal Herria Kantuz egunean parte hartu zuten.

Idea berriak

Kantuan eta dantzan egiteaz gain, beste mota bateko egitasmoak bultzatu nahi ditu Portaloi Kultur Elkartek. Hala, noizbehinka egiten dituzten hitzaldien maiztasuna areagotu egin nahi dutela adierazi du Maitere Larrañagak: "Gutxinaka-gutxinaka, ideia berriak sartzen joatea gustatuko litzaiguke. Egin izan ditugu hitzaldiak eta abar, baina ez da hilaibero eskaini izan dugun ekintza bat". Gaineratu du beste ekintza batzuk egitea pentsatzen ari direla.

Bukatzeke, musikari baten falta sumatzen dutela adierazi du Maitere Larrañagak. Noizbehinka izan ohi dute musikari baten laguntza, baina batzuetan ezin du. Horretatik, kantu-jiran irteten diren aldiro musikari bat taldean finko izatea gustatuko litzaiokeela argitu du.



Iazko sari banaketa ekitaldia. ENEKO AZURMENDI

Martxan da Arrasate Literatur Lehiaketaren 36. aldia

Lanak martxoaren 24a baino lehen aurkeztu beharko dira eta sariak maiatzaren 11n banatuko dituzte

Mikel Zumalde Etxabe ARRASATE

Abian da Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak (AED) antolatzen duen Arrasate Literatur Lehiaketaren 36. aldia. Gaztetxoei bideratuta dagoen lehiaketa da eta sormen eta gaitasun artistikoak bultzatu nahi dituzte. Nerabeek, beti bezala, sei lehiaketatan parte hartzeko aukera izango dute: hain zuzen ere, LH-5 eta DBH-2 mailen artean daudenek, ilustrazioan, narrazioan eta bertso-paperetan; eta DBH-3 eta batxilergoko bigarren maila artean daudenek, berriz, komikian, mikroipuinean eta poesian. Lanak aed@aedelkarte.eus helbidera bidali beharko dira martxoaren 24a baino lehen eta sari-banaketa ekitaldia maiatzaren 11n egingo dute, Kulturaten. Iazko ekitaldian gonbidatu izan zuten ikasleek Helena Azkarragaurizar disei-

natzailea eta aurten ere kultura arloko beste pertsona bat gonbidatuko du AEDk sari-banaketa ekitaldira.

Sortzaileen kolaborazioa

Aurtengo edizioan ere hiru sortzailearen kolaborazioa egon da: Oier Zuñiga narrazioa idazteko oinarri gisa hartuko duten ilustrazioaren egilea da; Ilustrazio lehiaketan parte hartuko dutenek oinarri gisa hartuko duten mikroipunaren egilea da Nerea Catania; eta bukatzeko, Aimar Elortzak ere kolaboratu du edizio honetan, izan ere, mikroipuina idatziko duten nerabeek, Elortzaren argazki bat hartuko dute oinarri gisa.

Lehiaketaren inguruko informazio gehiago gura izanez gero, arrasateliteraturlehiaketak.wordpress.com webgunean aurkitu daiteke. Has daitezela gaztetxoak buruak astintzen.

Datorren egunean, Sofa taldea gaztetxean

Kooltur Ostegunak egitasmoaren baitan, otsaileko bigarren kontzertua Sofa talde gipuzkoarraren eskutik iritsiko da Arrasateko Gaztetxera. Rock doinuak jotzen dituzte, eta taldekideak zumaiarrak eta zaraurretarrak dira. Beti bezala, kontzertua 22:00ean hasiko da eta sarrerak zazpi eurotan salduko dira.

Hamalau pertsonak eman dute izena komiki tailerrera

Datorren egunean, otsailaren 9an, Iñaki Martiarena *Mattin* ilustratzaile donostiarrak gidatuko duen komiki tailerrera hamalau pertsonak eman dute izena. Martiarenak gaztetxoei komikiaren lengoia azalduko die onomatopeiak, plano motak, pertsonaia sortzea, bineta eta burbuila-, eta ondoren, ume bakoitzak tira bat egingo du.



Kultura etxean, Elena Laizekin. ARAMAIXOKO HERRI ESKOLA

Irakurketa eta idazketa prozesuak landu dituzte

Euskadiko Eskola Txikien sareak antolatuta, hamabi orduko formakuntza-saioa egiten dabilta Aramaion eskola txikietako maisu-maistrak, Elena Laiz irakaslearekin. Otsailaren 22an egingo dute hurrengo saioa eskola txikiko ikasleek; guztira, 80 batek

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Euskadiko Eskola Txikien sareak antolatuta, formakuntza-saioak jasotzen ari dira eskola txikietako maisu-maistrak Aramaio-ko kultura etxean. Dagoeneko bi saio egin dituzte eta otsailaren 22an izango dute hurrengoa. "Elena Laiz irakasleak irakurketa eta idazketa prozesuen gaineko saioak egin ditu", azaldu du Aramaio Herri Eskolako zuzendari Saioa Uriartek. Eskola txikien sarea osatzen duten eskoletako ordezkariak izan dira Aramaion; 80 bat kide, guztira. Saioetan landu dituzten gaiak dira, besteak beste: zer den irakurtzea, zer den idaztea, psikogenesiaren garapena eta hainbat eskolotako aurkezpenak.

Irakasleen eginkizuna

"Haur batek irakurketa eta idazketa prozesua nola ikasten duen eta prozesu horretan zein izan behar den irakaslearen papera. Hor zentratu da Elena", dio Uriartek. "Hausnarketa hauek eta saio hauek ezinbestekoak dira gure jarduera aberasteko eta prozesu honetan behar den laguntza hobeto eskaintzeko", gaineratu du. "Irakaslearen funtzioa zein izan behar den, arreta non jarri behar den, zer den garrantzitsua eta zer ez... Azken finean, irakaslea bidelagun izango da", dio Uriartek. Irakurketa eta idazketa prozesua ez dela 6-7 urterekin hasten dio Uriartek.

Uriartek nabarmendu du eskola txikiek ildo pedagogiko eta filosofiko propioak dituztela eta ildo horiei modu koherentean erantzuten saiatzen direla. Hain zuzen ere, ildo pedagogiko eta filosofiko propioak izatea indargune moduan ikusten dute.

Elena Laiz irakaslea

Gaur egun irakaskuntzatik erretiratuta dago Elena Laiz, baina hezkuntzari lotuta jarraitzen du; eskola txikietako ikasleei formakuntzak ematen dizkie. Bilbotarra beti egon izan da hezkuntzari eta eskola txikiei lotuta; Zizurkilgo eskolako irakasle izan zen urteetan. Izan ere, Laizendako lana baino gehiago izan da hezkuntza. Nemirovskyrekin landutako pedagogian oinarritutako formakuntza da Laizek eskaintzen

duena; hala, hezkuntza eredu jakin baten alde lan egin du: inposizioa eta umeak aspertzea ez ditu eskolaren ereduaren ikusten eta haurraren autonomian sinisten du.

Irakurrin Kurrin

Formakuntzarekin berarekin lotuta ez egon arren, Aramaio-ko eskolan irakurketa bultzatzeko asmoz Irakurrin Kurrin saioa egiten dute. Bada, egitasmoa antolatzen duen batzordea dagoeneko lanean dabil eta asmoa da maiatzaren egitea saioa.

Eskola txikien sarea

Euskadiko Eskola Txikien sarean 51 eskola txiki daude; tartean dago Aramaio-koa, eta Debagoienaren kasuan baita Bergarako Angiozarkoa ere. Eskola txikiek izaera propioa dute eta era koordinatuan lan egiten dute ikasturtean zehar sortzen zaizkien eronkei aurre egiteko. Hori horrela, garrantzi berezia hartzen du formakuntzak eskola txikietan.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskola txikiek topaketak egiten dituzte bi urtean behin, ekaineko azkeneko astean; 2022an, esaterako, Aramaion egin zuten topaketa. Saio horien bitartez eskola askotako egoerak gertutik ezagutzeko aukera izaten dute eta eskolen arteko harremana bizirik mantentzeko eta indartzeko balio du.

Udal langileen ordainsaria %2,5 igotzea onartu du Udalbatzak

Urtarrileko osoko bilkuran eolikoaren gaia ere landu zuten: Udalak bilera irekia egiteko asmoa du otsailean

A.E.G. ARAMAIO

Urtarrilaren 26an egin zuten ohiko osoko bilkura. Besteak beste, udal langileen ordainsaria %2,5eko igotzea onartu zuten, aho batez. Horrez gain, urte amaieran BPGaren datuen arabera beste %0,5 igotzeko aukera ere onartu zuten. 2020an idatzitako baso kudeaketa plana ere berrestu zuten, aho batez.

Galde eta eskaeren tartean, EAJk egindako galdera erantzun zuen alkateak: "Arlo honetan galdera zuzen asko zuzentzen zaizkit alkate gisa, baina talde

moduan erantzungo dut. Aramaion egin nahi den parke eolikoaren inguruan sortu den saltsaren aurrean eta ikusita legealdi amaieran gaudela, uste dugu ez Aramaiori eta ezta aramaiorrei ere ez digula onurarik ekarriko gure gainera dagoen bai-ez joko mediatikoan sartzea. Horregatik, eta aurrez adierazi dugun moduan, herritarren iritzia jasoko dugu ahalik eta finen eta hori izango da udal honen iritzia. Horretarako, otsailerako bilera bat deituko dugu informazioa emateko".

Santa Ageda batzea egingo dute bihar, 10:00etan elkartuta

Bihar, otsailak 4, Santa Ageda bezpera eguna ospatuko dute. Horretarako, ohiturari jarraituz, Santa Ageda eskea egingo dute herrigunean eta auzoetan. 10:00etan elkartuko dira, herriko plazan. Berto eskola, Triki-kalejira elkarteak, Papargorri eta Alaiak erretiratuen abesbatza ibili dira antolatze lanetan. 14:00etan bazkaria egingo dute.

Inauterietako herri bazkariko txartelak salgai daude

Inauterietan egin ohi den herri bazkaria berreskuratu dute aurreten. Otsailaren 18an izango da, eskolako jangelan, 14:30ean. Bazkarirako txartelak salgai daude udaletxean: astelehenetik barikura 09:00etatik 14:30era eta eguaztenetan baita 16:30etik 18:30era ere. Prezioa hau da: 17 euro nagusiendako eta 10 euro 10 urtetik beherakoendako.



BERTSOZALE ELKARTEA

Aramaioarrak nagusi Laudion

Berto Kuadrilla Artekoaren lehen saioa izan zuen Izena Pentsau Bida taldeak domekan Laudion. Altubepekoak taldeari irabazi zioten aramaioarrek. Gaur, Ibarako Periferiak taldeak izango du saioa, Gasteizko gaztetxean, 20:30ean; bihar, Aramaio-ko saioan etxeko bi talde izango dira: Izena Pentsua Bida eta Tratamendurik Gabeak. Plazako elkartean, 20:00etan.

Hamar herritarretik lauk dihardute euskaraz kalean

Hizkuntzen erabileraren kale neurketa egin zuen 2021ean Soziolinguistika Klusterrak eta Aretxabaletan behatutako 3.521 solaskideetatik %41,2k ziharduten euskaraz; 2016an egin zuten aurreko azterketa eta orduetik 4,3 puntu egin du behera

Mirari Altube ARETXABALETA

Kaleetako hizkuntza-erabileraren gaineko datuak eskuratu eta horren bilakaera ezagutzera emateko asmoarekin, Aretxabaletan laugarrenez egin du behaketa Soziolinguistika Klusterrak. 2001eko udazkenean egin zuen lanketa hori: irailaren 17a eta urriaren 6a bitartean, hain zuzen ere; guztira 24 ordu. Behaketa hori honako kale hauetan egin zuten: Bedarreta auzoa; Santa-kurtz ondoko pasealekutik Errekabarren kalea hartu, jarraian Loramendi kalea eta Belorrieta auzora; eta Markole auzoa eta herri irteerako etxeak. Guztira, 1.175 elkarrizketa jaso zituzten eta horietan parte hartu zuten 3.521 solaskideek osatu zuten lagina. Orain, datuek erakutsi dute %41,2k euskaraz zihardutela, %57,7k gazteleraz eta %1,1ek beste hizkuntza batean.

Beheranzko joera

Soziolinguistika Klusterrekoek diote emaitzen gorabehera puntualei baino gehiago, joerei erreparatu behar zaiela. Aretxabaletaren kasuan, beheranzko joera atzeman da; izan ere, orain dela bost urte egindako azterketatik 4,3 puntu egin du behera, orain dela hamar urte egingandakotik 7,8 eta orain dela hoge



Hainbat ume gurasoek lagun eginda Herriko Plazan. MIRARI ALTUBE

urte, 2001ean jasotakotik, 13,3. Koldo Zubillaga Udaleko Euskara zinegotziak ere aztertu ditu datuok eta kezkatuta agertu da: "Beheranzko tendentzia dago, bai, eta latza da hori. Dena den, uste dut orokorra dela joera; hau da, egoera antzekoa bizi dutela inguruko herrietan ere".

Sexuari erreparatu gero, emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz: %43,8k; gizonezkoek, ostera, %37,9k. Bi multzoek egin dute behera 2016ko datuei begiratuz gero, baina oso era difere

0,3 puntu jaitsi da eta gizonezkoenean, berriz, 9 puntu.

Adin tarsteak aztertze bost talde egin dituzte eta horien artean haurrek (2-14 urte) egiten dute gehien: %56,1; gazteen artean (15-24 urte), %42,4k; heldu-gazteek (25-44 urte), %49k; heldu-nagusiek (45-64 urte), %35,2k; eta adinekoek (64 urtetik gorakoek), %22,2k. "Umeen taldetik gazteenera pasatzean beherakada handia dago; kalean gero eta gehiago entzuten da nerabeen artean gazteleraz. Zergatik? Nik esango nuke kanpotik input asko dituztela: sare

sozialak –TikTok, Youtube...–, ikus-entzunezkoak... Eta erreferentziak falta zaizkie. Horregatik, euskararen presentzia areagotu egin beharko litzateke halako plataformetan", adierazi du Zubillagak. Hala ere, azken neurketa egin zenetik 1,9 puntu gora egin du talde horrek eta "itxaropenerako izpi bat" izan daiteke; hortaz, datozen urteei adi egon beharko da.

Heldu-gazteen multzoan zergatik egin duen gora erabilerak zehaztu du: "Horiek dira umeen gurasoak eta eragina du horrek. Hain zuzen ere, umeak elkarrizketaren parte direnean helduok gehiago egiten dugu euskaraz". Datuek ere horixe erakusten dute: haurren %45k egiten dute euskaraz bakarrik daudenean, nagusien artean %32,8k eta haurrak eta nagusiak nahasterakoan %64,5ek dihardute. "Argi dago helduok apenas egiten dugula euskaraz, eta, gainera, ez gara la eredu. Eta hori da larria". Bilakaerari erreparatu, ostera, 2016tik hona gora egin duen bakarra nahastutako multzoa izan da: 2,1 puntu.

Abian jarritako ekimenak

Zubillagaren esanetan, gakoa da dakitenek euskaraz egitea: "Datuok argi uzten dute dakigunok ez dugula euskaraz egiten, eta arrazoia ez da ez dakitenek ez ikasi izana". Euskaraldiaren ardatza, hain zuzen ere, hori da, ohitura aldaketa, baina hamabost egun nahikoa ez direla uste du: "Euskaraz dakigunon lana ezin da mugatu bi astera; 365 egunean egin behar dugu, bereziki, Aretxabaleta moduko herri euskaldunetan".

Udalak, berriz, baditu abian euskara sustatzeko bi ekimen. Batetik, kirol elkarteekin:

"Umeek eta gazteek, sarritan, uste dute euskara hizkuntza akademikoa dela, eta ez aisialdian eta kalean berba egiteko. Horri buelta emateko UDArekin hasi ginen lanean orain dela urte batzuk eta Ointxerekin ere badihardugu orain". Donostian martxan jarritako KEES metodologia –Kirol Entrenamenduetan Euskara Sustatzeko Metodologia– oinarri hartuta dabilta: "Entrenatzaileek trebakuntza jasotzen dute euskaraz jarduteko, erreminta batzuk. Talde gazteenekin hasi dira eta poliiki-poliki guztietara zabalduko da". Gaineratu du hurrengo erronka dela UDArekin euskara plan bat abiaraztea.

Bigarren lanketa merkataritza eta ostalaritza zerbitzuko kideekin dabilta egiten: "Elhuyarrek diagnostiko bat egin zuen eta, euskararen paisaia polita erakutsi bazigun ere, badakigu lan asko dagoela egiteko". Lantalde bat osatu dute horretarako, "euskararen presentzia bermatzeko eta sustatzeko".

Era berean, Loramendi elkarrearen lanari balioa eman dio Zubillagak: "Urteetan dihardu horretan eta Udalak eta euskara elkarteak eskutik joan behar dute, ezinbestean. Horretan gabilta eta ez dugu etsiko".

Loramendi elkartetik adierazi dute Soziolinguistika Klusterrak argitaratutako txostenaren irakurketa patxadaz egin gura dutela eta aurrerago emango dutela horren berri.

UMEEK EGITEN DUTE GEHIEN: %56,1K; ETA ONDOREN, 25 ETA 44 URTE ARTEKO HELDUEK: %49K

Tresnak eskainiko dizkiete gurasoei hitzaldien bidez

Hezkuntza-lana errazteko helburua dute eta lehenengoa martitzenean izango da, arauen eta mugen gainekoa

M.A. ARETXABALETA

Gurasoei bideratutako hiru hitzaldi antolatu ditu Udaleko Hezkuntza Sailak datozen asteartarako, Aldundiko Gazteria Zerbitzuak sustatutako Treba Gurasoak ekimenaren baitan.

Haien hezkuntza-lana errazteko ezagutzak eta tresnak eskaintzea da asmoa. Hala, landuko diren gaien artean daude familiako arauak eta mugak, *bullying*-a prebenitzeko ingurune segurua sortzea, eta autoestimua.

Lehenengo hitzaldia otsailaren 7an izango da, martitzena: *Arauek eta mugak. Nola ezarri era asertibo batean*. Heziketa fisikoa eta psikopedagogiako ikasketak dituen Leyre Cano adituak gidatuko du eta familian harreman orekatua, osasungarria eta onuragarria izateko zer behar den azalduko die gurasoei, horretarako arauak eta mugak nola jarri landuta.

Bigarren hitzaldia hilabete barru izango da, martxoaren 7an: *Bullying-egoerak minimi-*

zatzeko ingurune segurua nola sortu. Ortzadar enpresako Izaskun Lopez de Torre izango da gidaria eta jazarpen-egoerak antzeman eta identifikatzeko ezagutzak eta oinarritzko informazioa emango du.

Hirugarrena, autoestimua gainekeoa, maiatzaren 4an egingo dute, Nerea Mendizabal psikopedagogo eta komunikazio ez-bortitzeko adituak bideratuta.

Saioak ordu eta erdikoak izango dira, 18:00etatik 19:30era, Arkupen.

Agintaldiaren gaineko balorazioa 'Harira' saioan martitzenean

Unai Elkoro alkateak eta Ion Albizu EH Bilduko bozeramaileak azken agintaldiak eman duenaren gainean jardungo dute Goiena telebistako *Harira* saioan, Goiatz Arana kazetariak egindako galderari erantzunez; datorren martitzenean izango da, 21:00etan eta 23:00etan. Komentuko lanak, energiaren gastua eta beste hainbat gai izango dituzte hizpide.

Hamaika proposamen aurrekontua "osatzeke"

Udal Gobernuak aurkeztutako 2023ko aurrekontuak dituen "hutsune batzuk betetzeko" ekarpenak egin ditu EH Bilduk; besteak beste daude kiroldegian biomasa-galdara instalatzeko proiektua egitea eta alokairu publikoaren udal parkea osatzea

Mirari Altube ARETXABAETA

2023ko aurrekontuaren balorazioa hilaren 9ko osoko bilkuran egingo badu ere EH Bilduk, hainbat ekarpen aurkeztu ditu Udal Gobernuaren proposamena jakin ondoren. Bi ardatz dituztela horiek adierazi zuten martitzenean egindako agerraldian Ion Albizu, Naiara Olabarria eta Gorka Gabilondo zinegotziek. Batetik, 2022ko aurrekontuaren exekuzioa: "Behin betiko datuak ez ditugun arren, %70eko exekuzio maila soilik eduki dute. Egin gabeko inbertsioetatik kanpo, 300.000 euro inguru gastatu barik geratu dira pertsonal kapituluan eta 800.000 euro gas-



Ion Albizu, Naiara Olabarria eta Gorka Gabilondo. MIKEL ZUMALDE

tu arruntetan". Eta bestetik, 2023ko aurrekontua beste gobernu batek kudeatuko duela: "Diru sarrera arruntetatik at 4,5 milioi euro gehiago gastatzea aurreikusten da. Hemendik aurrerako lehentasunak eta inbertsio plan-gintza hurrengo Gobernuari tokatuko zaizkio".

Portasol ingururako hainbat

"Epe motzean exekutatzeko" hamaika proposamen aurkeztu zituzten; lehenengoa, kiroldegian biomasako galdara instalatzeko proiektua egitea -10.000 euro-; "Gasaren dependentzia %30era jaitziko litzateke eta energia berri-zatagarrien aldeko apustu sendoa

egingo genuke". Horrez gain, alokairu publikoaren udal parkea osatu gurako lukete -60.000 euro-: "Udal Gobernuak iaz proposatutako gazteendako alokairua ordaintzeko programak porrot egin duela".

Bestetik, Portasol ingururako hainbat proposamen egin zituzten: Araba ibilbidean -Gipuzkoa plaza parean- hogeitaparkaleku sortzea -5.000 euro-; Zairaia eta Gorbeia kaleen espaloiak hobetzeko proiektua adostea parte-hartzea bultzatuta -15.000 euro- eta Gipuzkoa plazan gun e estali bat sortzea parte-hartze bidez zehaztuta -2.000 euro-.

Honako beste hauek ere sartu dituzte zerrendan: energia-aholkularitzako bulego bat jartzea -10.000 euro- familie gomendioak emateko; LGTB+ kolektiboaren egoeraren gaineko ikerketa egiteko beka bat abiaraztea -8.000 euro-; landa-eremuan Internet azkarra jartzeko dirulaguntzak sortzea -6.000 euro-; Copreci inguruko bidegorria osatzea -8.000 euro-; herriko taldeek diskoak grabatzeko duten laguntza partida handitzea -2.000 euro-; eta frontoi gorrian sare bat jartzea -1.000 euro-.

Kepa Junkeraren gaineko dokumentala otsailaren 9an

Otsaileko egitarauari hasiera eman diote Arkupen eta nabarmentzekoen artean dago trikitilari bilbotar ezagunaren ibilbide musikala jasotzen duen *Kepa Junkera Berpiztu* dokumentala; datorren egunean izango da (19:00). Horrez gain zine komertziala ere egongo da; helduek *Living* izango dute gaur (22:00), zapatuan eta domekan (19:30) eta astlehenean (16:00), eta umeek *El gato con botas: El último deseo* zapatuan eta domekan (17:00).

Udal liburutegiak, bestalde, Onintze Goitz narratzailea bilbotarra gonbidatu du umeendako ipuinak kontatzeko; otsailaren 15ean, eguaztenean, izango da (18:00). Izena alde aurretik eman behar da, eta horretarako epea otsailaren 2tik 14ra egongo da zabalik.

Erakusketa aretoan, osteran, Marta Larrañaga Azaldegia do-nostiarraren olio-lanak izango dira ikusgai astelehenean aurrerara otsaila bukatu artean.

Bihotzez ikasi

KURTZEBARRI ESKOLA haur eta lehen hezkuntza (2-12 urte)

OTSAILAK 11 GOIZEZ, BISITA GIDATUAK TALDE TXIKIETAN

HITZORDUA ESKATZEKO DEITU: 943 89 91 46
zuzendaritza@kurtzebarri.eus

*Banakako bisitak otsailaren 13tik 24ra

ZATOK GU EZAGUTZERA!

MATRIKULAZIO EPEA
Otsailaren 13tik 24ra

golekola
www.golekola.net

baikara

KURTZEBARRI ESKOLA



2004an jaiotako hainbat neska-mutil, dantza entsegua hasi aurretik. MIRARI ALTUBE

Kintoak gaur hasiko dira kantuan eta eskean

Santa Ageda bezpera bihar bada ere, 2004an jaiotako neska-mutilak gaur hasiko dira koplak abesten, itxita egongo direlako zapatuan ikastetxeak eta enpresak; baserrietara ohi legez joango dira eta domekan lehen dantza saioa egingo dute

Mirari Altube ARETXABALETA

2004an jaiotako 75 bat neska-mutil Santa Ageda koplak kantuan hasteko "gertu" daude. Gaurtik jardungo dute horretan, ikastetxeetara eta enpresatara joan ahal izateko: "Otsailaren 4an

joan beharko genuke, baina aste bukaera izanik itxita egongo dira eta bisitak aurreratzea erabaki dugu. Jakinarazi ere egin diegu ikastetxeei; hortaz, gure zain izango direla uste dugu".

Domekan lehen dantza

Ohiturari eutsiz, bihar, auzorik auzo eta baserrikerik baserri ibiliko dira, goizean goiz irten da, eta domekan kaleetan topatuko dituzte herritarrek kantuan. Aurtengo lehen dan-

tza saioa ere orduantxe egingo dute, 19:00etan, Herriko Plazan; gero, beste bi domekatan errepikatuko dute. Azkena, otsailaren 19an, Aratuste-domekan.

Asteburuko ospakizunari hasiera emateko "gogotsu" daude gazteak, jakinik, gainera, eguraldi polita izango dutela lagun. Baina "urduri" ere badaude zenbait; bereziki, dantza saioari begira, badakite eta plaza bete egingo dela. Hainbat entsegu egin dituzte urtarrilean; azkena, entsegu orokorra txistulariekin batera, atzo iluntzean: "Jendaurrean agertzeko gertu gaude".

Abesbatza eta Basotxo, bihar

Aretxabaleta Abesbatzako eta Leizarra musika eskolako abesbatzako kideak ere kantuan ibiliko dira bihar, zapatua. 18:30 bueltan zaharren egoitzara joango dira eta gero kalerik kale jardungo dute koplak gogora ekarriz.

Basotxo erretiratuen elkarreko abestaldeak ere egingo du kantuan bihar: 19:00etan irten go dira eta kale bazterrak alaitzeko asmoa dute.

Gipuzkoako Karate Txapelketa jokatu da etzi kiroldegian

Hamar herritako kirolariak elkartuko dira otsailaren 5ean, domekan, Ibarra kiroldegian Gipuzkoako Karate Txapelketa jokatzeko -10:00etan hasita-. Senior mailakoak eta aurtentzako kadete mailakoak ere izango dira; 82, guztira. Horien artean, UDAko sei kirolari hartuko dute parte. Kata eta kumite modalitateetan jardungo dute.

OHARRAK

Odol ateratzea

Autobusa joango da otsailaren 9an eta 20an Durana kalera (16:45-20:00) eta hilaren 13an Mondragon Unibertsitatara (09:45-13:00).

San Blas eguna

Gaur, San Blas eguna, meza esan eta jakiak bedeinkatuko dituzte Apotzaga-Etxebarri auzokoko Salluente ermitan (10:30).



Pausoka
haur eskola

0-3
urte

Etorri eta ezagutu!

Izen-emate epea: Otsailaren 13tik 24ra
Hitzordua hartzeko deitu.

943 77 03 77
pausoka.he@gmail.com
www.pausoka.eu

 619 44 95 97

Belorrieta 8 • 20550 Aretxabaleta

zeuria
zeuena
geuria





Kinttaden Eguneko herri bazkarian egongo diren bederatzi kintadetako ordezkariak, kultura etxeko batzarrean. IMANOL BELOKI

Arauk zehaztuta, bederatzi kintada batuko dira herri bazkarian

Kinttaden Eguna ospatuko da zapatu honetan, eta, aurtengo edizioan, Eingeinke ekimenekoek eta Itzartu Gazte Asanbladako kideek antolatuta, herri bazkaria egingo da Manuel Muñoz kiroldegian. Guztira, 280 pertsona batuko dira bazkaltzeko

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Gaur zortzi egin zuten Kinttaden Eguneko herri bazkarian parte hartuko duten kintada guztietako ordezkariak batzarra, kultura etxean. *Catering* bat kontratatu dute jatekoa prestatzeko eta zerbitzatzeko; udal brigada-koak ere izango dira laguntzen, baina Eingeinke ekimenekoek eta Itzartu Gazte Asanbladako kideek azpimarratu dute auzolana ezinbestekoa izango dela eta jarrera egokia mantentzea funtsezkoa izango dela.

Muntatu eta jaso, auzolanean

"Bederatzi kintada izango gara Manuel Muñoz kiroldegiko bazkarian eta 11:00etarako kintada bakoitzeko bi ordezkari bertan izateko eskaera egin dugu. Horrela, zenbait lagun artean kantzako lurra estaltzeko eta, bide batez, mahaiak eta aulkiak

jartzen laguntzeko. Horrekin batera, jarraitu beharreko arauak gogoraraziko ditugu. Bazkalostean, mahaiak eta aulkiak jasotzen lagundu beharko dugu, eta, 19:00etarako jasota izan beharko ditugunez, kintada bakoitzak erabaki dezala nola egin: lagun gutxi batzuek dena jasotzea edo kintada guztiaren artean egitea. Hala ere, kintada bakoitzak bere mahaiak arduratu beharko du", adierazi dute Eingeinke ekimenekoek eta Itzartu Gazte Asanbladako ordezkariak.

Errespetatu beharreko arauak ere kontuan izateko eskatu dute

KINTTADEN EGUNeko BAZKARIA ERROTUKO DEN HITZORDUA IZANGO DEN AURREIKUSPENAREKIN

antolatzaileek: kiroldegi barruan ez erretzeko, janariarekin ez jolasteko, suziriak ez sartzeko eraikinera –Santa Ageda neska-mutilei zuzendutako mezua... Laburbilduz, gizalegez eta errespetuz jokatzeko.

Musika bozgorailuetatik


Zapatuko menua honako hau izango da: entsalada mistoa, baserriko oilaskoa eta txerri-saiheskia parrillan, Ezeizako pasteltoak, ogia, kafea eta edariak. Horrekin batera, aukera beganoa eta gluten gabekoa ere izango da. Prezioa 23 euro da eta prezio horren barruan sartu dute garbiketa-enpresa baten kontratazioa. Musika jarriko dute bozgorailuetatik eta jarriko duten kantu sortaren aukeraketa irekita utziko dute, batzen diren guztien gustuko kantuak entzun daitezzen.

Zer iruditzen zaizu Kinttaden Egunean herri bazkaria antolatzea?



JONE AZKARGORTA
2001EAN JAIOTAKO KINTOA

"2001eko 44 lagun goaz kiroldegian egingo den bazkarira. Giro oso ona izango dela aurreikusten dugu, eta, berritasuna izanda, bi aldiz pentsatu barik bertara joatea erabaki dugu. Gainera adin ezberdinetakoak batzea ere oso polita da..."




IANIRE RABANETE
2000. URTEAN JAIOTAKO KINTOA

"Gure adineko 22 lagun joango gara herri bazkarira. Proposamena iritsi zitzaigun, eta, bazkaria egiteko leku faltagatik, ideia paregabea izan da. Modu horretan, herrian geratu ahal izango gara eta ez dugu alboko herrietara bazkaltzera joan beharko".



IRATI UNANUE
2002AN JAIOTAKO KINTOA

"Gure adinekoei dagokienez, 25 lagun inguru joango gara herri bazkarira. Aukera ederra da adin askotariko jendea batzeko, eta, kintada bakoitzak bere aldetik bazkaria egin beharrean, parranda giroa mantentzeko oso ideia ona izan da".



AINHOA LOITI
2003AN JAIOTAKO KINTOA

"Kinttaden Egunaren baitan hausnartzen hasi ginen eta konturatu ginen herrian bazkaltzeko tokia faltako zela. Hori horrela, herri bazkaria izan da gure aukera. Datozen edizioei begira errotu egingo den hitzordua izango dela uste dugu, gainera".



JON ORTUETA ETA JON LASAGABASTER
2005EAN JAIOTAKO KINTOAK;
AURTENGO SANTA AGEDA MUTILAK

"Guretzat lehenengo aldia izango da Kinttaden Egunean parte hartuko duguna. Herri bazkaria antolatu dute eta gu ere batuko gara. Guztira, 43 gara aurten Santa Ageda neska-mutil aterako garenak eta gogoz gaude zaturako, baita baserri-baserri aritzeko, eta domeka honetan eta hurrengoan egingo ditugun dantzarako ere".



Familia bat, joan den domekan, Ibarraundi museo alboko belardian zuhaitz bat landatzen. IMANOL SORIANO

Zuhaitz landaketarako planteamendu berri bila

Ibarraundi museoak kudeatuta eta Eskoriatzako lorezainekin elkarlanean egiten den egitasmoa hasi zenetik, zuhaitz landaketa herrigunean egitea du oinarri hitzorduak. Hala ere, leku faltagatik, ekintza egiteko modua azertu egingo dute antolatzaileek

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Eskoriatzan urtero egiten dute zuhaitz landaketa herrikoi eta sinbolikoa, jaioberriak omentzeko. Iaz 30 haur jaio ziren, eta, hori horrela, familiak Ibarraundi museora bertaratu ziren joan den domekan, urteroko zuhaitz landaketan parte hartzeko. Guztira, bederatzi zuhaitz egokitu zituzten: fruta-arbolak eta zuhaixkak; sei museoaren alboko belardian eta hiru kanposantu inguruan. Ekintza gauzatuta, Ibarraundi museo Saioa Ibarraundi langileak adierazi du herrigunean toki gutxi dagoelako landatu zituztela bederatzi zuhaitz bakarrik. Edonola ere, urtean zehar jarraipena egingo diete udal lorezainek.

Planteamendua aldatu beharra "Ekintza arrakastatsua izaten da urtero Zuhaitz Eguna; zuhaitzak landatzeko zenbait herri-tar elkartzea hitzordu positiboa da beti, eta aurten hamaika familia etorri dira hitzordura.

Oso ondo baloratzen dugu ekintza; izan ere, hotz egiten zuen, eta hainbeste familia batu izana pozgarria da. Guztira, hiru gorosti, bi astigar, bi gaukar eta bi hesilabar landatu genituen eta bertaratu zirenak oso gustura aritu ziren. Hala ere, datorren urtera begira planteamendua aldatu egin beharko dugu. Izan ere, egitasmoa hasi genuenetik, zuhaitzak herrigunean landatzea izan da asmoa. Familiak haur-karroekin etortzen dira eta mendi aldera joango bagina ez luke halako arrakastarik izango, bestela. Hori horrela, herrigunean ez dugu tokirik landaketak egiteko; urtero aritzen gara lorezainekin tokiak bilatzen, eta datorren

GUZTIRA, HIRU GOROSTI, BI ASTIGAR, BI GAUKAR ETA BI HESILABAR LANDATU ZITUZTEN

urterako zer egin azertu behar dugu. Proposamen batzuk egin ditugu: jaiotako haur guztien izenean landare bat soilik landatzea herrigunean; elizateetara joan eta beste mota bateko landaketa egitea, akaso; edo bertan behera uztea egitasmoa. Oraindik goiz da zehazteko baina, aztertuko dugu zer egin", adierazi du Saioa Altzuak, Ibarraundi museoko langileak.

Landatutako zuhaitzak zaintzea Bederatzi zuhaitz landatuta, Zuhaitz Egunean batutako familien ardura izango da orain horiek zaintzea. "Haiek dakite non landatu dituzten zuhaitzak eta euren dagokie horien zaintza. Saiatzen gara landaketa ondo egiten, baina eguraldiaren arabera indarra hartzen dute batzuetan; beste batzuetan, ez; eta hainbat kasutan ihartu ere egin izan dira zenbait urtetan, espeziearen arabera. Beraz, jarraipena egitea ezinbestekoa da", dio Altzuak.

Inauterietako bazkarirako txartelak salgai jarriko dituzte

Otsailaren 18ko Inauteri bazkarirako lekua erreserbatu beharko da, txartelak erosteaz batera

I.B. ESKORIATZA

Otsailaren 5ean –domeka– jarriko dituzte salgai inauterietako bazkarirako txartelak. Otsailaren 18an egingo da Inauterietako bazkaria Manuel Muñozen, eta kiroldegian bertan, H@zin eta *bibe.me* webgunean erosi ahal izango dira sarrerak, eta horretarako azken eguna hilaren 13a izango da.

Bi menu egongo dira: batetik, helduentzat prestatutako menuaren barruan, patatak errioxar erara, saiheski errea eta txutxitoak txokolaterekin.

Edateko, berriz, ardo beltz ondua, ardo zuria, sagardoa, freskagarrak eta ura, kafea eta txupitoea eskainiko dira, 22 eurotan. Bestetik, 18 urtetik beherakoei zuzendutako menua ere egongo da: makarroiak tomatearekin eta gaztarekin, txahal-hanburgesak saltsan patatekin eta Smarties-izozkia, 15 eurotan.

Txartela erosteaz batera, lekua ere erreserbatu beharko da. Horretarako, kultura@eskoriatza.eus helbide elektronikora idatzi daiteke edo 943 71 44 07 telefono-zenbakira deitu.

GORA ETA BEHERA



Gurpilak puzteko bi gune berri jarri dituzte

Bizikletako gurpilak zulatuz gero konpontzeko eta gurpilak puzteko bi puntu berri jarri dituzte Eskoriatzako bideterran: bata, Almeneko biribilgunean, komun publikoen alboan; eta bestea, herria zeharkatzen duen saihsbidean, Tesa enpresaren parean.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



'Argia itzali da' itzalaren antzerkia Herri Eskolan

Otsailaren 9an, itzalekin egingo den antzerkia izango da ikusgai Luis Ezeiza Herri Eskolan, Haur Hezkuntzako Psikogelatan, 17:30ean. Saioa 2 eta 5 urte bitarteko haurrei zuzenduta izango da eta, hain zuzen, eskuak edo objektuak argi-iturri baten aurrean ipini eta horien itzalak horma edo pantaila batean proiektatuko dituzte.

San Blas opilak egiten ikasiko dute nerabeek

Gaur, otsailaren 3a, San Blas eguna da, eta, ohiturari jarraituz, San Blas opilak egingo dituzte, urtero moduan, Eskoriatzako gaztelekuko nerabeek, 17:30ean. San Blas opila egiten ikasiko dute eta bertan egin eta jango dituzte opilak. Arropa egokia eramatea aholkatu dute gaztelekuko hezitzaileek, zikindu egingo dutela kontuan hartuta.

Argentina eta Eskoriatza, punk musikak batuta

Zenbait argentinarren eta Iker Luarizaristi eskoriatzarraren artean sortutako musika proiektua da Los Saneadores, eta, diskoa grabatu berri, 'Viejos fantasmas' izeneko kanta jarri dute asteen, jendaurrean; sareko plataforma guztietan dago entzungai

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Bi argentinarren –Juancho eta *Chirola* – eta eskoriatzar batek –Iker Luarizaristi– osatutako punk talde berezia da Los Saneadores. Eta haiekin izan dute bidelagun Pedro J. Monge, Chromaticity Studios-eko teknikari bizkaitarra; abestiak nahasteaz eta masterizatzeaz arduratu da eta baxuak ere hark grabatu ditu, taldekide moduan ez aritu arren. *Chirola* eta Luarizaristi aspaldiko lagunak dira, urte askoan izan dira elkarri musika bidaltzen, eta, sekula elkartu ez diren arren, gaur egungo teknologia berriei esker disko bat grabatu ahal izan dute.



Diskoaren azala, Eskoriatzako San Pedro elizan oinarrituta. LOS SANEADORES

Disko fisikoa, otsailean

Iker Luarizaristi da taldeko abeslaria eta proiektuaren sortzailea. Egindako kantuei ahotsa hark jarri arren, musikaren parte instrumentala musikari argentinarren jarri diote. Bakoitzak bere aldetik grabatu du eta egindakoa batu egin dute gero. Hala, oraingoz, *Viejos fantasmas* kantua bakarrik jarri dute entzungai plataforma digital guztietan. Hala ere, jakinaz du laster igoko dituztela Internetera diskoak batzen dituen gainontzeko kantuak: "Otsailaren 6an, astelehenean, beste

abesti bat jarriko dugu plataforma digitaletan eta otsailaren 14an, berriz, disko osoa. Bederatzi abesti eta *bonus* bat ditu lanak; hamar, guztira. Diskoa fisikoki, berriz, otsail amaierarako izatea aurreikusten dugu".

Kolaborazio ugari

Vuelko taldeko gitarrak-jolea da Luarizaristi, eta, proiektu hau gauzatzeko denbora asko kendu dion arren, haren ametsa bete eta gustura geratu da emaitzarekin. Gainera, proiektua aurrera eramateko pertsona asko

ren kolaborazioa jaso du: Evaristo (Tropa Do Carallo), Xabi (Vuelko), Koke (Asalto), Matias (Piquillin Y Los Compadre) anaia eta Hodei Luarizaristi.

Argentinan zuzenekoak

Emaitzarekin gustura, hurrengo urratsa Argentinara joatea dela dio Luarizaristik, eta bertan zuzeneko batzuk eskaintzea. "Ez dugu ezer zehaztuta. Nire asmoa 2024ko udan Argentinara joatea da, eta zenbait kontzertu egitea, baina ikusiko dugu ea posible den...".

Auzokokoak Huhezin

Auzoko Eskoriatza taldeko hiru kide, Nerea Zugasti koordinatzailearekin batera, Huzei Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean izan dira asteen: batetik, Auzoko egitasmoaren nondik norakoak azaldu dituzte; eta, bestetik, Ingriden (Kolonbia), Danielek eta Josek (Venezuela) euren historiak kontatu dizkiete.



AUZOKO ESKORIATZA



Azpian eskuinetik ezkerera bosgarrena da Alex Perez. BASQUETOUR

Ekoturismoarekin konpromiso irmoa du Gorosarri landetxeak

Espainiako Ekoturismo Klubeko bazkide dela egiaztatzen duen egiaztatzea jaso zuen Alex Perezek

Imanol Beloki Unamuno **GATZAGA** Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak sustatuta eta Basquetour erakundeak antolatuta, Euskadiko Ekoturismoaren VI. Foroa izan zen, *Ekoaktibatzen* izenpean, urtarrilaren 26an Gasteizen, Europa Biltzar Jauregian. Saioan zenbait hizlarik hartu zuten parte eta, bide batez, ziurtagiriak banatu zizkieten Espainiako ekoturismo klubaren kide diren enpresei. Horien artean izan zen ziurtagiria jasotzen Alex Perez, Nekaturko Gorosarri landetxe-ko arduraduna.

"Debagoienean gure enpresa izan da bakarra aitortza hau jasotzen. Hala ere, ez da berria guretzat; izan ere, duela lau urte Europako Ekolabel ziurtagiria ere jaso genuen, bali handiagoa duena, baina, dena den, oso pozik gaude. Turismo jasangarria egin nahi duen orontzat aukera ematen dugula adierazten du ziurtagiri honek; beraz, horiei eta beste turista guztiei atek irekitzen dizkiegu", dio Perezek.

Ekoturismoak turismo arduratsua sustatzen du, naturarekin, ingurumenarekiko errespetuarekin eta tokiko ekonomiaren garapenarekin lotuta eta konprometitua dagoena. Hori horrela, Eskoriatza eta Gatzaga artean dagoen Gorosarri landetxeak aitortza jaso zuen, gainontzeko sarituekin batera. Aitorpen hori lortzeko, enpresek sarbide-baldintzak betetzen dituztela frogatu duten prozesu bat gain-

ditu behar izan dute, hala nola helmuga eta eremu babestu batekin duten lotura eta ingurumen-izaerako eta turismo-jarduera garatzen duten helmuga eta eremu babestuekiko gizarte-konpromisoko nahitaezko baldintza batzuk.

Ekoturismoa hizpide

Euskal Autonomia Erkidegoko ekoturismoaren etorkizunari buruzko esperientziak eta iritziak partekatzeke gune dinamiko eta parte-hartzaileak sortzeko helburuarekin, saioa irekitzen Javier Hurtado –Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailburua–, Cristina Gonzalez –Arabako Foru Aldundiko Enplegu Merkataritza eta Turismo Saileko diputatua– eta Gasteizko alkateordea eta Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzia izan ziren, eta ondoren, multzoka banatutako ekitaldia hasi zuten. Sariak banatzeaz batera, ekoturismoko adituek, erakundeek, elkarteek eta enpresek, besteak beste, gaur egungo egoera aztertu zuten eta datozen urteetara begira EAEn ekoturismoa bultzatzeko funtsezko proiektua izan zuten hizpide: estrategia turistikoa, erronka berriak...

**EKOTURISTENTZAT
ESKAITZA DUTELA
ADIERAZTEN DU
JASOTAKO
ZIURTAGIRIAK**



Labegaraietako Teleixako Bentako jateixe zerbitzuaz arduratuko diren Asun Ubeda eta Joana Gomez, asteon. ARGAZKIAK: JOKIN BEREZIARTUA

Erregaiaren gune berriak berbagai

Gaur egun Repsolek, Eroskik eta Aviak zabalik dituzten gasolindegiei bi berri batuko zaizkie laster: Labegaraietako Telleria kalekoa martxo hasieran martxan egotea espero dute eta bigarrena, Jam aretoa zegoen lekuan jarriko dutena, apirilean zehar irekiko dute

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Gasolinaren prezio garestiaren gaineko keak eta jasangarritasunaren izenean mugikortasun eredu berriak behar direla herriar askoren ahotan dauden garaiotan, gasolindegia berriak dira albiste Bergaran. Gaur egun Repsolek, Eroskik eta Aviak zabalik dituzten hiru gasolindegiei beste bi gehituko zaizkie eta datozen asteetan: Labegaraietan Cepsak irekiko duena eta ITV/IAT parean, Jam aretoa egon zen lekuan, prezio apaleko gasolindegien artean azken urteetan gehien hazi den enpresetako bat den Plenoil-ek zabalduko duena.

Labegaraietako, hilabete barru Labegaraietako Telleria kalean Cepsak ireki behar duen gasolindegia hilabete eskas falta zaio martxan egoteko, bertako

jateixe-zerbitzuaren arduradunetako bat izango den Asun Ubeda arrasatearrak iragarri duenez: "Espero dugu martxoko lehen astean martxan egotea eta lehenbailehen zerbitzu guztiak eskaini ahal izatea. Gasolindegiko askotariko zerbitzuez gain, denda, kafetegia eta jateixa izango ditugu martxan goizeko seietatik gaueko hamarretara". Ubeda sinistuta dago oso leku egokia dela gasolindegia bat zabaltzeko: "Uste dugu leku oso aproposa dela; are gehiago, zona hau ia inongo zerbitzurik gabe geratu dela jakinda. Industrialde handia da, jende askok egiten du lan hemen inguruan eta beste hainbat herritarrek ere badute ohi-tura zona honetatik igarotzeko; gogotsu eta ilusioz beteta gaude lanean hasteko". Askotariko zerbitzuak eskainiko ditu, hala

nola kamioiek gasolina botatzeko propio sortutako gunea, garbategia eta auto elektrikoak kargatzeko gunea –azken gune hori ez dute jarri oraindik, baina laster egokituko dute–.

Kamioiendako gunean jarri du arreta Ubedak: "Kamioiek gune propioa izango dute gasolina botatzeko eta uste dugu oso aukera ona dela herrira sartu barik depositua bete dezaten". Azken egunak "frenetikoak" izaten ari direla ere gaineratu du Ubedak: "Buru-belarri ari gara obra bukatzeko ukituekin, hornitzaileekin, dekorazio kontuekin eta beste hainbat trami-terekin, baina ilusio handiarekin gaude, lanean hasteko gogoz".

Izena Teleixako Benta izango da Lanak oso aurreratuta doaz eta iruditeria egokitzea da egiteke duten lanetako bat. Izena eraba-

Egun zabalik dauden gasolindegia



Amillaga kalean Repsolek duen gasolindegia, eguazten goizean.

Repsol Amillaga kalean dago, Elgetara bidean. 06:00etatik 22:00etara dago zabalik eta autozerbitzua da. Beste hainbat zerbitzu ere eskaintzen ditu: denda, ohiko garbiketa, presio bidezko garbiketa eta auto elektrikoak kargatzeko aukera, besteak beste.



Gidari bi gasolina botatzen, Leizeaga kalean Eroskik duen gasolindegian.

Eroski Leizeaga kalean dago, Eroski supermerkatuan. 24 orduz dago zabalik, supermerkatua itxita dagoenean ere erabili daitekeelako, alde aurretik ordainduta. Autozerbitzua da eta auto elektrikoak kargatzeko gunea du, besteak beste.



Aviak Urteaga kalean duen gasolindegia. ARGAZKIAK: JOKIN BEREZIARTUA

Avia Urteaga kalekoa da hirugarren gasolindegia. 24 orduz dago zabalik eta Aviako langileek eskaintzen dute zerbitzua. Denda, garbategia, kamioiek gasolina botatzeko propio sortutako gunea eta auto elektrikoak kargatzeko gunea ditu, besteak beste.



Jam egon zen lekuan prezio apaleko gasolindegia irekiko du Plenoil-ek, apirilera.

ki dute: Teleixako Benta. Ubedaren ondoan jatetxean lanean arituko da Joana Gomez arrasatearra ere: "Tabernako barra pintox josita izango dugu eta eguneko menua ere emango dugu aste barruan. Asteburu osoan zehar, domeka barne, taberna zerbitzua egongo da. Autobidea irteeran dago, Zumarragarako saihebidetaren ondoan... Uste dugu etekin handia atera dakiokeen lekua dela, oso leku egokia. Bertan izango dugun garbitegiarekin eta ziklisten eta motorzaleen igarobidea izanik, uste dugu ondo funtzionatuko duela eta asmoa da egunero zabaltzea; hori da hasierako asmoa, baina ordutegia eta zerbitzuak eskarien arabera egokituko ditugu, behin martxan jarri ostean". Horrez gain, ostalaritzan "ibilbide luzea" dutela azpimarratu du Gomezek: "Asunek eta biok urte asko daroatzagu ostalaritzan eta badakigu zer den; egoera kudeatzen badakigu. Bazen ordua gure proiektua abiatzeko, biok batera".

Jam zenaren lekuan, Plenoil

Bosgarren gasolindegia izango dena Jam areto ezagunaren lekuan eraikiko dute; joan den astean amaitu zituzten Euskal Herriko areto esanguratsuenetakoa izan zena eraisteko lanak. Plenoil enpresak *low cost* edo prezio apaleko gasolindegia irekiko du bertan eta, GOIENARI aurreratu diotenez, beranduenez apirilean zehar martxan izatea aurreikusten dute. Plenoilek Euskal Herrian izan-

**LABEGARAIETAKOAN
EGUNeko MENUAK
EMANGO DITUZTE ETA
EGUNERO EGONGO DA
ZABALIK (06:00-22:00)**

go duen bigarren gasolindegia izango da Bergarakoa.

Kale-inkesta: askotariko iritziak
Apirilerako, beraz, bost gasolindegia izango dira Bergaran. Datu hori oinarri, herritarren iritzia jaso nahi izan du GOIENAK asteon. Honako galdera hauen gaineko iritzia eskatu zaie herritarrei, kale-inkesta bidez: *Ze iruditzen zaizu bost gasolindegia izatea Bergaran? Gasolinaren prezioak zure bizimoduan eragin du aldaketarik? Zein da zure iritzia auto elektrikoak orokortzen joan beharko ziren garaiotan gasolindegia berriak irekitzearen gainean?*

Erantzunen artean, askotariko iritziak. Erretiratuta dagoen emakume baten arabera, "larregi" dira bost gasolindegia: "Bost Bergaran? Larregi. Auto elektrikoak kargatzeko leku gehiago beharko lirakeke.. Prezioa igo eta igo dabil orain eta Gobernuaren deskontua ere kendu dute... Onena garraio publikoa erabiltzea, laguntza handiak daude eta". Erretiratuta dagoen eta autoa gutxitan erabiltzen duen gizonarekin bati, berriz, ondo iruditzen zaio bost gasolindegia izatea: "Prezio merkeena edo zerbitzu onena duten gasolindegien artean aukeratu dezakezu, eta hori ona da kontsumitzailearentzat. Hori bai, autoan bakarrik gehiegitan mugitzen gara". Bestalde, bergararra den baina kanpoan bizi den gizon baten ustez, jaioterrian bost gasolindegia izatea "gehiegizkoa" da: "Gasolinaren prezioa asko igartzen da poltsikoan eta auto elektrikoaren kontua urrun dago, epe motzean, behintzat, errealitate izatetik. Nik tren gero eta gehiago erabiltzen dut Donostiara-eta joateko; laguntzei esker doan irteten da, gainera".

Kontseilua eratuko dute adineko pertsoneri begira

San Joxepe, Nagusilan, Duintasuna eta Goienagusi elkarteekin egon ostean erabaki du Udal Gobernuak kontseilu berria sortzea, eta asmoa da etorkizunean norbanako eta eragile berria erakartzea; EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren, zalantzak dituztela-eta

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
Adineko pertsonen kontseilua sortzeko lehen urratsa egin zuen astelehenean udalbatzak, kontseiluaren erregelamenduari hasierako onarpena emanda. EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren zein alderdi sozialistaren abstentzioarekin egin zuen aurrera proposamenak.

Azken urteetako eskaera bati erantzutera dator kontseilu berria. Nagusilan, San Joxepe, Goienagusi eta Duintasuna elkarteekin batera ondutako proposamena da, EH Bilduko eledun Nagore Inurategiren arabera, eta adineko pertsonen partaidetza, ahalduntzea eta protagonismoa bultzatzea dira helburuak: "Lehen unetik jarri ginen harremanetan eragileekin eta euren oniritzia jaso genuen kontseilua eratzeke; oposizioarekin ere jarri ginen harremanetan euren ekarpenak jasotzeko, baina orduan ez genuen ezer jaso".

Oposizioaren abstentzioa

EAJ abstenitu egin zen zalantzak dituelako eratzear dagoen kontseilua beharrezkoa den, eta dio jarraipena egingo diola behin martxan jarri ostean. "Hirugarren adinaren bueltan herrian dauden elkarteek helburu ezberdinak dituzte. Akaso, mahai



Asteleheneko osoko bilkuren hasiera. J.B.L.

bat eratzea eraginkorra izan daiteke, eta beharrezkoa momentu puntualetan; baina kontseilu bat maiztasun finko batekin ez dugu ikusten edo zalantzak ditugu. Ikusiko dugu martxan jartzean noraino iristen den...", esan zuen EAJko bozeramaile Maite Agirrek.

PSE-EEk uste du ekimenak baduela erabaki elektoralistatik. "Ze garaitan gauden ikusita, ekimenari kirats elektoralista dario esan dezakegu. Hauteskuendak ate-joka daude eta pentsatu daiteke Udal Gobernuaren oportu-

nismo politikoz ari dela jarduten. Horrek kezkatu egiten gaitu, hala balitz suposatuko lukeelako Gobernuak oportunitatez landu duela parte hartzailea eta zabal izan beharko litzatekeen kontseilua", deritzo PSE-EEko eledun Alberto Alonsok.

Kontseiluari behin betiko onarpena eman ostean publiko egingo dute eta adineko pertsonen lanean ari diren beste eragile eta norbanako batzuk batzeko ekimenak jarriko dituzte martxan; asmoa da haiekin batera zehaztea ekintza-plana.

EAJk dio "agintaldi osoa" galdu dela Mugikortasun Planik gabe

EH Bilduk lanketa datu zaharkituekin egin duela diote jeltzaleek eta eskatu dute gaia lantzeko mahai bat eratzea

J.B.L. BERGARA

Udal Gobernuak Mugikortasun Plana landu ez izana salatu du EAJk. Diotenez, iazko abenduko lurralde batzordean aurkeztu zuen proposamena EH Bilduk, baina jeltzaleek mahai gainean

lagatzea eskatu zuten, beste lanketa bat egitea "ezinbestekoa" zela iritzita. EAJk dioenez, ez da lehen aldia gaia birplanteatzea eskatu dutena: "Plana garatzeko erabili dituzten datuak orain ia bost urtekoak dira eta, beraz, ez

dira balekoak. Agintaldi osoa galdu dugu Mugikortasun Planaren bueltan". Hala, gaia lantzeko mahai bat eratzeke eskatu dio EAJk EH Bilduri.

Bestalde, salatu dute gauza bera gertatu dela terrazen ordenantzaraino: "EH Bilduk 2022ko urtarrilerako ordenantza berri bat izango zela agindu zuen arren, mahai gainean gelditu da gai hau ere. Argi dago EH Bilduk adostasunak lortzeko eta eragileekin zailtasunei aurre egiteko duen arazoa edota gaitasun falta".



Joseba Belaustegi, Nuria Arnedo, Sara Ibañez eta Joseba Zuzaeta, Seminarixoa, martitzeneko saioan. TXOMIN MADINA

Larramendi: epaia irten artean, mobilizatzeko deia

Petronorrek Muskizen ireki zuen koke-plantaren gaineko 'Cuerdas' filma ekarri du asteen Larramendiko Arnasak, aditzera emateko baimena izateak ez duela bermatzen kalterik ez izatea ingurumenean eta osasunean; herritarrei dei egin diete protestetan parte hartzeko

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Cannesko zinema jaialdian parte hartu, nazioarte mailan hamalau sari jaso eta hurrengo Goya sarietarako film labur onenarendako izendatuta dagoen *Cuerdas* pelikula eman zuten martitzenean Seminarixoa, Larramendiko Arnasa taldearen eskutik. Film laburak Petronorrek Muskizen duen koke-plantaren aurkako Meatzaldea Bizirik elkarteko kide eta mediku Sara Ibañezen hitzaldi batean du jatorria eta, Larramendiko Arnasa taldekoren arabera, eremu hartan gertatzen dabilenak Bergaran egin nahi duten proiektuarekin duen antzekotasunagatik antolatu zuten emanaldia. "Proiektua epaitegietan dago eta ez dakigu ze bide hartuko duen, baina kezkatuta gaude. Gaurko saioan ikusi dugu beste leku batzuetan baimen bateratua izateak ez duela bermatzen babesa ingurumen eta osasun ikuspegitik", adierazi zuen Larramendiko Arnasako Nuria Arnedok.

Muskizko adibidea oinarri Emanaldiaren ostean solasaldia ere egin zuten Seminarixoa eta bertan parte hartu zuten Sara Ibañezek berak eta GuraSOS elkarteko kide eta abokatu Joseba Belaustegik. Azken horren esanetan, Bergaran egin gura duten plantak ez dio interes publikoari erantzuten, interes ekonomiko zehatz batzuei baizik, eta proiektuaren bueltan inprobisazioa da nagusi: "Bergarako kasua, gainera, esperimentu bat da, ez dago-eta esperientziarik pirolisi mota horrekin".

Sara Ibañezen arabera, Muskizen gertatu dena Bergaran ez gertatzeko gakoa baimenetan dago: "Eraikitzeke lizentziak ematea saihestu behar da; hori

MUSKIZEN GERTATU ZENA BERGARAN EZ GERTATZEKO BAIMENIK EZ EMATEA DA GAKOA, IBAÑEZEN ARABERA

da garrantzitsuena. Muskizko Udalaren akatsa izan zen koke-planta batekin Petronorrek eman zituela ez zuenean egin behar, ez zuelako horretarako Kostaldean Demarkazioaren baimenik. Jabetza publikoko itsas eta lur eremua da. Presioak handiak izan ziren, duten boterea oso handia delako, eta Udalak, azkenean, amore eman zuen. Azken epaiketekin frogatuta geratu da ez zela baimendu behar".

Herritarrengana heldu nahian GuraSOSek hainbat errekurtsio jarri dizkio Larramendiko plantari, baina, Joseba Belaustegiren arabera, arlo juridikoa garrantzitsua den arren herritarren mobilizazioa ezinbestekoa da halako proiektuei aurre egiteko. Gizartea mobilizatzeari dagokionez, Larramendiko Arnasa taldekoek diote kostea egiten zaiela herritarrengana heltzea eta hori lortu nahi dutela martitzeneko ekitaldiarekin eta halakoekin.



B.U.

Obrengatik, geltokia Bideberrin

Masterreka kalea berritzeko lanek eragina izan dute herri barruko zirkulazioan, eta, tartean, Herribusaren ibilbidea ere moldatu behar izan dute. Masterreka inguruan Herribusa erabiltzeko ohitura duten herritarrek eskatuta, obrak iraun bitartean Bideberri kaleko zama-gunean ahalbidetu du Udalak geltoki berria. Lanak ekainean amaitzea dago aurreikusita.

Santa Ageda bezpera: Alaiberri taldea kalez kale kantuan bihar

Alaiak abesbatza taldearen errautsetatik sortutako Alaiberri taldea kantuan irtengo da bihar, otsailak 4, Santa Ageda bezpera ospatzeko. Udaletxe azpian elkartuko dira, 18:00etan, eta, Bidekurutzeta eta San Pedro kaleak zeharkatu ostean, Mizpirualde egoitzan egingo dute geldialdia. Artekalea ere zeharkatuko dute, eta, Simon Arrieta plazan eta

frontoian geldialdiak egin ostean, Irala kalean ere kantatuko dute. Barrenkalea ere zeharkatu ostean asmoa da emanaldia amaitzea berriro ere San Martin plazan, 20:00 bueltan. "Ordutegia hori izango da, gutxi gorabehera; kantaldien arabera luzatu egingo da edo ez. Gogotsu gaude abesteko eta herrikideen berotasuna sentitzeko", dio taldeko zuzendari Xabier Olabarriak. Santa Agedaren bueltako piezez gain, *Elurra mara-mara* abestia ere kantatuko dute.

OHARRAK

Martxanterak: Martxoaren 8aren antolaketa

Ekintzak antolatzeko bilera irekiak deitu dituzte otsaileko astelehen guztietarako, kartzela zaharrean (19:00).

Aratustek: torraren eta pellen ikastaroa

Gure Ametsa elkarte gastronomikoan izango da ikastaroa; izena eman behar da otsailaren 7rako, www.bergara.eus-en.

Xaxau: Pentekosteak antolatzeko bilera irekia

Biharko, otsailak 4, antolatu du jai herrikoien konpartsak 2023ko jai nagusiak antolatzeko bilera; Mizpildi kaleko Ehunduren lokalean elkartuko dira, 11:00etan.

Bergara Kirol Elkartearen Gabonetako zozketa

Gaur banatuko dituzte sariak, Deporren (20:00): saski erraldoia (15.408); patinete elektrikoa (8.589); asteburu baterako oparixartela (3.824); telebista (10.330); eta BKEko materiala (8.277). Bigarren, hirugarren eta bosgarren sariak, ordezkoko zenbakiak.

Odol Emaileen Elkarte: otsaileko ateratzeak

Otsailaren 9an eta 23an eman ahalko da odola, San Joxepe elkartearen, 16:30etik 20:30era. Argibide gehiago: 747 48 99 20.

Bergarako Orfeoiaren mendeurreneko ekintzak

Bergarako Orfeoia 100 urte beteko ditu eta, hori ospatzeko, bi kontzertu eskainiko ditu ekainean eta azaroan; halaber, erakusketa, dokumentala eta David Azurza konpositoreak mendeurrena dela-eta egindako abestia aurkeztuko dituzte

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Bergarako Orfeoia 100 urte beteko ditu aurten eta, horren harira, hainbat ekitaldi berezi antolatuko dituzte urte honetan zehar; izan ere, Orfeoia zuzendari Aitor Bidarteren esanetan, 100. urteurrena "ondo" ospatzea da asmoa. Halaber, Orfeoia une historikoak kontatu nahi dituzte prestatutako ekintzetan.

Alde batetik, aurreratu duenez, bi kontzertu berezi egingo dituzte: lehena maiatzaren 20an San Pedro elizan egingo den kontzertu sinfonikoa izango da. Hauxe adierazi du Biainek: "San Pedro eliza kontzertu sinfoniko garrantzitsuen testigu izan da urte hauetan guztietan eta guk ere eutsi diogu kontzertu sinfonikoak egiteari. 2023an ezin da horrelakorik falta". Egun horretan gozoan izan nahi dute baita Debagoieneko koro sinfoniko bezala sortu zen Lausardi Koro Sinfonikoa ere. Obrari dagokionez, publikoarentzat nahiz orfeoiantzat "kuttuna" den obra

eskainiko dutela aurreratu du Biainek: Mozarten *Requiem*-a. Berrehundik lagunetik gora arituko dira.

Bigarren kontzertua azaroaren erdialdean izango da, Udal Pilotalekuan, *100 urte kantuan*: "Musikalki 100 urteko argazkiak bilduko dituen kontzertua". Orfeoia organoarekin, Bandarekin eta Orkestrarekin izandako harremana erakutsi nahi dute, eta musikalki ere izango du lekua.

Erakusketa eta dokumentala

Musika emanaldiez gain, beselako kontzertuak egitea ere aurreikusi dute. Bideoek, kar-telek eta argazkiek osatutako *100 urteko historia* izeneko era-

ORFEOIAREN UNE HISTORIKOAK BILDU NAHI DITUZTE MENDEURRENEKO EKITALDIETAN

kusketa jarriko dute Aroztegin ekain aldera.

Dokumentala grabatzeko asmoa ere badaukate eta hainbat elkar-riketa, une historiko, irudi eta adierazpen biltzea da helburua, eta Aroztegin aurkeztea. Gainera, 100 urteak ospatzeko, mendeurreneko abestia egiteko eskatu diote Orfeoia zuzendari izandako David Azurza konpositoreari.

Irudi berria

Logo aldaketa egin du Orfeoia eta berria aukeratzeko lehiaketa jarri zuten martxan. Irabazlea Amaia Guridi izan zen. Hauxe adierazi du: "Aurretik eduki dituen beste logoetan ere lira agertzen da eta horregatik mantendu dut, baina itxura berrituarekin". Halaber, azaldu du letrak ere lirari erreferentzia egiten diola eta letretako urdina Bergararen urdina dela. Bi logo egongo dira aurten, oinarri berbera dutenak; batek, 100 zenbakia izango du urteurrenaren "lekuko moduan".



Gipuzkoako Igeriketa Txapelketa, iaz, Agorrosinen. GOIENA

Gipuzkoako Neguko Igeriketa Txapelketa Agorrosinen

Hamasei klubetako 200 igerilari baino gehiago izango dira bihar eta etzi jokatu den txapelketan

I.A.A. BERGARA

Gipuzkoako Neguko Igeriketa Txapelketa jokatu da asteburu honetan Agorrosinen. Zapatuan eta domekan arituko dira lehiari infantil, junior eta absolutu mailatan hamasei klubetako 200 igerilari gora. Lau jardunalditan banatu dute txapelketa: bi egunean goizez eta arratsaldean izango da. Horietatik hamaika izango dira Bergara Igeri Elkartearen kideak.

Asier Perez BIEko entrena-tzaileak adierazi du asteburura begira "ondo" ikusten dituela igerilariak: "Gogotsu gaude. Entrenamendu txukuna egin dugu, eta ea zer gertatzen den". Helburuak finkatuta dituzte, Perezen esanetan, eta Euskadiko gutxieneko denbora dutenak ahalik eta ondoen egitera joango dira. Gutxienekoa ez dutenak, ordea, marka hori lortzera. Izan ere; Perezek aurreratu duenez,

bost igerilari dagoeneko badute Euskadiko gutxienekoa, "baina bat hortxe-hortxe dabil".

Denboraldiko erronkak

Irailaren hasieran hasi ziren Bergara Igeri Elkartearen igerilariak denboraldia prestatzen. Dagoeneko Ligako lau jardunalditan aritu dira eta duela bi aste Irungo Gipuzkoako Taldeen Kopa izan zuten: "Orain, Gipuzkoako Txapelketa jokatu dugu; gero, Euskadiko eta etorriko da; eta ondoren hasiko da denboraldiko bigarren zatia".

Datozen hilabeteetarako ere badituzte erronkak, entrenatzaileak azaldu duenez. Ahalik eta denboraldirik txukunena egin nahi dute, eta talde moduan hobetzen joan. Markei dagokionez, "aurreko urtean Ane Alberdi Espainiako Txapelketarako sailkatu zen eta aurten ere sailkatzea izango litzateke asmoa".

Bi kontzertu gaur gauean kartzela zaharrean

The Riff Truckers eta The Grace Of Dionysus taldeek kontzertua egingo dute, 22:30ean hasita, kartzela zaharrean, *Egubakoitzak berreskuratzen* ekimenaren barruan. Sarrerak zortzi euro balio du.

The Riff Truckers 2005ean Gernikan sortutako taldea da eta rock-and-roll, blues eta country estiloak uztartzen ditu.

The Grace Of Dionysuseko hirukote zumaiarrek ere hainbat estilo nahasten ditu rock-and-rollarekin.

Hilean behin egiten den egitasmoa da eta egubakoitzetan kultura hitzordu bat proposatzea du helburu. Datorren hileko kontzertuak ere antolatuta daude eta, antolatzaileek adierazi dutenez, martxoaren 3an izango dira; hain zuzen ere, MICE -Miren Narbaizaren bakarkako proiektua- eta Azkoitiko Hartz taldea arituko dira.



Kristina Markina Kultura zinegotzia, Bergarako Orfeoia kideak eta Amaia Guridi, mendeurreneko prentsaurrekoan. M.Z.



Mikel Iturriotz, Garazi Navarro eta Asier Galarza, pasa den astean. IMANOL SORIANO

Ateak ireki ditu berriro Antzuolako gaztetxeak

25 gazte inguruk osatzen dute gaur egun Gazte Asanblada. Eraikina Udalarena da, baina autogestioa dute ardatz. Azpitaldeak dituzte, baita herriko gazteen sare bat ere, "behar denean" laguntzeko. Espazioa herriari eta herritarrei zabaltzeko nahia dute

Amara Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Hamar urte bete ziren iaz Antzuolako gaztetxea inauguratu zutenetik, baina gorabehera asko bizi izan dituen espazioa da. Lehen urteak oparoak izan ziren; hala ere, belaunaldi zaharrenak erretiratu ahala, espazioari bizia emateko prest zeuden gero eta gazte gutxiago gelditu ziren. Ordutik, izan dira zabaltzeko saiakerak eta orain ere martxan dira gazteak, berriro ireki baitituzte gaztetxeak areak.

Iaz egin zituzten lehen urratsak. *Piztu gaztetxea* izenpean talde-etzabaida batzuk egin ziren eta horren aitzakiapen hasi zen gazte talde bat batzen, Janire Garitano eta Irati Lizarralde Antzuolako Gazte Asanbladako kideek azaldu dutenez. "Nabaritzen genuen herrian ez zegoela gazteontzako ekitaldirik eta pentsatu genuen ideia ona izango zela gazte asanblada bat sortzea; hala ezean, ez genukeen gozatuko gazte denbora".

Horrela eman zituzten lehen pausoak. Egun, 16 eta 25 urte arteko 25 gazte inguruk osatzen dute, eta, asanbladaz gain, azpitaldeak dituzte. Hala ere, badute zabalagoa den beste talde bat ere: "Antzuolako gazteek osatzen dute, txanda bat egiteko, espazioa garbitzeko... Beharra dagoenean laguntzeko".

Udalarekin eskertuta

Jarduteko duten era, beraz, autogestioan oinarritzen dela diote eta erabakiak asanbladan hartzen dituzte. Eraikina, ordea, Udalarena da; hala izan da hasieratik, baina gazteek azaldu dute eskertuta daudela: "Badu kezka bat gazteekiko eta harekin dugun tratua ona da".

Hala, espazioa herriari zabaltzeko nahia ere badute. "Ez genuen mugatu nahi gazteen gune bat izatera; izan dadila baliagarria herriarentzat eta bultzatu dezala geldiago-edo dauden taldeek biltzeko gune bat izatea, espazio hau izan dadila eurentzat ere sorkuntzarako gune bat". Are gehiago, erantsi dute herritarrek ez direnentzat leku ere izan daitekeela.

Gainera, azaldu dute ez dutela "politikan" sartu nahi izan, "nork bere pentsamenduak" dituela eta horrela jarraitzeko nahia dutela, baina badituztela jarraitzen dituzten oinarri batzuk zehaztuta: "Beti bultzatu izan ditugu euskara eta feminismoa. Hemen ez da eraso matxistarik, homofoborik edo arrazistarik onartuko. Hemen ez dira sartzen".

BALORAZIOA

"POSITIBOA" DA, EKINTZA "ONARTEZIN" BATZUK SALBU; BAINA "INDARTSU" DAUDE

Orain artekoarekin "gustura"

Lehen ekintza azaroan egin zuten Gazte Asanbladako kideek. Bergarako kartzela zaharrean eginiko lapurretarengatik Elkartasun Eguna antolatu zuten; Independentzia Eguna ere egin zuten eta San Esteban egunean bi kontzertu izan ziren. Beraz, gertakari batzuk salbu, gustura daude. "Balorazioa positiboa da. Ekintza onartezin batzuk izan diren arren, taldea indartsu dago. Gertaera horiek lagundu digute gure ahulguneak egiten zutela jabetzeko eta berriro ekiteko". Nabarmendu dutenez, "sekulako taldea" egin dute eta gazteen artean "giro mundiala" dago. "Herrian ere nabari zen bizitasun falta. Poztasuna sortzen du hau horrela ikustek".

Egingo dituztenak

Beraz, aurrerantzean lanean jarraitzeko gogotsu daude. Joan den egubakoitzean egin zuten azken ekintza bat: Mikel Iturriotz, Garazi Navarro eta Asier Galarza bertsolariak aritu ziren bertotan gaztetxean, eta ostean, Tabu bikote akustiko arrasatearraren kontzertua izan zen. Dena den, aurreratu dute badirela ekintza gehiago ere. Antzuolako 8 Miliak lasterketan kontzertuak antolatuko dituzte eta apiril-rako bi eguneko egitarau bat antolatu nahian dabilta.

Inauterietarako entseguak hasi ditu Oinarin dantza taldeak

Txarri dantza ikasteko aukera izango da hilaren 6an eta 13an. Sorgin dantza, berriz, zapatutan; lehena, bihar

A.R.K. ANTZUOLA

Motorrak berotzen hasiak dira Inauterietarako herrian, Oinarin dantza taldeak antolatuta, txarri dantza ikasteko entseguak egiten baitabilta herritarrek.

Dantza bat hautatzeko ohitura du taldeak, urtero ezberdina, eta aurtten txarri dantza egingo dute, musikaz gain kantua ere baduelako; hala, egokia iruditu zitzaizen Inauterietarako.

Hamar lagun inguru batu ziren lehen entseguan, baina beste bi ere egingo dituzte: hilaren 6an eta 13an izango dira, astelehenean, 19:00etan, Torresoroan. Otsailaren 18an izango baita emanaldia.

Baita sorgin dantza ere

Txarri dantzaz gain, ordea, sorgin dantza ere egingo dute egun horretan, errotuta dagoen ohituretako bat baita herrian. Bihar



Dantza entsegua, astelehenean. A.R.K.

izango da entsegua, 10:30ean, Torresoroan.

Beraz, hilaren 18an bi dantzen emanaldiak egingo dituzte. Goizean, kalejira izango da; eta 12:30ean, dantza saioa Herriko Plazan. Haurrek ere hartuko dute parte.

San Blas eta Santa Ageda egunak ospatuko dituzte

Gaur da San Blas eguna, baina Basalde auzoko baselizan bihar ospatuko dute. Meza izango da 12:00etan eta opilak bedeinkatuko dituzte. Horrez gain, salda eta txorizoa banatuko dituzte amaitzean.

Bestalde, Santa Ageda egunaren bezperan, bihar, 2005ean jaiotako kintoak baserriz baserrir arituko dira goizean goizetik. Eta arratsaldean, berriz, Anelkar elkarteak eskea antolatu du. Txistulariekin eta abesbatzarekin batera 18:00etan elkartuko dira, Herriko Plazan. Herria girotzeko asmoa dute, ohitura berreskuratzearrekin batera. Eta, gainera, jasotzen den duten dirua Kongoko eta Senegalgo proiektuetarako bideratuko dute. Beraz, herritarrek parte hartzea animatu dituzte.

Azkenik, Santa Ageda egunean, domekan, Galartza auzoan izango dira ospakizunak. 11:15etan kanpai hotsak izango dira eta 12:00etan meza, Santa Ageda ermitan; ostean, hamaiketako.

Izena eman behar da erretiratuen Inauterietako festan

Landatxope elkarteak Inauterietarako festa antolatu du hilaren 21erako. Merienda eta mozerro jaia egingo dute, 18:30ean, eta mozerro onena sarituko dute. Bada, horretarako izena eman daiteke otsailaren 7an eta 8an, 16:30etik 20:30era bitartean. Horrez gain, maiatzean Galiziara egingo duten bidaiarako ere eman daiteke izena.

Bailarako antzerki plataformak sormen egonaldia egingo du

Euskal antzerki sortzaile profesional zein amateurrek eman dezakete izena, eta aurkezten diren etatik bi proiektu hautatuko dituzte. Otsailaren 12an amaituko da izen-ematea eta otsailaren 22an jakinaraziko dute hautatua. Hala, DAPetik jakinarazi dute otsailaren 27 eta apirilaren 5 artean egingo dela egonaldia, Antzuolan.

Rally giroko egun osoko festa bihar Elgetan

Herriko automobilismo-zaleek antolatutako V. Mendi Mendia Racing jaiak mendi lasterketa izango du nobedade nagusia aurten. Egitaraua, dena den, egun osokoa da eta bazkaltzeko, esaterako, 200 bat lagun espero dituzte, gutxienez

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Herriko eta inguruko automobilismo-zaleen festa eguna izango da bihar Elgetan. Herriko hainbat lagunek dihardute Mendi Mendia Racing taldearen bueltan. Pilotu eta kopilotu lanak egiten dituzte batzuek, mekanikari edota laguntzaile lanetan ari dira beste batzuk... Zaleak, jarraitzaileak, babesleak eta lagunak ere ez dira gutxi.

2017an antolatu zuten lehen aldiz Mendi Mendia Racing jaiak Elgetan eta bi helburu nagusirekin jaio zen: gastuei aurre egiteko laguntza lortzea eta kirol hori herrian ezagutzera ematea. Bada, helburuak ez dira aldatu.



Auto erakusketa, plazan, 2019ko Mendi Mendia Racing jaialdian. J. DOMINGO

Mendi lasterketa Egoarbitzara

Egitarauak aurreko edizioetako egitura berbera du: goizean auto erakusketa plazan, eguerdian bazkaria eta iluntzean kontzertuak. Nobedadea aurten Egoarbitzako mendi lasterketa da. Lasterketa 16 urtetik gorakoendako da, 11:30ean abiatuko da, Mendizaleen plazatik, eta doan den izen-ematea ordu erdi lehenago zabalduko dute. In-txortako Ahuntzak taldeko kideak ari dira antolaketa lanetan. Azaldu dute zazpi kilometroko ibilbidea dela, 250

metroko desnibel positiboarekin. Ibilbidea honako hau da: plaza, San Roke kalea, San Roke ostetik Leposolora eta handik zuzen Egoarbitzako puntara. Egoarbitza ostetik buelta eman, zelaira jaitsi eta Leposolotik gora egindako bide beretik buelta plazara.

Sari banaketa eta talde argazkia 13:30erako daude iragarritan, plazan bertan. Bien bitartean, pintxo-poteoa eta triki-poteoa izango dira. Bazkaltzeko 200 bat lagun espero dituzte antolatzaileek.

Egun osoko egitaraua

- **11:00** Ibilgailuen erakusketa plazan.
- **11:30** Herri lasterketa Egoarbitzara.
- **12:00** Triki-poteoa.
- **13:30** Sari banaketa eta argazkia plazan.
- **14:00** Bazkaria antzokian.
- **21:00** Kontzertuak.

Punk rock doinuak gauean

Kontzertua aurten No Limits, Añube The Lio, eta Stretwise taldeekin izango da. Aurreikuspena da 21:00etan hasia. No Limits eta Añube eskualdeko taldeak dira eta The Lio eta Stretwise, Iruñekoak. Punk rock doinuak izango dira nagusi.

Kontzerturako sarrerak eskuragarri izango dira leihatilan ere. Prezioa 10 euro da.



No Limits taldea. IMANOL SORIANO



Eskolako neska-mutikoak plazan Santa Ageda koplak abesten, 2020an. L.Z.L.

San Ageda bezpera eta San Blas ospakizunak egunotan herrian

Eskolako umeen eskutik etorriko dira gehienak eta Arantzeta auzoan bihar ospatuko dute San Blas eguna

L.Z.L. ELGETA

Bete-betea dator eguna gaur Herri Eskolan. Goizean zehar, 5 urtetik gorako ikasleek San Blas opilak egingo dituzte eskolako ikasle guztiendako. "Goiz osoa izango da berezia eta eskola amaitutakoan ikasle guztiak San Blas opiltxo bat etxera eramateko aukera izango dute", azaldu dute zuzendaritzatik.

Arratsaldean, Santa Ageda bezperako koplak abestera irten gozoko kalera. Talde antolatuta, ikasleek herriko hainbat txokotan egingo dute kantuan: "Batzuek Domingo Iturbe kale

inguruan, beste batzuek Salvador kale inguruan eta azken batzuek Torrealdea inguruan". Amaitzeko, Mendizaleen plazan eta eskola aurrean abestuko dute eskolako ikasle guztiak batera -2 urtekoak izan ezik-. Familiak eta herritarrak gonbidatuta daude parte hartzera.

Arantzeta auzoan, bihar

San Blas ermitaren bueltan mokadutxoa eskainiko du auzotar talde batek bihar. Azaldu dute mezarik ez dela esango baina 11:00 bueltan auzo giroko ha-maiketako egun dutela.



HASIER LARREA

Gazte Asanblada, hasteko prest

Aurreko astean antzokian egindako aurkezpen-ekitaldiak aho-zapore ona utzi du. Kontzertua antolatzeaz gainera, Elgetako Gazte Asanbladako kideak agertokira igo eta aurrera begira dituzten asmoen berri eman zuten. Aipatu zituzten, besteak beste, gaztetxea berriz zabaltzea, ekintzak antolatzea eta herriko eragileekin lankidetzan jardutea.

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Arantzazuko frantziskotarren liburutegia berrantolatzen ari dira azken hilabete hauetan. Liburuak garbitu, txukundu eta liburutegia egokitu gura dute, kontsultatzeko moduan egon daitezten. Espezializazioak berezitu gura dituzte.

Liburuak garbitu banan-banan

Hiru solairutan daude gordeta Arantzazuko liburutegiko liburuak. Milaka daude eta banan-banan ari dira dauden lekutik hartzen, zein egoeratan dauden aztertzen, zaintzarako beharrezkoak diren pausoak betetzen eta berriz ere erabilgarri izan daitezten moduan kolokatzen apaletan. Lehen solairuko lanak bukatu dituzte, 10.700 liburu garbitu eta ondo katalogatu dituzte, eta pisu horretara sartu daiteke urria ezker; dagoeneko joaten da jendea kontsulta bat edo beste egitera.

Duela hiru hamarkada urte hasitako asmoaren jarraipena da hau. "Liburutegia antolatzen ari gara, bai. Duela 30 urte egin zen saiakera, baina alde batera utzi zen lan hura eta pilatzen joan dira liburuak. Orain, lan hari jarraiki, buelta bat eman gura izan diogu liburutegiari, espezializazio aldetik. Denetarik bildu da hemen, eta sailka pilatu gura ditugu. Hemengo berezitasunak izango dira irizpide nagusiak eta horien arabera sailkatuko edo banatuko ditugu liburuak: frantziskotasunari buruzkoak, Arantzazuri berari buruzkoak, euskara lantzen dutenak, euskararen ingurukoak eta Arantzazuk edo bertako frantziskotarrek ekoiztutakoak", zehaztu du Juan Migel Dorronsoro fraideak.

Urteetan egon da ikastetxea Arantzazun eta garai hartan liburu asko pilatu zirela dio Dorronsorok. "150etik gora ikasle egon ziren sasoi batean, ehundik gora fraide ere bai... Liburuak behar zituzten haiek denek, eta liburutegia osatzen joan da beti".

Datu-basea eguneratzen

Liburutegietako eta artxiboetako teknikari Noelia Gomez Ruiz (Cuenca, 1987) da garbiketa eta katalogazio lan horren ardura duen aditua. Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoan, Aranzadiko artxiboan eta Txillida Leku zabaltzeko proiektuan zein museoa aritu da lanean



Noelia Gomez aditua, Arantzazuko liburutegian dauden liburuetako batzuei begira. XABIER URZELAI

Liburutegia berrantolatzen

Arantzazuko liburutegiko liburuak garbitu, kontserbazioa bermatzeko zainketa egin eta kontsultatzeko moduan jartzeko lanak ari dira egiten, espezializazioak bereziz

Gomez Arantzazura etorri aurretetik, Panaman hiru urteko egonaldia egiteaz gain. "Euskara hain gutxi jakiteak erreparatu pixka bat ere ematen zidan, euskarari hain lotuta dagoen tokia izanik Arantzazu. Baina hemen ikasiko nuela esan zidaten frantziskotarrek, eta etortzea erabaki nuen. Orduan baino hobeto hitz egiten dut orain euskaraz".

Bi lan nagusi ditu esku artean Gomezek: liburutegian zein artxiboan dagoen materialaren datu-basea osatzea eta liburuaren kontserbazioa zaintzea. "Azken urteetan erakunde publiko askorekin egin dituzte elkarlanak Arantzazuk. Datu-base bat baino gehiago ditu, baina bakoitza formatu ezberdin batean dago. Horiek guztiak eguneratu eta erraz kontsultatzeko moduan jartzea izan da egindako lanetako bat, informatikari baten laguntzarekin. Kanpotik ere kontsulta daitekeen datu-basea da, garbiketa lanak egin ahalaz eta liburuak jaso ahalaz eguneratzen eta osatzen joango dena. Kontserbazioari lotutakoak dira beste eginbeharrak".

Anoxia, zomorroen kontra

Kontserbazio lanak egiteko, formakuntza ikastaro bat egin dute garbiketa lanak egiten laguntzen ari diren boluntarioekin batera. Banan-banan hartzen dituzte liburuak eta horiek nola hartu, nola garbitu, hautsa zelan kendu, nolako eskularruak jantzi... ikasi dute. Zomorroak ere agertu dira eta aurre egin gura dute, liburuak eta dokumentuak hondatu ez ditzaten.

Zomorroak kentzeko anoxia sistema erabiltzea pentsatu dutela dio Dorronsorok. "Urteen poderioz zomorroak eta ondoak azaldu dira. Giroa, hezetasuna, tenperatura... zaindu gura dugu zomorroak ez ugaltzeko, eta horrek lan handia eskatzen du. Anoxia sistema erabiltzea pentsatu dugu, enpresa baten laguntzarekin; zomorroak itotzea, oxigenoa kentzea, lortzen da horrekin. Zomorroak dituen liburu hartu, toki batera eraman

Munduko libururik txikiena

Artxiboa garbitzeko eta berrantolatzeke lanak egiten ari direla aurkitu dute, liburu artean, munduko libururik txikiena. "Gutenberg museoa emandako ziurtagiri bat dugu non agertzen den idatzita dagoen munduko libururik txikiena dela. Biblia bat da, eta hizkuntza bat baino gehiago ageri dira bertan: frantsesa, ingelesa, gaztelania, nederlandera eta suediarra. Oso txikia da eta lupa baten laguntza behar da irakurtzeko", azaldu du Noelia Gomezek.

Liburuaren jatorriari buruz ez dakite ezer. Gomezek adierazi duenez, dohaintza bat izatea da aukera posibleetako bat, ziurrena agian, baina, oraingoz,



Munduko libururik txikiena eskuan. X.U.

ez dute jatorria argitzen duen inolako testurik aurkitu. "Garbiketa-lanak ez ditugu oraindik bukatu; oraindik badugu lana eta litekeena da hau ez izatea aurkituko dugun

bitxikeria bakarra. Agian, agertuko dira hau bezalako altxor gehiago", gaineratu du Gomezek. Aurkitutakoak katalogatu eta besteekin batera sailkatuko dituzte.

10.700 LIBURU GARBITU DITUZTE, BANAN-BANAN, URTE BATEN; BESTE HIRU BEHARKO DITUZTE

eta, itxitura betean, oxigenoa kentzen zaio; zomorroa ito egiten da eta ez da gehiago agertzen".

300 urteko sugearen burua

Duela urtebete hasitako lana ezagututa eta oraindik garbitzeko eta aztertzeko gelditzen den liburu eta dokumentu zein artxibo bolumena ikusita, beste hiru bat urterako lana dutela aurreikusten du Gomezek. Lan "aberatsa" eta "emankorra" dela dio, altxor eta ezusteko asko ere ari direlako agertzen; esaterako, 300 urte baino gehiago dituen suge baten burua. "Espainiak Filipinak galdu zituenean, han zeuden frantziskotarrek irla utzi zuten eta handik ekarritakoa den anakonda baten burua da hau. Ikaragarria da zer dagoen hemen gordeta. Erriberriko, Naiarako eta Bastidako elizetako artxiboak ere hemen daude gordeta, adibidez, eta Erriberriko batailan erabilitako bandera bat agertu da artxiboetako batean; makila eta guzti zegoen gordeta. Burgosko Artxibotik ekarritakoen artean, berriz, eskularru jakin batzuekin baino ukitu ezin daitekeen liburu bat ere badago.

Urre orria erabilia egindako liburuak da. Mezako kantuak daude idatzita bertan, baita partitura batzuk ere. Ez dakigu Burgosera noiz edo nola heldutakoa den; hango Artxiboan dagoela dakigu bakarrik guk. Sekulako altxorrek daude hemen gordeta eta polita da horiek deskubritzea".

Kanpandorreko musika artxiboa
Inkunableak ere badaude Arantzazuko liburutegiko altxorren artean eta asmoa da gordeta dauden bitxikeria horiek guztiak erakusketa batean biltzea, jendeak ikus ditzan. Liburu eta dokumentu batzuk bertan bakarrik kontsultatu edo irakur daitezke eta beste batzuk maileguan hartu ere bai, beste liburutegi batzuetan bezala, baina gordeta dauden altxorretako batzuk ikusgai jarzea dago frantziskotarren buruan.

DAUDEN BITXIKERIAK ETA ALTXORRAK ERAKUSKETA BATEAN BILTzea DA ASMOETAKO BAT

Eta horien artean irakurri ez ezik entzun ere egin daitezkeenak ere badaudela aurreratu du Dorronsorok. "Jakinekoa den moduan, XIX. mendean, karlistaldietan, liberalak etorri eta komentuari su eman zioten. Kontatzen dutenez, iluntzean heldu ziren liberalak Arantzazura. Frantziskotarrek afaltzera gonbidatu zituzten eta elkarrekin afaldu zuten. Horretan ari zirela, antza, zerbait egiteko asmoa zutela sumatu zuten fraideek, eta gazteenek artxibategitik gauza bitxiak hartu eta kanpandorrera eraman zituzten, han gordetzeko. Musika artxiboa zen, hain zuzen ere, gorde zutena. Sute hartan dena erre zen: eliza, komentua, liburutegia... Kanpandorra izan zen salbatu zen bakarra, eta, ondorioz, baina musika artxiboa ere. Gertatu zenaren bertsioetako bat da hori; politena, akaso. Beste bertsio batek dio zaharra zelako eta erabiltzen ez zelako zegoela gordeta kanpandorrean artxibategi hura. Auskalo". Altxor horiek zaintzeko eta gordetzeko lanean jarraituko dute Arantzazuko liburutegian.

"Kontuz egin beharreko lana da; zaindu egin behar dira liburuak"

ANA MARI ARRIZABALAGA ERRASTI BOLUNTARIOA

Liburutegia garbitzen eta antolatzen ari den boluntarioetako bat da Ana Mari Arrizabalaga Errasti.

Nola hasi zinen lan honetan?

Urte askoan etorri naiz auzolanera, Arantzazuko Adiskide moduan. Liburutegiak txukuntzeko premia zuela ikusi genuen eta bi talde sortu genituen geure artean.

Normalean, astero etortzen gara; Noeliak gidatzen gaitu.

Zer egiten duzue?

Artxiboko kale bat hartu, liburu guztiak atera, garbitu, gaizki baldin badaude plastikozko poltsetan sartu eta adituei bidali; eta ondo egonez gero, berriz lehengo tokian utzi.

Zenbat denbora eskatzen dizue lan honek?

Duela urtebete hasi ginen eta liburuaren tamainaren edo



INIGO BARRENA

egoeraren arabera denbora gehiago edo gutxiago behar dugu bakoitzarekin, ez dago denbora zehatzik esaterik. Txikiak izan arren lan handia eman dezakete. Horrez gain, kontuz egin beharreko lana da, denbora hartuta; zaindu egin behar dira liburu hauek. **Zenbat falta zaizue?** Hiru alde ditu liburutegiak eta bakarra egin dugu. Ahal izanez gero, bukatu arte jarraituko dugu lanean.

Etorkizuna marraztu nahi?

•ATE IREKIAK
otsailak 11

•MATRIKULAZIO EPEA
otsailak 13-24

Hitzordua:



Bideoak:



Urgain 10
ESKOLA



San Martin auzoko jolasgunea. OIHANA ELORTZA

Jolasguneetarako bide-orria osatu du Udalak

Herriko jolasguneen diagnostikoa egin ostean, 0-2 eta 14-16 urte bitartekoentzat dagoen aukera eskasia ondorioztatu dute txostenean. Etorkizunera begira, jolas egiteko modu berrietara egokituko diren espazioak moldatzea edo sortzea da asmoa

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Oñatiko Udalak herriko hainbat txokotan dauden hemeretzi jolasguneetako diagnostikoa egin du. Egun herrian dagoen jolasguneen gaineko irakurketa egin dute horretarako, eta etorkizunera begira egin beharreko hobekuntzak edo moldaketak zeintzuk izan daitezkeen jakiteko bide-orri bat izateko.

Diagnostikoa egin ostean atara dituzten ondorio orokorretan azaltzen dira, besteak beste, 0-2 eta 14-16 urte bitartekoentzat dagoen jolasgune edo espazio falta, parke horietan hobekuntzak egiteko beharra eta elementu berriak ezartzea eta irisgarritasun-lanak egin beharra.

Era berean, etorkizuneko erronketara eta jolas egiteko modu berrietara "egokituko" diren espazioak moldatzea eta berriak sortzea ere ez dute baztertzen. Gainera, espazio horiek berdinezaleagoak izateko asmoa ere agertu dute, eta Oñatik natura-

rekin duen lotura ere indartzea aurrerantzean egingo diren proiektu berrietan.

Teknikoa eta parte hartzailea
Diagnostikoa egiteko garaian arlo teknikoaz gain erabiltzaileen parte hartzea ere funtsezkoa izan dela azpimarratu zuten, haurrak eta nerabeak baitira espazio horiek erabiltzen dituztenak. Hori dela eta, erabiltzaile diren haur eta nerabeekin, hezitzaileekin eta gurasoekin harremanetan izan dira diagnostikoa osatzeko garaian. "Iritzi teknikoaz gain, haurrei eta nerabeei galdetu nahi genien, baita zeharka erabiltzaile diren hezitzaileei eta gurasoei ere", azpimarratu zuten Iker Oñatek,

"EZ DIRA JOLASTEKO GUNEA SOILIK, BAITA HEZTEKO ERE; BERAZ, KONTUAN IZATEKO ESPAZIOAK DIRA"

Udaleko Haurrak eta Gazteria batzordeko buruak.

Horri garrantzi handia eman dio Udalak, jolasguneek jolasteko baino gehiago balio dutela iritzita. "Kasu honetan ez dira soilik jolasteko guneak, baita heztekoak ere; hori dela eta, kontuan hartzeko espazioak dira", adierazi zuten Izaro Elorza alkateak.

Proiektuentzat aurrekontua
Diagnostikoa egin ostean hurrengo pausoa izango da jolasguneetan egin beharreko hobekuntzak eta lanak zeintzuk diren zehaztea, nahiz eta Udaletik ez duten horren berririk eman. Proiektuak gauzatzen hasteko aurrekontua, ordea, 2023ko aurrekontuetan sartu zuten, 100.000 euroko partida batean.

Edozelan ere, ez da izango jolasguneentzat bideratutako den aurrekontu bakarra, partaidetzako aurrekontuetan ere 8 eta 14 urte bitartekoentzat jolasguneak egokitzeke 200.000 euro izango dira eta.

Kasablankako eta Goribarko argazki liburua atera dute

Goribar-Kasablanka. XX. mendeko bizitza argazkitan izeneko argazki liburua atera dute auzo bietako bizilagunen artean, eta gaur, egubakoitza, kaleratuko dute. Kultura etxean egingo dute aurkezpena, 18:30ean.

Oraingo eta garai bateko etxebizitzak, lantegiak zein txokoak agertzen diren ehunka argazki datoz liburuan, azpian azalpen labur bat dutela. Liburuarekin koaderno txiki bat dator, argazkietan agertzen diren auzotarren izen-abizenekin.

Gaurko aurkezpenean erosi ahal izango da liburua. Bihartik aurrera, Txokolateixan eta Turismo Bulegoan egongo da salgai, 20 eurotan.

Musika elektronikoa entzungo da bihar Antixena gaztetxean

Iruñeko Hofe X 4:40 eta Hondarribiko Kosmai Kosin taldeen kontzertua egongo da bihar, zapatua, Antixena gaztetxean, 22:00etan. Musika elektronikoa entzungo da, beraz, nagusiki. *Amodioa* laneko kantak ekarriko dituzte nafarrek eta *Apotheke* izenekoarenak gipuzkoarrek. Sarrerak: zortzi euro soldatadunek eta hiru euro gainerakoek.


Adimen gaitasun handiko haurrei buruz eguaztenean

Hitzaldia izango da otsailaren 8an, kultura etxean, adimen gaitasun handiko haurrei buruz. Adimen gaitasun handia garaiz identifikatzeak geroko esku-hartzeetan duen garrantziaz hitz egingo dute, besteak beste. Detekzioa egin ez edo detektatu baina umea horien beharretara ez egokitzeak kalteak eragin ditzake umearen osasunean, jokabideetan eta garapenean, eta hizpide izango dute hori, antolatzaileek aurreratu dutenez. Urgain eskolako Guraso Elkar-teak antolatuta, Amaia Agiriano izango da hizlaria eta gurasoei, irakasleei eta haurren inguruan diharduen edonori zuzendutako hitzaldi irekia da.

Urteko bigarren mendi irteera egingo dute mendi sailekoek

Izki parke naturalera egingo dute irteera mendi sailekoek datorren asteko domekan, hilak 12, eta irteera goizeko zazpitan izango da posta geltokian. Dagoeneko izena emateko epea zabalik da; Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com helbidera idatzita egin behar da eta 10 euro ordaindu behar da.

GORA ETA BEHERA



Hesiak, zaborra errekarra hel ez dadin

Plazako frontoi osteko bidexkan jarritako hesiek atentzioa eman diote herritar bati, onerako: "Zaborra errekarra ez heltzeko modu ona. Ea beste toki batzuetan ere jartzen dituzten".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



DEBAGOIENENKO



OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otarora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabari 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskoziuri 5A, 1D / 943 76 56 88

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11



Bergarak eta Aretxabaletak Agorrosin zaharrearren jokaturako azken derbiaren irudi bat. GOIENA

Joera positiboari eustea, helburu nagusia derbian

FUTBOLA Azken bi jardunaldietan sei puntu batu dituzten Bergarak eta Aretxabaletak elkarren kontra jokatu dute domekan (17:00, Agorrosin). Oraindik atzeko postuetan daude biak; hala, gora egiten jarraitzeko puntu balioitsuak egongo dira jokoan

Xabier Urzelai Atxa BERGARA Domekako derbira gorputzaldi onean iritsiko dira Bergara eta Aretxabaleta. Izan ere, biek ala biek irabazi egin dituzte azken bi jardunaldiak, eta hori igarri egiten da, bereziki, taldeen aldardean. Aretxabaletak azaro negargarria izan zuen, baina abenduaren 4a ezker ez du partidurik galdu. "Hala ere, gero ere irabazi ezinka ibili gara; hiru berdinketa izan genituen jarraian eta horrek dezente zigortu zuen taldea. Badirudi orain gauzak aldatu egin direla, eta ez bereziki gauzak beste modu batean egiten gabiltzalako. Hasieratik sinetsi dugu gure lan-metodologian, baina emaitzak falta zitzaiz-

kigun", adierazi dio GOIENARI aste barruan Unai Calzonek.

Bergara ere gorabeherekin ibili da liga hasieratik; edozelan ere, aretxabaletarrek ahazteko moduko azaroa izan zuten, baina mahoneroen kasuan txalaldia abenduan etorri zen. "Egia da Agorrosin berrira bertan apenas entrenatu gabe pasa ginel, baina orain aitzakia horrek ez digu balio; bi hilabete daromatxagu bertan lanean eta dagoeneko egokitu gara. Entrenamendu saioetan ahaleginu gara aldaketa txiki batzuk egiten, eta, zorionez, azken bi partiduetan emaitza positiboak izan ditugu", dio Iker Ruiz de Larramendi entrenatzaileak.

Aloña Mendik ere etxean

Azken hiru jardunaldiak jarraian galdu eta gero, oñatiarrak arazoak dituzte. Bistan da partidu ona egin ostean Mondraren kontra galdu izanak (0-1) min egin ziela, eta ordutik burua altza ezinik dabilta. Domekan izango dute aukera (16:30, Azkoagain): sailkapenean erdialdean dagoen Beti Gazteren bisita izango dute.

Mondrari, berriz, joan den astean Bergararen kontra galdu eta gero, (1-2) gehiago zaildu zaio Ohorezko Erregionalean mailari eustea. Zuri-moreek Deban jokatu dute domekan (12:00), zazpigarren dagoen Amakak Baten kontra.

Zelan dago taldea derbiari begira?



IKER R. LARRAMENDI
BKE-KO ENTRENATZAILEA

"Hasi gara egoera zuzentzen. Gabonetatik hona sentsazio onak errekuperatu ditugu; izan ere, azaroan txukun ibili ginen, baina abendua txarra izan zen. Aretxabaleta ere ondo dago; kontrario gogorra izango da".



UNAI CALZON UDA-KO ENTRENATZAILEA

"Bazen garaia emaitza onak batzen hasteko! Orain arte ez ditugu sentsazio txarrak izan, taldea entrenamendu saioetan ondo ikusten nuen, baina... Taldea ondo dago; hala ere, badakigu Bergara kontrario gogorra izango dela. Lehiakorrek dira".

Teideko errekorra ondu du Oihana Kortazarrek

MENDIA Dagna Rebatsek zeukan marka hogei minutu hobetu du elgetarrak (6.41.18)

X.U. ARRASATE

Abenduaren 3an lortu zuen Oihana Kortazarrek Teiden errekorra ezartzea, baina hilabete geroago eman dute egindakoaren berri; izan ere, Salomon etxeak isilpean mantendu du errekorra, igoeraren emankizuna Youtuben eskaini ahal izateko. Espainiako mendirik altuenaren (3.718 metro) igoera eta jaitsiera errekorra hautsi zuen, 0-4-0 ibilbideko 54 kilometroak -El Socorro hondartzatik Teideko tontorrera- 6 ordu, 41 minutu eta 18 segundoan eginda. Korrikalari elgetarra Los Realejosen dagoen El Socorro hondartzatik abiatu zen eta igoeran 4.17.13ko marka egin zuen. Gero, jaisten, zailtasun handiak izan zituen. Orkatila bihurritu zuen hainbatetan, eta, ederki sufritu bazuen ere, 2 ordu eta 24 minutu erabili zituen jaitsieran: "Lasterketa normala izan balitz, bihurritu horiekin, seguruenik, erretiratu egingo nintzen. Baina neu bakarrik nengoen Salomoneko taldekideekin eta horrenbeste lan egin eta gero... aurrera egi-tea erabaki nuen". Elgetakoak adierazi du sarritan izaten dituela halako bihurrituak, tenoiak oso bigunduta dituelako.

HARIRA ARETXABALETA

AGINTALDIARI ERREPASQA UDAL ORDEZKARIEKIN

GOIENA TELEBISTA, 'HARIRA' SAIOA

OTSAILAREN 7AN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
UNAI ELKORO (ARETXABALETAKO ALKATEA) ETA
ION ALBIZU (EH BILDUREN BOZERAMAILEA)

GOIATZ ARANAK AURKEZTUTA.



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



Derbirako oso parekatuta dituzte indarrak

ESKUBALOIA Soraluze BKEk eta Mugarri Ingouk elkarren kontra jokatuko dute zapatuan Labegaraletan (20:00). Joaneko partiduan Iturripen gertatu zen moduan, ondo hastea erabakigarria izan daitekeela adierazi diote entrenatzaileek GOIENARI

Xabier Urzelai Atxa BERGARA

Sailkapenak erakusten du Soraluze BKEren eta Mugarri Ingouren artean indarrak parean daudela. Erdiko postuetan daude biak, baina zapatuan 20:00etan epaileak partiduen hasiera adierazten duenean orain arte egindakoek balio gutxi izango du. Bai izango da garrantzitsua ondo hastea, eta hori da, hain zuzen, joaneko partiduan beragarrei falta izan zitzaiena. "Arrasaten jokatu genuenean ez ginen derbi batek eskatzen duen intentsitatearekin kantxaratu. Lehenengo zatian galdu genuen norgehiagoka eta esango nuke orain arte ligan egin dugun lehenengo zati txarrena izan zela, ez ginela lehiakorrak izan. hori zuzendu behar dugu asteburuko derbira begira", adierazi du Joseba Elortzak.

Bestelako kontrario bat

Ane Herrerok ere garbi dauka lehenengo minutu haiek erabakigarriak izan zirela: "Horregatik uste dut asteburuan Bergara gogor bat izango dugula aurrean; errebantxa gogoz egongo dira eta halakoetan bi puntu baino gehiago egoten dira jokoan, garaipena eskuratzen duenak moraliki ere gora egiten duelako".



Beragararrak erasoan, urrian Iturripen jokatutako partiduan. GOIENA



ANE HERRERO MUGARRI INGOU TALDEKO ENTRENATZAILEA

"Iturripen lehenengo zatian egindako lanak eman zizkigun bi puntuak, gero lehia berdindu egin zelako. Beragararrak indartsu irtingo dira".



JOSEBA ELORTZA SORALUCE BKE TALDEKO ENTRENATZAILEA

"Badakigu Arrasatekoen kontra gure maila ematen badugu partidua irabazteko aukerak izango ditugula; oso berdinduta gaude bi taldeak".

BOXEOA Gipuzkoako Txapelketa jokatuko dute Uarkapen

Otsailaren 25erako boxeo jaialdia antolatuko dute Uarkape pilotalekuan. Debagoieneko hainbat boxeolari egongo dira tartean, eta Gipuzkoako Txapelketa da jokoan egongo dena. Jaialdia 18:00etan hasiko dute -ateak 17:30ean zabalduko dituzte- eta sarrerak dagoeneko salgai daude Iluntz tabernan edota 676 86 69 22 telefono-zenbakian.

PILOTA Emakumezkoen Binakako jaialdia Antzuolan domekan

Ados enpresaren eskutik Eskuz Binakako Txapelketako partidua jokatuko dituzte domekan Antzuolan. 11:30ean hasita -sarrera debalde izango da-, Ibarrolak eta Insaustik Gordonen eta Oskozen kontra jokatuko dute. Eta jaialdiko bigarren partiduan aurrez aurre izango dira Iturriaga eta Leire Galeano eta Arrieta eta Zabala.

ERRUGBIA Mojategiko azken partidua neskendako

Arrasateko eta Eibarko neskek osatzen duten AGTE Eibar taldeak Gaztedi hartuko du domeka eguerdian Mojategin (12:30). Eta ligan Mojategin jokatuko duten denboraldiko azken norgehiagoka izango da. Lehenago, 10:30ean, zelai erdian Inklusio Taldeak entrenamendu saioa egingo du eta beste erdian errugbi eskolakoei.

Goienakideen txokoa

URTARRILEKO SARIAK

Liburu-irakurgailua

Kindle e-booka

Parte hartzeko sariaren izena: ebook



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
GATISOKO DA

www.harremanakidex.org
Bidezko merkataritzako produktuak

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 6900 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzelekin artean egingo da zozketa. Inbentariaren inguruan 15/10/99 legearen arabera, jirarekin dugu sariaren zozketaren Goiena foruakiko Zabitzaeren bitartez automatikoki bideratuko direla. Dato-bileta horien helburua bakarra da inbentariaren dagoen estupe gaitortasun. Eskubidea iragpizko dugu zozketaren arazo, harkuz zozketaren arazo eta helburu horien datuak: goienakide@goiena.eus

Realaren eta Celtaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Celta norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeraturako beste lagun batek.

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partida otsailaren 19an izango da.

Parte hartzeko azken eguna: otsailak 14



Irabazi bi lagunendako otordua

BERGARAKO BATZOKIA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntuak aldizkariako Otorduan atala eta hartu partel!

Parte hartzeko azken eguna: otsailak 7



GOIENAKIDE Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntuak aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

"Idazketa bortitza nola euskaratu da erronka"

GEMA LOPEZ LAS HERAS ITZULTZAILEA

Gema Lopez Las Herasek irabazi du AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak Arrasateko Udalaren eta Laboral Kutxaren laguntzarekin antolatzen duten Jokin Zaitegi sariketa

Aitziber Aranburuzabala Juldain

ARRASATE

Itzulpengintza eta Interpretazioa ikasi ondoren, itzultzaile dihar- du Eusko Jaurlaritzako HAEE-IVAPen Gema Lopez Las Heras azkoitiarrak gaur egun. Beka eskuratuta, irailera bitartean izango du iazko Literaturako Nobel saria irabazi zuen Annie Ernaux idazle frantziarraren *La femme gelée* –*Emakume izoztua*– eleberria euskarara itzultzeko aukera.

Zorionak! Pozik?

Bai, oso gustura, sorpresa itzela izan da saria irabaztea! Amatasun-bajan nago orain eta entretentzeko, jolas moduan, hasi nintzen sariketarako aurkeztu beharreko liburuaren lagina itzultzen. Lasai hartu nuen eta, azkenean, emaitza nahiko txukuna zela iruditu zitzaidanez, epea ixtear zegoela bidaltzea erabaki nuen.

Frantsetik euskarara itzuliko duzu; zelan moldatzen zara?

Orain dela asko ukitu barik nuen frantsesa, eta, alde horretatik, kostatu egin zitzaidan hasieran. Administrazioa itzulpengintzan jarduten dut; hortaz, gehienetan, gazteleratik euskarara itzultzen dut, eta, tarteka, oso noizean behin, euskaratik gaztelerara ere bai. Ikasketa garaian ingelesa, frantsesa eta alemana ikasi nituen eta Montrealen (Kanada) eta Heidelbergean (Alemania) egin nituen urtebeteko egonaldia bana ondoren. Gazteleraz eta euskaraz gainera, hiru hizkuntza horiek ere ondo menperatzen ditut.

Ezagutzen zenuen Annie Ernaux idazlea?

Banuen haren berri, baina aitor- tu behar dut iaz arte ez nuela haren ezer irakurrita. Hemendik eta handik hari buruzkoak entzuten nituelako hasi nintzen, kasualitatez, orain itzultzen ari naizen liburua irakurtzen. Gustatu zitzaidan eta beste bi ira-



Gema Lopez Las Heras itzultzaileak euskaratuko du Annie Ernauxen liburua. G.L.

"LIBURU BAT AUKERATZERAKOAN, EUSKARAZ ITZULITA DAGOEN BEGIRATZEN DUT BETI"

kurri nituen ondoren, eta zerrendan ditut beste hainbat. Normandiako herri txiki batean jaio zen, 1940an; herriko ostatu eta denda baten jabeak zituen gurasoak. Mundu itxia zen harentzako, eta, handik alde egiteko gogoz, Frantses Filologia ikasi zuen unibertsitatean, irakaslea izan zen gero, ezkondu eta ama izan zen arte. 1970ean argitaratu zuen lehen nobela eta harrezkero hogeitik gora idatzi ditu. Haren obra, nagusiki, autobiografikoa da.

Zelakoa da Emakume izoztua?

30 urte inguruko emakume baten istorioa kontatzen du. Irakaslea da protagonista, ezkon- duta dago eta bi alaba ditu. Itxuraz, behintzat, bizitza ona du, baina, poliki-poliki, ikusten du zapuzten ari zaizkiola dituen ametsak, ilusioak eta bizipoza ere bai; hau da, nola albo bate-

ra utzi dituen etxeko zereginei heltzeko eksklusiboki. Bakarrik emazte, ama eta etxeko-andre izatera kondenatuta dagoela konturatzen da eta frustrazio horrek eragindako liburua da. **Irakurtzeko samurra dela diozu; itzultzeko ere hala da?**

Ernauxek idazteko estilo bortitza du, apaindura handi barik kontatuta, filtrorik barik, eta, horrez gainera, Normandiako dialektoko elementu asko erabiltzen ditu; hortaz, hor ikusten dut dudana erronka: kaleko estilo informal hori euskarara egoki ekartzea. Lankideak eta Elkar-eko editorea alboan izango ditut, seguru, bidean agertuko diren zalantzak argitzeko.

Zer behar du itzulpen on batek?

Ez da nabaritu behar itzulpena denik; naturala izan behar du. **Baduzu itzulitako liburuak irakurtzeko ohiturarik?**

Liburu bat aukeratzeko, beti begiratzen dut ea badagoen euskarara itzulita gaztelerazko itzulpena hartu aurretik, eta esango nuke, orokorrean, jendeari kontzientzia hori falta zaiola; bada, itzulitako liburua bada, zergatik ez, aukeran, euskaraz irakurri, ezta?



Irene Hernando aktorea antzeztanaren une batean. MAR-MAR TEATRO

'Arrainak bihotzean', familia osoarendako lan berria

Mar-mar Teatro taldeak eskainiko du bihar, zapatua, Seminarixoan, 18:00etan; sarrerak lau eurotan dira

Aitziber Aranburuzabala BERGARA

Diziplina askotariko hainbat lagunek –aktoreak, zuzendariak, argi eta soinu teknikariak, musikariak, diseinatzaileak, txotxongiloen manipulatzaileak...– osatzen duten taldea da Mar-mar Teatro. "Taldea sorkuntzan sinesten dugu antzerki-ikuskizunak sortzeko oinarri gisa. Horrela ulertzen dugu antzerkia eta horrela bizi dugu", diote taldekoek.

Familiei zuzendutako *Tarzan* lana eskaintzen ibili dira orain artean eta aurreko asteburuan Berrizen estreinatu zuten *Arrai-*

nak bihotzean izenekoa taula- ratuko dute bihar Seminarixoan.

Aktoreak eta txotxongiloak

Taularen gainean izango diren Irene Hernando, Aritza Rodriguez eta Maitane Serrano aktoreek Martaren istorioa kontatuko dute txotxongiloak eta bestelako osagaiak erabilita. "Martak ez daki non bizi diren beldurrak, eta lasai bizi da herri polit batean. Marinela du aita eta portuan zain duen egun gris batean, ekaitz batek uretara botako du eta itsas hondoak behartutako bidaia bat hasiko du".

'Turandot' operarako sarrerak salgai jarriko dituzte domekan

Ozenki elkarteak antolatuta, martxoaren 27an izango da Opera 2001 taldearen emanaldia, Amaia antzokian

A. A. J. ARRASATE

Askotariko opera eta bestelako emanaldi lirikoak antolatu izan ditu Ozenki elkarteak Arrasaten, eta martxoaren 27rako proposatu dute hurrengoa: Pucciniren *Turandot* obra izango da ikusgai. "Aurrez Amaia antzokian izan den Opera 2001 konpainia gonbidatu dugu. Puntako musikariak izango dira taularen gainean, 100 lagun inguru, eta eurekin batera Martin Mazickek zuzentzen duen Bulgariako Plevén orkestra", azaldu du Ozenki elkarte-ko kide Manu Gallaradok.

Puccinik konposatutako obra da *Turandot*, haren heriotzaren ondorioz Franco Alfonk bukatu bazuen ere. Hiru ekitaldiz osatutakoa da eta hirugarrenean oinarritutako emanaldia izango da Arrasatekoa; aria ezagunenak batzen dituen zatia, hain justu.

30 eurotan sarrerak

Domekan jarriko dituzte salgai martxoaren 27an 20:15ean izango den emanaldirako sarrerak; *Arrasate.eus* eta *Kutxabank.es* atarietan eta Amaia antzokiko leihatilan izango dira.

8. ALDIA Kantari

Bergara eta Elgeta 2023-01-28

San Martin Agirre eta Mariaren Lagundia ikastetxeetako, Aranzadi Ikastolako eta Elgetako Herri Eskolako 7 eta 11 urte arteko ikasleak izan ziren zapatuan Kantariren bost saio grabatzen Seminarixoan. Otsailaren 25ean hasita izango dira Goiena telebistan ikusgai; astebururo bi saio berri emango dituzte. ARGAZKIAK: IRINA ALVAREZ



ESKER ONA



Jose Luis Lazkano Goitia 

2023ko urtarrilaren 27an hil zen, Eibarren, 77 urte zituela.

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertu nahi dizkizue eta Jose Luis senitartean agurtua izango dela jakinarazten dizue.

Familiak ez du inor hartuko.
Arrasaten, 2023ko otsailaren 3an.

ESKER ONA



Jesusa Urrutia Murguiondo 

Maurizio Iturberen alarguna
2023ko urtarrilaren 26an hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan (Azatza), 2023ko otsailaren 3an.

ESKER ONA




Jesusa Urrutia Murguiondo 

Maurizio Iturberen alarguna
2023ko urtarrilaren 26an hil zen, 90 urte zituela.

Zurekin zenbat ikasi dugun ez da erraza esaten: elkarri zaintzen eta pertsonak zenbat maitatu dezakeen. Pausatu arren argi egiten duen izar eder baten, berdin segiko duzu, amama, gure eredu izaten.

Zure bilobak: Jone eta Beñat, Ainhoa eta Beñat, Leire eta Xabi, Maider eta Jon, Nerea eta Joseba, Kepa eta Jone, Elene.

OROIGARRIA



Jose Ignacio Agirre Otadui 


"Txito"
2023ko urtarrilaren 22an hil zen, 77 urte zituela.

Luis Mari Maidagan Miota
2022ko abenduaren 15ean hil zen, 93 urte zituela.

Beti izengo zarie gure kantuetan.

Santageda korua.
Arrasaten, 2023ko otsailaren 3an.

OROIGARRIA

Amancio Rodriguez Martin 

2023ko urtarrilaren 29an hil zen, 59 urte zituela.

Inoiz ez zaitugu ahaztuko.

Parkeko lagunak.
Oñatin, 2023ko otsailaren 3an.

OROIGARRIA



Idoia Albizu Ceciaga 

2023ko urtarrilaren 27an hil zen, 55 urte zituela.

Beti alaitasunez gainezka, guztiotzat edozertarako prest. Ez duzu inor axolagabe utzi. Dagoeneko, sentitzen dugu zure bizipozaren falta.

Zure kuadrilla.
Bergaran, 2023ko otsailaren 3an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Orogarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 200 € / Goiena Klubeko bazkideendako 175 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 175 € / Goiena Klubeko bazkideendako 155 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

ELGETA Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

OROILORE

Oroilore
Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu



Gari deitu zuzenean edo, nahizago baduzue, jakinarazi zure asaguru-konpainari gurekin nahi dituzela agurtu naiten dituzena.

Marioen, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotza sendatzeneko baloak dituen horietakoak. Guk badinagu gordetu zuzentzeko, gure beharru dituzenerako.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

BERRI-ZAKUA



Ospakizunetan

Arrasateko Meatzerrekako auzotarrak ederto ibili ziren San Balerio jaiak ospatzen. Euria lagun izan arren, gaztetxoak bigantxen aurrean ibiltzera ausartu ziren.



Txapeldunak

Jose Regaño eta Javi Eraña eskoriatzarrek irabazi zuten Euskal Herriko Mus Txapelketako Eskoriatzako kanporaketa.



Atxabalpen

Eibarren jokatzeko duen Luca semearen lan-saioa ikusten egon zen Zinedine Zidane Arrasaten. Zaleek segituan ezagutu zuten.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN

**LESIOEI BURUZKO SAIOA**

Malen Ruiz de Azuak eta Iñigo Barrenak aurkeztuta. Besteak beste, Eider Zabala fisioterapeutarekin egingo dute berba.

'Bizi On!' Egubakoitza, 21:30 eta 23:30

**BERGARAKO OSOKO BILKURA**

Urteko lehen osoko bilkurak emandakoa ikusteko aukera. Oso-osorik emango dute telebistan.

'Osoko bilkurak' Zapateria, 15:30 eta domeka, 22:00

**ZER EMAN DU AGINTALDIK ARETXABALETAN?**

Udalean ordezkaturik dauden alderdietako ordezkariekin egingo du berba Goiatz Aranak; agintaldiaren errepaso egingo dute.

'Harira' Martitzena, 21:00 eta 23:00

**LEIRE MILIKUARI ELKARRIZKETA**

Lur gainean, itzal azpian saiakera-liburuaren gainean galdetuko dio Joni Ubedak idazle eta arkitekto abadiñarrari.

'Elkarrizketa' Eguaztena, 21:30 eta 23:30

**THE CLAYTON TALDEAREN ZUZENKOA**

Danbaka lehiaketako final handian egindako kontzertua ikusteko aukera. Gerora sari nagusia eman zion emanaldia izan zen.

'Danbaka' Eguena, 21:00 eta 23:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 3**BERGARA San Blas jaiak**

08:00etan, etxafuego jaurtiketa; eta, 11:00etan, meza nagusia eta opilen bedeinkapena.
Buruñao auzoan.

ESKORIATZA WII txapelketa

Umeendako.
Ludotekan, 16:45ean.

ESKORIATZA Sukaldaritza

tailerra: San Blas opilak
Umeendako.
Gaztelekuan, 17:30ean.

OÑATI 'Goribar-Kasablanka. XX. mendeko bizitza argazkitan' liburuaren aurkezpena

Bi auzoetako argazkiak batu dituzte.
Kultura etxean, 18:30ean.

ARRASATE Kantu-jira

Santa Agedako koplak abestuz, Portaloi Kultur Elkartearen eskutik.
Arrasaten, 19:00etan.

ELGETA Koko-batzea: dantza tailerra

Otsailaren 11ko koko-batzean dantzatuko diren piezak gogora ekartzeko saioa.
Gimnasioan, 19:15ean.

BERGARA 'Egubakoitzak berreskuratzeko' ekimena

The Riff Truckers eta The Grace Of Dionysus taldeak. Sarrerak, zortzi euro.
Kartzela zaharrea, 22:30ean.

ZAPATUA 4**ARETXABALETA Kintoak eskean**

2004an jaiotako neska-mutilak ibiliko dira.
Aretxabaletan, 07:00etan.

ESKORIATZA Santa Ageda neska-mutilak auzoetan

2005ean jaiotakoak.
Gorosarri plazan, 08:00etan.

ARRASATE Santa Ageda koruak

08:00etan, meza parrokiar; eta ostean, taldeka banatuta, kantuan ibiliko dira. 14:00etan, bazkaria.
Arrasaten.

ARAMAIO Santa Ageda batzea

Alaiak taldeak, Musika Eskolak, Trikkikalejira elkarteak eta bertso eskolak antolatuta.
Bizente Goikotxea plazan, 10:00etan.

ESKORIATZA Kinttaden Eguna

Bederatzi kintadak parte hartuko dute.
Fernando Eskoriatza plazan, 11:00etan.

ELGETA Herri lasterketa

Egoarbitzara
16 urtetik gorakoendako.
Mendizaleen plazan, 11:30ean.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte artekoendako.
Ordutegia: 11:30-13:30.
Musakola auzoan.

BERGARA San Blas jaiak

16:00etan, mus txapelketa.
Bikoteak, 20 euro.
Buruñao auzoan.

BERGARA 'Arrainak bihotzean' antzezlana

Marmar Teatrotoren eskutik, familiendako. Sarrerak, lau euro.
Seminarioan, 18:00etan.

BERGARA San Blas opilen dastatzea

Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA Alai Berri taldearen kantu emanaldia

Santa Ageda bezpera eguna ospatzeko kalejira.
Bergaran, 18:00etan.

ELGETA Añube, The Lio, Streetwise eta No Limits taldeak

Mendi Mendia Racing jaiaren baitan. Sarrerak, hamar euro.
Ostean, Azken Erromantikoak DJ saioa.
Espalioan, 21:00etan.

OÑATI Hofe X 4:40 eta Kosmai Kosin taldeak

Sarrerak: zortzi euro soldata dutenek eta hiru euro soldatarik ez dutenek.
Gaztetxean, 22:00etan.

DOMEKA 5**BERGARA San Blas jaiak**

08:00etan, etxafuego jaurtiketa; 11:00etan, meza; 12:00etan, Moises Azpiazu taldearen dantza emanaldia; eta, 19:00etan, San Blas ermitako anaidiaren batzarra.
Buruñao auzoan.

OÑATI Kintoak eskean

2005ean jaiotakoak ibiliko dira erdiguneko auzoetan.
Santa Marinan, 08:00etan.

ELGETA Bisita gidatua lubakietara

Izena ematea beharrezkoa da: 943-79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus.
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.

ARETXABALETA Gipuzkoako karate txapelketa

Senior mailakoa. Guztira, 82 parte-hartzaile egongo dira kata eta kumite kategorietan.
Ibarra kiroldegian, 10:00etan.

ARETXABALETA Eskolarteko boulder ligaxkaren proba

2020-23ko denboraldiko hirugarren proba egingo dute eskalatzaille gaztetxoek.
Ibarra kiroldegian, 10:00etan.

ANTZUOLA Santa Ageda eguna

11:15ean, jaien hasiera kanpai hotsekin eta etxafuegoekin; 12:00etan, meza; eta, 12:30ean, luntxa.
Galartza auzoan.

ARRASATE 'Familian jolasean'

0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako askotariko jolasak.
Okendoko ludotekan, 17:30ean.

ESKORIATZA Santa Ageda neska-mutilen dantzak

2005. urtean jaiotakoak.
Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.

ARETXABALETA Santa Ageda neska-mutilen dantzak

2004an jaiotako kintoak.
Herriko Plazan, 19:00etan.

ASTELEHENA 6

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ARETXABALETA Sukaldaritza tailerra
Frutazko brotxetak egingo dituzte.
16:45ean HHkoak eta 18:00etan LHkoak.
Ludotekan.

ARRASATE 'Habitat' erakusketa
Euskal Herriaren historia ezagutzeko, Nabarralderen bilduma. Hilaren 17ra arte ikusgai.
Kulturaten, 17:30ean.

MARTITZENA 7

ARRASATE Idazketa tailerra
Miren Amuriza idazlea izango da irakaslea. Euskaraz.
Kulturaten, 18:00etan.

OÑATI Arnaldo Otegiarekin solasaldia
Oñatiko EH Bilduk gonbidatuta egingo du berba alderdiko koordinatzaile nagusiak.
Zinema aretoan, 18:30ean.

ELGETA Irakurketa taldea
Bertol Arrietaren *Gezurra berdaderoa* liburuaren gainekoa.
Liburutegian, 19:00etan.

ARRASATE 'Eo' pelikula
Jerzy Skolimowskiren pelikula martitzenetako emanaldian. Sarrerak, bost euro.
Amaia antzokian, 19:30ean.



MARMAR KONPAINIA

BERGARA 'Arrainak bihotzean' antzezlan
Aita marinela duen Martaren istorioa kontatzen duen lana. Ekaitz batek uretara botako du eta itsas hondoak behartutako bidaiari bat hasiko du; horretarako, arrainen hizkuntza ikasi beharko du. Sarrerak, lau euro.
Bihar, zapatua, Seminarixoa, 18:00etan.

EGUAZTENA 8

BERGARA 'Análisis cinematográfico II' hitzaldia
Pedro Saldañak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Seminarixoa, 10:00etan.

ARRASATE Sasoibide, mendira
Elkartzen direnen artean erabakiko dute nora joan.
Biteri plazan, 15:00etan.

BERGARA Kafekonpon
Etxeko tresna txikiak konpontzeko.
San Joxepen, 16:00etan.

OÑATI 'Adimen gaitasun handiko haurrak ezagutzen' hitzaldia
Amaia Agirianok egingo du berba, Urgainek gonbidatuta.
Kultura etxean, 18:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserriaren garaiko produktuak erosteko.
Oxironon, 18:00etan.

ARRASATE Faktura elektrikoaren gaineko tailerra
Goienerreko kideek emango dute. Nork bere faktura eramatea eskatu dute.
Kulturaten, 18:30ean.

BERGARA 'Mass' pelikula
Fran Kranzen lana, jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoa, 20:00etan.

EGUENA 9

ARRASATE Sasoibide
Santagedatx tontorreraino joango dira.
Autobus geltokian, 10:00etan.

ARETXABALETA Odol-ateratzea
Autobusa egongo da.
Herriko Plazan, 16:45ean.

ESKORIATZA 'Argia itzali da' itzalen antzezlan
2 eta 5 urte arteko haurrendako.
Luis Ezeizan, 17:30ean.

ARRASATE Komiki tailerra
Iñaki Martiarenaren eskutik, 6 urtetik gorakoendako.
Santa Marinako bibliotekan, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Berpiztu' dokumentala
Kepa Junkeraren memoriari eta lanari buruzkoa.
Zaraian, 19:00etan.

OÑATI 'R.M.N.' filma
Cristian Mungiuren lana zineklubean eta jatorrizko bertsioan. Sarrerak, bost euro.
Zinema aretoan, 20:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Sofa taldea
Zarautzen sortutako rock taldearen emanaldia. Musikariak zarautzarrak eta zumaiarrak dira. Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAI ANTZOKIA

Babylon
Zapatutik astelehenera:
19:30.

El gato con botas
Zapatua eta domeka:
17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Babylon
Zapatua, domeka eta astelehena:
19:30.

Zoe y la tempestad
Domeka:
17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Living
Egubakoitza eta zapatua:
22:00. Domeka:
19:30, 22:00. Astelehena:
19:30.

Inspector Sun y la maldición de la viuda negra
Zapatua eta domeka:
17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Living
Egubakoitza:
22:00. Zapatua eta domeka:
19:30. Astelehena:
16:00.

EIBAR

COLISEO

Yuku eta Himalaiako lorea
Zapatua eta domeka:
17:00.

Una herencia de muerte
Zapatua:
17:00, 19:45, 22:30. Domeka:
17:00, 20:00. Astelehena:
20:30.

La ballena
Zapatua:
17:00, 19:45, 22:30. Domeka:
17:00, 20:00. Astelehena:
20:30.

GASTEIZ

FLORIDA

A todo tren 2
Zapatua eta domeka:
11:45.

As bestas

Egunero, domeka izan ezik:
17:00. Domeka:
16:30.

Avatar
Egubakoitza eta zapatua:
16:45. Domeka:
16:30.

Babylon
Egubakoitza eta zapatua:
20:30. Domeka:
20:15. Astelehenera:
19:45.

Decision to leave
Egubakoitza eta zapatua:
17:00, 21:30. Domeka:
16:30, 21:00. Astelehenera:
17:00.

El gato con botas
Zapatua eta domeka:
12:00.

Inspector Sun y la maldición de la viuda negra
Zapatua eta domeka:
12:00.

La ballena
Egubakoitza eta zapatua:
19:15, 22:00. Domeka:
18:45, 21:30.

Astelehenera:
17:15, 19:15.

Living
Egubakoitza eta zapatua:
16:45. Domeka:
16:30. Astelehenera:
17:00.

Lobo feroz
Egubakoitza eta zapatua:
22:30. Domeka:
22:00. Astelehenera:
19:15.

Almas en pena de Inisherin
Egubakoitza eta zapatua:
17:30, 20:00, 22:15. Astelehenera:
19:30, 21:45.

Astelehena eta eguaztana:
17:30, 20:00. Martitena:
17:15. Eguena:
17:00.

Llaman a la puerta
Egubakoitza:
17:00, 19:45, 21:45. Zapatua:
11:30, 17:00, 19:45, 21:45. Domeka:
11:30, 16:30, 19:15, 21:15.

KRITIKA

Tár

Zuz.: Todd Field. **Herr.:** AEB (2022). **Aktoreak:** Cate Blanchet, Nina Hoss, Noemie Merlant. **Iraupena:** 158 minutu.



Erraldoia, buztinezko oinekin

ANTONIO ZABALA

Todd Fielden filmak hasieratik ikuslea proban jartzen du. Lehenengo sekuentzia iraupen handikoa da. Pertsonaia nagusiari —orkestra zuzendari ospetsua— telebistan elkarrizketa luzea egiten diote musikarekin lotuta. Horretan, segurtasuna, berritasuna eta karisma erakusten ditu. Baina, telebista platora sartu baino lehen, urduri, pilula batzuk hartzen ditu. Eszena horrek bikain islatzen du istorioa nondik nora doan. Lydia Tar buztinezko oinak dituen erraldoia da. Jainkosa ahalguztiduna dirudi, baina ahultasunik dituen pertsona bat dago atzean. Orkestra zuzendaria guztia kontrolpean izan nahi duen gizaki despotikoa da. Inguruan dauden guztiek haren

zerbitzura egon behar dute. Filmak botere gehiegikeriaz hitz egiten du. Ekintza guztiak ondorioak dakartzate, eta horren menpe daudenak, aukera dutenak, horren kontra altxa daitezke. Justizia, handinahia eta mendekua nahasten dira modu ambiguo samarrean. Pertsonaiak mugitzen diren mundua itxura zibilizatuko oihana da.

Zuzendaritzaren aldetik filma ederra dela esango nuke. Zuzendariak bikain erabiltzen du *scope* formatua istorioari behar duen *tempo*a emateko.

Eta zer esan Cate Blancheten interpretazioari buruz? Zoragarria da. Begiradarekin, mugitzeko moduarekin eta ahotsaren erabilerekin pertsonaia liluragarria sortzen du.



AZKEN BERBA

MARIA AGIRRE

Makina eta eskuak

Duela gutxi, irakasle batek kontatu zidan lanak idatziz eskatzen hasi dela. Ikasleei bidalitako lanak modu neurrigabea *kopiatu eta itsatsi* formularen emaitza direla ikusita, boligrafoa eskuetan eta orri gainean idatzita, ikasleak ezagupen batzuekin, behintzat, jabetuko direla uste du irakasleak.

Kopiatzearena edo etxeko lanak beste norbaitek egitearena kontu zaharra dela esango nuke, baina teknologia berriek zirrikitu sofistikuak ireki dituzte lanak egiteko gogo handirik ez dutenentzat. Orain artekoa gutxi ez, eta azken asteetan ahoz aho dabil Chat GPT 3 delakoa. Onurak ere ekarriko dituen adimen artifizial hori, baina, agian, beste buruhauste bat ere bilaka daiteke irakasleentzat. Seguru hizpide dabilela kontua ikastetxeetako korridoretan.

Nik neuk ere egin dut proba, eta bai, katuen inguruko 100 hitzetako idazlan bat egitea eskatu eta zentzuzko lan polit batekin erantzun dit robotak. Dena dago egoki, baita ortografia eta puntuazioa ere. Ondoren, eskuz idaztea garrantzitsua ote den galdetu diot; baietz erantzun dit eta lau arrazoi eman dizkit. Horietako batek dio idazteak sormena piztu, estresa gutxitu eta pertsona asebetetzen duela. Ordenagailuz egin dut zutabea, baina ni neu ere bapo geratu naiz.

BUKATZEKO

'El conquis' saioko kameraren atzean egon da

Oxel Arrieta arrasatearra ETB2ko 'El conquistador del Caribe' saioko lantaldearen parte izan da, soken probak prestatu baititu Dominikar Errepublikan; esperientzia errepikatzeke modukoa izan dela dio, baina ez litzatekeela lehiakide bezala joango

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE

El conquistador del Caribe saioan lau lehiakide debagoiendarrek parte hartu dute, eta beste batek ere bai, kapitain, baina bada kamera atzean lanean ibili den arrasatearra bat. Oxel Arrieta da hura, mendi gidaria, eta soken probak prestatzen jardun du. 43 egun egon da Dominikar Errepublikan. Soken lantaldean baja bat egon zen eta eskaintza jaso zuenean baiezkoa "oso erraz" eman zuen; lankide batzuk eza gutzen zituen aurrez eta horrek ziurtasuna eman ziola gaineratu du. Esperientzia "oso ona" izan dela dio, eta errepikatzeaz galdetuta: "Bai; zergatik ez? Esperientzia berria izan da; ia bi hilabete dira kanpoan".

Probak, bertatik bertara

150 lagun inguruko lantaldea du saioak; batzuk hemendik joanak eta beste batzuk bertakoak dira. Soka proben lantaldean hiru pertsona egon dira eta harreman ona egin dutela aitortu du arrasatearrak. Grabaketak hasi baino hilabete lehenago joan ziren, lokalizazioak ikusi eta probak non muntatu zitzaizketen zehazteko. Behin lokalizazioa aukeratuta, proba mun-



Oxel Arrieta, *El conquistador del Caribe* saioko probetan lanean. O.A.

tatu, "ondo geratzen zela ikusi" eta desmuntatu egin behar izaten zuten, eta grabaketa egunean berriz jarri.

Lehiakideak lehiatzen gertutik ikusi ditu hark prestatutako probetan: "Gure taldeak prestatutako probetan segurtasun-lana egin behar genuen, edozer gauza gertatzen bazen ere...". Hala ere, orain etxetik jarraitzen ari da saioa eta probak telebistatik "hobeto" ikusten direla adierazi du: "Bertan muntaia ikusten duzu, baina telebistak beste zerbait ematen dio; musikaren tentsioa eta lehiakideen aurpegiak gertutik ikusten dituzu".

Saio gogorra

Klima eta paraje horietara ohi-tu gabe badago ere, paisaiek txundituta utzi dute arrasatearra; klimatologiak, berriz, alde onak eta txarrak dituela azaldu du; izan ere, Karibea epela da, baina, aldi berean, hezetasun handia dago.

El conquis hitz batek deskribatzen badu, hori *gogortasuna* da, eta Arrietak hori berretsi du: "Kanpalekuak nola muntatu dituzten ikusi dut, eguneroko probak, ez dute jaten, jejenak... Oso gogorra da eta lehiakideek gauza bera esango dizute".

Hark ere izan du gorabeheraren bat edo beste eltxoen ziztadekin: "Hankan ziztada pila nituen eta uste dut egun batzuk geroago pozoia behera jaitsi ziztadala, inertziagatik edo, eta oina handitu egin ziztadala". Dioenez, oinak bota bat zirudien.

Hortaz, lehiakide moduan joango litzatekeen galdetuta, ezetz dio arrasatearrak: "Ez daukat esperientzia hori pasatzeko beharrik".

bertako -REKIN BAI!
igogailuak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei

GIPUZKOA

943 903 450

BIZKAIA

946 523 935

ARABA

945 712 822

NAFARROA

848 870 917

www.bertako.eus